

FR. JUAN AJURIAREN IDAZLANAK (1800-1825)

Donostia, 1991-IX-27

Patxi Ondarra

I. Bizitza eta lanak

1. Berri gutxi dakigu euskal idazle honetaz. Gainera, dakigun edo jakin behar genukeen gutxi hori ahazturik daukagu. Alfonso Irigoyen eta Justo Maria Mokoroak argitaratu zituzten zenbait testu *Euskera* agerkerian (“Sermones manuscritos antiguos”, *Euskera*, V (1960), 341-376), horietako bi Fr. Juan de Ajuria-renak¹ direla: bat 1800. eta beste 1806. urtekoa. Egia da A. Villasantek aipatzen dituela Juan Antonio Mogelen “Cristaubaren Icasbidea” liburuan (Ik. 26. or., (31). oharra). Esaten digu baita ere, Mogelen lan horren Arantzazuko kodizean, beraren pergaminozko azalaren bizkarrean, hau irakurtzen dela: *Catec Bascong Ajuria*². Eta uste du, ziur ez dagoela aitortu ondoren, sermoi horien egilea eta kodizearen jabea pertsona bat bera direla.

2. Ez dakigu non eta noiz jaioa den, baina uste dugu Bizkaian jaioa dela, bere deitura hangoa bait da. Arrasaten bizi da 1807. urtean, prantziskotarrek bertan zuten komentuan. Arantzazun gordetzen den platika batean dioenez, Elorriren predikatu behar zuen urte horretan, baina “precisado por los Negros”³ Arrasatera bihurtu behar izan zuen, eta 1825.

1. Izenari dagokionez, Mokoroaren transkriptzioan “Fray Juan de Ajuria” dago 1800. urteko platikaren ondotik (Ik. 365. or.), eta “Fr. Juan de Aj-uria” 1806. urtekoaren ondotik (Ik. 376). Arantzazuko platican eta Mogelen *Cristaubaren Icasbidea* liburuan Ajuria ezarri du. A. Juan de Larrinagak prestatu zuen eta argitara gabe dagoen Kantabriako prantziskotarren “Necrologio”an Juan Ajuria dago, eta hori bera A. Kandidoren gutunean.

2. Kodize hau Elgoibarko prantziskotarren komentukoa zela esaten omen du A. Ozerin Jauregik, hola dio Villasantek. Gero esaten dugunez, Elgoibarren hil omen zen Ajuria.

3. José María Iribarrenek dioenez, *negros* da “Nombre con que en la primera mitad del siglo último eran conocidos los liberales o constitucionales, por contraposición a los *blancos* que así llamaban a los realistas o absolutistas”. J.M. Iribarren. *Vocabulario Navarro*, 1984, 371.or. Ricardo Ollaquindiaren argitaraldia erabili dugu.

urtean eman zuen platika Elorrión. Bitarte horretan Arrasatetik kanpo egon zen, bai Napoleonen gudua zela, bai gero Bizkaira bidali zutelako: “ya posteriormente por mi agregación a la Nación de Bizcaya”. Horregatik, zenbait aldaketa sartu zituen, lehenbizi idatzi zuena sutara bota gabe, “como otras mías centenares”, berak dirauskunez.

3. Arrasaten dago berriz ere 1824.ean (?)⁴ eta hor jarraitzen du 1832.a arte, Irugarren Ordenako zuzendari eta moral gaietan “Lector de Casos” izan zelarik. Sasiolan ageri da 1833.ean eta Elgoibarren hiltzen da, 1840. urtean bere fraidekideekin komentutik jaurtikia izan ondoren. “Lector de Casos” izan zela esan dugu, beraz moraleko gaietan asko zekiena zen eta bere nagusien konfidantza osoa zuen. Horrek esan nahi bait du fraide gazte, oraindik ordenatu gabeen irakasle zela, eta egiteko hori ez zitzaion normahiri ematen. Paratu ditugun bere plaketatik ere ikusten da oso jantzia zela buruz, erabiltzen bait ditu ez bakarrik Eskritura Sagraduak eta Elizako Guraso ta Irakasleak, baita ere autore profanoak, hala nola Plutarko, Plato, Zizero eta Horazio. Ezagutzen du *Sistema de la Naturaleza* liburua, Holbach Frantziako entziklopedista famatuak idatzia, eta Fr. Juanek gogorki salatzen duena. Liburu “ziquiñ” horretatik, “ceñ munduco Naciño guciguciac daucaten iracurtea (sic *-te-*) eragoztiric”, ikasi eta ateratzen dituzte framasonek beren argumentuak “arimea betico izatearen gañean, ala nola Jaungoicoa izatearen gañean, ta J[esu Chris]toren erreligio eguiazcoaren gañean” (3, 8, 1). Eta jarraitzen du aurrerago liburu onetaz: “esandaco liburua, ceñ Española tar batec etzuan iduqui lotzaric ecarteco (sic *-te-*) amazapi milla errealen costura beste erreñu batetic” (3, 8, 3).

4. Hamar bat platika edo sermoi ezagutzen ditugu berak idatziak. *Denak gipuzkeraz daude, Bizkaia eta ekialdeko zerik badagoela*. Lehenbizi, goian aipatu ditugunak: 1800. eta 1806. urtetakoak eta Irigoyen-Mokoroak argitara emanak. Hurrengo, Elorrión 1825. urtean eman zuena, baina 1807. urtean predikatze ko paraturik zeukana eta orain Arantzazun gor-

4. A. Kandido Zubizarretak gutun baten bidez esaten digunez, izan zuten prantzisko-tarrek fraide bat Juan Ajuria izenekoa, “gutxienez” 1824. urtetik 1832.era ino Arrasaten bizi izan zena. Bestalde, Ajuria 1826.ean esaten digu: “La Platica de la buelta, dispúse en Mondragon, para predicarla en Elorrio, año 1807; y precisado por los Negros a bolberme a este de Mondragon, tuve q[ue] predicarla en Elorrio, año 1825; pues q[ue] todo este [tiem]po estuve ausente de este de Mondragon, ya por las advenencias de la guerra de Napoleon, ya posteriormente por mi agregacion a la Nacion de Bizcaya”. Estu-estu hartuta hori, esan behar genuke 1825.ena arte Arrasatetik kanpo egon zela, baina baliteke, funtsean, kontraesaterik ez izatea bi datu horien artean.

José María Iribarrenek dioenez, negros da “Nombre con que en la primera mitad del siglo último eran conocidos los liberales o constitucionales, por contraposición a los *blancos* que así llamaban a los realistas o absolutistas”. J.M. Iribarren. *Vocabulario Navarro*, 1984, 371. or. Ricardo Ollaquindiaren argitaraldia erabili dugu.

detzen dena. Horregatik, beraren bi aldaera daude. Azkenik, guk aztertu eta paratu ditugun sei-zazpiak, Juan Mari Lekuonaren bitartez guregana etorriak. Manuel Lekuonak bere eskuetan zituen 1927. urtean, eta Igorretan izan bide ziren aurkituak, bertan izenpetzen den gutun batetik ateratzen dugunez. Bestalde, izkribuak gutun azal baten barruan gordेरik daude, eta azal horren gainean esaten zaigunez, gutuna Zeanurira igorria izan zen bertako “Cura y Beneficiado” zen “D. Francisco Antonio de Sagarminaga”⁵ jaunarendako. Azkeneko testuok ez diote nor izan zen egilea, bai ordea noiz izan ziren idatziak. Horietako lehenengoan (Ik. 1, 2, 9) ikusten dugunez, 1824.ean izan zen idatzia, eta besteak ere data horretakoak direla pentsa daiteke. Jakinerazten zaigu ere berrietan egilea prantziskotarra dela, leitzen bait dugu (Ik. 4, 2, 1) Nicolao Lyra erakusle famatua bere habitukoa dela, eta Sorbonako irakasle eta izen handiko exegeta izan zen XIV.mendeko Nicolas de Lyre (1270-1349) prantziskotarra zen.

5. Nola dakigu Igorreta-Zeanuriko platicak Juan Ajuriak idatziak direla? Arantzazun gordetzen den platicak gureen idazkera eta euskara bera darabiltza, A. Kandiko Zubizarretak dioskunez eta bidali dizkigun fotokopiak argi eta garbi erakusten dutenez. Bertan esaten da Ajuria dela egilea, hola idazten bait du 1826. urtean ipini zuen erdal eraskin baten bukaeran: “Ajuria, año de 1826”, eta errubrika. Irigoyen-Mokoroak argitaratuak ere idazkera bera (Ik. *Euskera*, VI (1961), 332. or.) eta funtsean euskara bera dute besteekin. Arantzazukoan ageri den errubrika Zeanuri-Igorretakoetan ere errepikatzen da. Hamar sermoi ezagutzen ditugu, beraz, egileak “centenares” sutara bota zituenetik salbatuak.

II. Edukia, estiloa eta giroa

1. Platika hauek ez dute zer ikusirik irakurri ditugun hainbeste eta hainbeste hitzaldi, sermoi, prediku, dotrina eta platicakin. Besteak ez bezala, hauek apologetika gaiak dira, bere etsaien —framasonak izan ohi dira— argudioak deuseztatzeko arrazoi naturalaz eta filosofiaz baliatzen dela hein handi batean. Ikus dezagun platicaz platika ukitzen dituen temak.

- Lehenbiziko platican hiru puntu eskaintzen ditu: 1. “Andieguia da Jaungoicoa, guc emen lurtean eguiten ditugun-az, arduratzeko”, esaten omen dute (1, 1, 1); 2. “Eztá arrazoe baicic[a]n injusticia, castigatzea betico pena[ui]n instante bateco pecatubat” (1, 1, 5); 3. “Norc daqui, beste bicitzan igarotzen dan-á?: infernutic, eta, beste mundutic ez dator

5. Francisco Antonio de Sagarminaga ageri da Igorretan 1848. urtean.

ona berriric ez cartaric: iñor eztegu icusi biurtzen andic, oiala, ai bada, baletor, sinistuco guiñoique” (1, 3, 4).

- Bigarrenaren hasieran hau dugu: “¿Infernuric bagó, galdetzen dute christau ascoc, Framas[one]n dicipulu eguin diranac?” (2, 1, 1). Eta erantzuten du aurrerago: “Infernua bai dagó, gucia suturic, inoiz ere cabutuco eztiran pena gogorracquin” (2, 1, 6).

- Hirugarrenen platican arimaren hilezkortasuna tratatzen da eta hone-la aurkezten da puntua: “Gure arimea da ezillgarria, illezcorrá edo, iñoriz ere illeciña” (3, 1, 5).

- Laugarrenean honako hau dugu mamia: Eskritura Sagraduetan aurkituko dugu “eztala egundaño iñor salbatu ta ez salbatuco ere, aldez edo moldez, nolabait, confesatu bagué. Egundainoz gueroz, legue gucietan, eta guizaldi gucietan, usatu da ta usatzen da confesatzea: ez ordea, berdiñ. Legue naturaleco confesatzea, oraiño confesatzearen itzala becela zan: orducoa zan, oraingoaren señale bat, irudia-figura-ta significantza bat” (4, 1, 1).

- Bosgarrenean erlijio naturalaz dihardu eta hiru gai ukitzen ditu:

1. Hartu behar dela erlijioaren bat, edo “Jaungoicoa izan bear dala amatua ta onrratua, bai biotzbarruan, bai campoan” (5, 1, 2); 2. “criaturen accio guciac eztirala Jaunaren guztoco, batzuc izanic beren izatez onac, beste batzuc charrác” (5, 1, 3); 3. Erlijio naturaleko obrak azaldu-rik, dio hori eztela asko, “ta orregatic premiapremiazcoa dala errebelacioa: ta onela pausu berezberezoacquin, juango naiz azaltzera erriligio cerutic aguertua” (5, 1, 4).

- Seigarreneko puntua honela laburbiltzen da: “Jaungoicoac izan bear du agurtua-adoratua-amatua, biotzetic, campotic, eta aguirian” (6, 1, 5). Ematen du platika hau 5.ean sartzen duela.

- Zazpigarrenean agertzen du puntu hau: “Adanen pecatua ezquero, ya criaturen accioac eztirala Jaunaren guztoco, erriligio naturalaren contra diralaco. Beraz, bear bearra da erriligio naturalezaz goiticoa-cerucoa-jaincozcoa, ezagutzeco Jaungoicoaganaco-guganaco-ta lagun urrecoagana-co cereguin-oficio-ta obligacioac” (7, 1, 6).

2. Horrelako apologetika eta filosofiak norendako ziren, nortzuk ziren entzuleak? Kaletarrak ote, herri handietako jendea? Bestalde, Aju-riak dioenaren arabera, berak gaitzesten dituen dotrinak ez dira zabaldu euskaldunen artean, honela mintzo bait da “arimearen illeciñazunaren gañ[ea]n” ari dela: “Nic badaquit, nere euscaldun maiteen artean eztala aurquitzen casta onetaco pecatariric, ceren fedeco gauzatan beti diran christau zaar, sendoac” (3, 1, 2).

3. Biziki goraiatzten ditu euskaldunak eta euskara, gure asabek asmatutako hitzez baliatzen denean bere irakatsiak egiaztatzeko. Hona hemen zenbait adibide. *Geheenna* ‘infernuu’ da, eta izen hori “Euscaldun labort-arrac bere itz-eran, beste moduz arnasa-eguiten ta ebasten du, esanaz: ē Gēnna, au da, ēxē, ēxētū, īxio: esan nai du, eXehēnna, ēxētuená”. Hori “Iurbarruco ondalecu” bat da, eta erasten du “Iurpean daodela lecu batzuc, a-súbrez-azoguez-cillar biciz, ēxē-īxio-irazequiac” (2, 2, 1). Sumendiei buruz ari dela esan du hori.

Euskara garbi-garbiak dira “arimea, álma, izpiritua”, eta jarraitzen du esaten “ardura ta arreta andi batequin ipiñi zizcoela gure izate arrazoedunari antzínaco euscaldun, erdaldun beste guciac baño filosofo jaquitunagoac” (3, 2, 1). Hitz horien etimologia azaldu ondoren, bukatzen du: “Icen oiecquin mundu jayo berritic euscaldun jaquitunac ezagutu ta onrratu zuten gure arimearen izate noble icen andicoa (señalé, ceruco aguerpenez icasi zutela Erligio eguiatzcoa)” (3, 2, 2).

Euskara da “Kehobak, edo Jobé, verba ceñac, eusquera garbigarbia izanic, aditzen ematen dituan aren icen-izate-ta perfeccioac” (7, 1, 8). Jarraitzen du: “eusquera aaztu zuten[et]ic ona, eztagoala philosophoen opinioric, contraesate bagueoric” (7, 1, 9). Eta bukatzen du: “Agueri da bada emendic, cer moduz illundu zuan guizonezco adimentua ta gomuta pecatu jatorrizcoac erriligio naturalean, cer premia zeducan guizonac erriligio ceruco batena, ta onequin ta eusqueraren laguntazunarequin cer arguero aditzen dituzten christau escola mutillac Joberen icen-izate-ta perfeccioac, philosopho ayec baño obeto” (7, 2, 3). Filosofo horiek dira “atheisticiac”, “deisticiac”, “spinozzisticiac”, “epicureoisticiac” eta “maomaisisticiac” (7, 1, 10-11 eta 7, 2, 1-2). Ikusi dugunez, *Jobe* esaten du, frantses eta gaztelaniaz *Yahvé* dena eta ingelesez *Yahveh*.

III. Testuak, gramatika eta hiztegia

a) Testuak

1. Aztertu ditugun testuak zazpi platika dira. Baina 2. platican ematen du bigarren zatia falta dela, hau irakurtzen bait dugu amaieran: “Eguia au illundu nai dute..., onetaraco asmatutzen dituztela aitzaquia-escupeda-ta iguesinguru asco, ceñ ateraco ditudan arguitar, aitortu dezazuten dira-la, arrazoe-buru-ta centzunbagueac” (2, 3, 9). Hitz horiekin bukatzen da hitzaldia, agindu duena bete gabe. Bestalde, “Plática 1.^a sobre Religión natural” deituan –5. testua da– hau ipintzen du: “Buelta” (5, 1, 4). Orri horren atzeko aldean “Plática 2.^a” dio, eta 12 lerro ageri dira orrialdearen goiko aldean. Ez dugu puska hori “Buelta” dioen lekuan sartu, baizik eta 6. *Testua* izenpean eman dugu. Beraz, hori bakarrik da 6. *Testua*, orrialde hori zuri dagoela ia osorik.

2. Orrialdeak 178 mm. luze eta 114 mm. zabal dira. Bost orri dira gutzira, 1. orrian lehenbiziko bi testuak daudela; 2.ean, hirugarren testua; 3.ean, laugarrena; 4.ean, bost eta seigarrenak; 5.ean, zazpigarren testua alde batean, eta beste aldean erdarazko zerrenda bat. Darabiltzan letra edo hizkiak gutziz txikiak dira, lerro bakoitzak batez-beste 90 bat hizki edo hizki tarte hartzen dituela.

3. Tinta gorria erabiltzen da honako kasuotan: 1. Platika gai izenburua; 2. *Introduccion* eta *Punto* hitzak beti; 3. orrialde peko oharretara bidaltzen duten zenbaki ta markak; 4. komatxoak; 5. hitzak azpimarkatzeko marra; 6. zenbait paragraforen hasierako hizkia noizean behin 4. testuan eskuidatziko bigarren orrialdean; 7. 5. eta 6. testuetan paragrafo berezien hasierako hizkia eta beste zenbait paragraforen hasierakoa; 8. zenbait hitz paragrafo barruan, hala nola Delphos 5. testuan; 9. zenbait hitz hasiera paragrafo barruan, hala nola “Minos” 5.ean hau ere.

4. Ur markak hauek dira: 1. Hiru elipse kontzentriko eta horien barruan zenbait marrak, horietako bat lili-oria izan litekeela; 2. zenbait hizki, U ARGELL (?) edo; 3. testuak gorderik dauden gutun azalean, “D. Francisco Antonio de Sagarminaga”ri zuzendua dagoenean, maskor bat eta horren azpitik T^a de G^a eta bi *a* horien azpitik biotz bana.

b) Grafia eta fonetika

1. Grafia eta fonetika arloan sartzen garela, esan dezagun gutxi-gutxitan ageri dela *h-/h-* hitz hasiera edo barruan, hala nola “hura” erakuslean eta “hume” ta “ahal” izenetan, adibidez.

2. Zenbait hitzetan, *-s-*, *-ss-*, *-x-* kontsonanteen gainean marratxo bat ipini ohi da; eta hori bera gertatzen *-ts-*, *-tz-* digrametako *-s-* eta *-z-* gainean: “pī̄sutazuna” 4, 4, 2; “Maī̄suareq[ui]n” 5, 1, 1; “pī̄xu” 5, 2, 7; “ī̄xio” 2, 2, 1; “et̄say” 5, 3, 10; “it̄zill it̄zillīc” 3, 1, 9; “ant̄zinaco” 3, 2, 1.

3. Azentu marka maiz samar azaltzen da.

4. Hitzak partiturik eta marratxo edo gioi baten bidez loturik sarritan ematen dira: “ditugun-az” 1, 1, 1; “dan-á” 1, 3, 4.

5. Bakan-bakan ageri da bukaerako *-a* organikoa *-ea* edo *-ia* bilakaturik: “eguitadeac” 7, 2, 7; “deistiāc” 7, 1, 11.

6. Esanahi antzeko hirukoteak edo esanahi multzo bat egiten dutenak marratxo baten bidez loturik ematen ditu, koma zeinua espero denean: *aci-eci-icasīac* 1, 1, 2; *esi-olesi-ta barruera* 1, 3, 1; *aitortu-ezagutu-ta iracatzi* 1, 4, 1; *bildur alperricacoa[ui]n-icara guezurrezcoa[ui]n-ta icusqueta despreciagarriaquin* 2, 1, 4.

7. Nahasten ditu noizean behin *s* eta *z* kontsonanteak, baita *ts* eta *tz* ere: “batazunetan” 2, 1, 2 -beti “-tazun”-; “iracatz” 1, 1, 2.

8. Birritan aurkitu dugu *p-* kontsonantea *f-* espero litekeenean: “*palta*” 3, 4, 2; “*piñpiñaño*” 3, 2, 1; baina “*festa*” 7, 3, 1; “*famatu*” 4, 2, 1.

c) Morfologia eta sintaxia

1. Izena. Behin aurkitu dugu “-*tarik*” atzizkia “-*tarik*”en ordez: “penitenciaren partetarik bat” 4, 3, 3.

2. *Nor* eta *zein* izenordainen plurala *-tzu* atzizkiaren medioz tajutzen da, hartu ditugun adibide guztiak erlatiboazko perpausetan agertzen direla: “*ayei, nortzuec-gandic*” 5, 2, 4; “*araco nortzuen*” 4, 3, 6; “*lecu ceñtzu*” 2, 2, 1; “*locarri oi* *ceñtzu*” 5, 2, 6; “*ceintzuen us-eguiteac*” 7, 3, 3.

3. Aditza. Aldian behin aditz izenean *-te* ikusten dugu, *-tze* espero izango genukeenean: “*aguertuteac*” 1, 3, 7; “*ecarteco*” 3, 4, 1; “*ezarten*” 5, 3, 6. Eta alderantziz, *-tze* idazten da *-te* espero denean: “*irtetzea*” 2, 1, 2; “*ichodotzen*” 3, 4, 3.

4. Behin *'go* ‘*dago*’ aurkitu dugu: “¿*Infernuric bagó?*” 2, 1, 1.

5. Subjuntiboan *dedin* eta *didin* ageri dira: “*Guerta eztedin*” 3, 1, 4; “*artu eztidin*” 4, 5, 2.

6. Iraganaldian behin *zekidion* ‘*zitzaion*’ dago: “*aric* eta *Nathan Profeta... etorri zekidion* arteraño” 4, 2, 1.

7. Noizean behin ageri da *-ø/-tu* subjuntiboan eta behin ahalezkoan: “*Guerta didin*” 3, 1, 4; “*confesa zezan-gatic*” 4, 1, 3; “*ongui guerta zitequeala*” 4, 3, 5.

8. Behin *igo* aditza iragankor gisa dago jokatua: “*Minos Cretaco Legueguilleac... igo oi zuan* Decten deitzen zan Mendi batera” 5, 4, 1.

9. Gutxi-gutxitan erabiltzen da *-na* konpletiboa, *-la* ipini beharrean: “*an icasi zuala, Apoloren borondatea zaná* legue alaco ta onelaco ipiñtzea” 5, 4, 1; “*atheisticiac... eztu aitortu nai Jaungoicoa daná*” 7, 1, 10.

10. Hiru aldiz ikusi dugu genitiboa nominatiboaren —subjutuaren— ordez: “*penaen* beti irauntearen contra” 1, 1, 6; “*sari ta paguen* betirauntearen contra” 1, 1, 6; “*suaren* arimeari icututze au” 2, 3, 8.

d) Hiztegia

1. Morfologia eta sintaxia atalean aurkeztu ditugun zenbait gertakari bezala, hiztegian ere ageri da bizkaierazkorik, hala nola *baltzituric* 7, 1,

3; *ete* 7, 4, 12; *gomuta* 3, 6, 2; *jaramon* 7, 5, 4; *otzitu* 4, 6, 1; *tercijo* 3, 6, 5. Egilea bizkaitarra izan daitekeelako edo Bizkaian edo honen inguruetan ari zelako lanean, gerta zitekeen hori, beharbada. Baina badira ekialdeko euskalkietako hitzak ere, hala nola *bait(h)an* 4, 1, 3; 4, 2, 2; *eritazun* 4, 3, 1; -z *guero(z)*, *ezkero*-ren ordez 4, 1, 1; 4, 3, 3; *garacia* 4, 2, 2; *itzquiribituz* 4, 1, 3; *loria* 'gloria' 1, 4, 3; *lotu* 'heldu, harrapatu' 4, 3, 3; *on bear* 4, 1, 3. Esango genuke bizkaierazkoak 3. eta 4. platiketan pilatzen direla, eta ekialdekoak 4.ean.

2. Jakingarria da hitz berriak erabiltzeko eta sortzeko ageri den joera. Horretarako, baliatzen da hizkuntzak eskaintzen dituen bidee.⁶ Mailegu gordinak bazterten saiatzen da eta horien ordez euskal kutsu handiagoa duten hitzak zertzen, eratorpena eta hitz-elkarketa ugari ematen dela. Hola, honako hitzak eta antzekoak ikusten ditugu: *Eraculse aingueruzcoac* 'Doctor Angelicus' 4, 1, 3; *arrazoedun* 'rationalis' 3, 2, 1; *baquidaró* 'sensu lato' 5, 1, 1; "generalean edo *batuca*" 4, 4, 2; *beguiaurreco* 'etorkizun' 3, 5, 4; *beraz* 'ondorio' 3, 2, 5; *bildurdamua* 'atritio' 4, 2, 2; *bicilecutua* 'ostatu hartu' 3, 2, 1; *dagoquera* 'proprietat' 5, 2, 15; *dagoquio-tazunac* 'proprietat' 5, 2, 13; *gonadun* 'emakume' 4, 3, 6; *guciaquico* 'uniuersalis' 4, 5, 3; *gucieraco* 'uniuersalis' 4, 5, 3; *izategaldu* 'birrintu, suntsitu' 3, 2, 5; *lauoñeco* 'quadrupes' 7, 2, 7; *naturazgoitico* 'supernaturalis' 5, 1, 1. Ik. gehiago *Hiztegia* atalean.

3. Etimologiaren bitartez badaki hitz berriak sortzen, letraren bat sartu edo aldatzen duela, eta bere ustez hitz jakin baten osagarriak direnak aurkezten dituela, gioiaz baliatzen dela askotan. Horrela, hitz berriok sortu ditu: "esi-olesi-*barruera*" 1, 3, 1 -"barrera" ipini beharrean-; *escupeda* 2, 3, 9 -"escapada" ipini beharrean-. Hitz osagarriak (?) hemen erakusten ditu: *des-paratu* 'disparate' 1, 1, 2; *a-trebe-tzea* 'atrebitzea' 4, 4, 5; *cer-emon-ia'* 'zeremonia' 6, 1, 3; *ál-gaiñ-zátzeco* 'alkanzatzeko' 3, 3, 2; *abo-ozá* 'uox' 3, 5, 1; *erripublicoaren* 'errepublikaren' 4, 7, 2; *obé-diá-encian* 'obediencian' 5, 1, 5; *arró-jótzen* 'arrojatzen' 5, 3, 10; *t-urbacioa* 'turbazioa' 5, 5, 3.

IV. Lana paratzen

1. Bai platikak eta bai orrialdeak guk zenbakiz hornituak dira, eskuidatzian zenbaki gabe daudelarik, eta orrialdeak, gainera, luzeegi gerta zitekeelako gure argitalpenean.

6. Ik. Ibon Sarasola. "Larramendiren Eraginaz eta". ASJU XX-I (1986), 203-215 -Ik. 205. or.-; Joseba Andoni Lakarra. "Oikiako Dotrina (1759)". ASJU XXI-2 (1987), 515-564 -Ik. 516. or.

7. Bizkaierazko *emon* ikusten du egileak hemen.

2. Hasierako *V*- larria guk beti *U*- idazten dugu.

3. Hitzak bildurik ala banaturik dauden ez da beti erraza esaten: *betibeti* ala *beti beti*, *gizonbat* ala *gizon bat*, etab.

4. Latinezko okerrak zuzendu egin ditugu. Gehienetan hizkiren baten falta izaten da: letra hori kortxete barruan ipini ohi dugu. Orrialde pean laburturik ematen diren hitzak ere, osaturik jartzen ditugu.

5. Paragrafoak antolatzean, saiatu gara egilearen asmo eta gogoia igartzen. Hasierako hizkia tinta gorritz daukaten paragrafoak kontutan hartu ditugu paragrafo berriak sortu eta antolatzeko eta alor horretako dudak garbitzeko. Hori dela-ta, gerta daiteke behin baino gehiagotan paragrafoa hizki xehez hastea.

6. Hiztegia hauek ditugu: 1. Larramendi aipatzen dugunean, neurri batean Aizkibelen hiztegiak baliaturik egiten dugu; 2. sartzen ditugun hitzak hitz kultoak esan genitzakeenak dira gehien bat.

7. Laburdurak: a. aditza; ad. adberbioa; adj. adjetiboa; i. izena.

1. Ez du izenbururik.
2. Orrialde pean “Isay[ae] 40. v. 17” dago.
3. Hola dago: *-ila*, bukaerako *-la* lerro tartean erantsia.
4. Eskuidatzian (E) “chiquen”.
5. E-an “govenat[ze]n”.
6. Orrialde pean “Act[orum] 17. v. 28”.
7. Orrialde pean “vigilia, biguiria, beguiria, basco; ojo descubierto, beguiaguiaguiria (sic *-aguiagui-*) y el que mueve los ojos begui-aria”.
8. Orrialde pean “Dan[ielis] 9. v. 14”.
9. “du” espero da.
10. Hizki hau *Christaua(c)* hitzaren ordezt dago.
11. E-an “azquebagueo”.
12. E-an “guerocon”.
13. E-an “Aitzquia”.
14. Etimologia ari da egiten.
15. E-an “saticadea”.
16. Orrialde pean “Erreguearen contraco obena, legueautsia”.
17. Hitz eta galdera marka hauen ondotik eta lerro amaieran ezin irakurri dugun zerbait dago, 8-9 hizkik osatua.
18. Hola irakurtzen dugu: “infern[uare]n”.
19. *iah*, ezkerreko bazterrean erantsia.
20. Hola dio: “eztana”, eta koma.
21. Ematen du lehenbizi “orregaitic” idatzi duela.
22. Orrialde pean “lib[er] 4. Dialog[orum] c[apite] 44”.
23. Beharbada lehenbizi “ezta” ipini du.
24. E-an “sinistitico”. Ik. “sinistitico” hurrengo paragrafo bukaeran.
25. E-an *eranzu eraquin*, bi zatitan banaturik.
26. E-an ez dago *bat* hitza.
27. Orrialde pean “Luc[ae] 16. v. 25 et 31”. Berak *18* dio, ez *16*.
28. Hemen “aguertutæac”, eta paragrafo honen hasieran “aguertutzeac”.

29. Beharbada “larreguiacquin” izan behar luke.
30. E-an “ichitazurequin”.
31. E-an ez dago *da* hitza.
32. Orrialde pean “Ps[alorum] 111.10”. E-an ez da ikusten ongi, baina hola da.
33. Orrialde pean “Sap[ientiae] 5. v. 3”. Berak v. 2. ipini du.
34. Orrialde pean “hom[ilia] 55 ad popul[um] anteq” (sic): “ante *quadra-gesimam*” izan liteke.
35. Orrialde pean “Ps[alorum] 110.10”. Berak ez du ematen bertso lerroa.
36. E-an “venguen”.
37. Orrialde pean “Insulto, eraso”.
38. Orrialde pean “Ps[alorum] 93.7”. Berak ez du ipintzen bertso lerroa.
39. Zerbait falta da hemen, *badago* edo.

1. Eskuidatzian (E) “*premiariaric*”.
2. E-an “*Xptoren*”.
3. Orrialde pean “Mat[t]h[aei] 25.45. Berak ez du ipini bertso lerroa.
4. Orrialde pean “Mat[t]h[aei] 13.50. Ez du ipini bertso lerroa.
5. E-an “*campoetara*”.
6. Orrialde pean “Mat[t]h[aei] 8.12. Ez du ipini bertso lerroa.
7. E-an “*Negari*”.
8. E-an *mecia*”.
9. E-an “*burlazar*”.
10. E-an “*gogoartutu*”.
11. Tinta gorritz eta *lotsatu* hitzaren azpitik, lerro tartean, *condenatu* jarri du.
12. E-an goian ipini dugun 2. oharrean bezala laburturik, eta han ez bezala laburgailua ezarririk.

13. Orrialde pean “lecu batzuc, sú-ocá-riac, suvomitariac. volcanes”.
 14. Lerro tartean erantsia dago *aoa*.
 15. “Etnaco” behar luke izan.
 16. *arrazoeac* hitzaren gainetik, lerro tartean, *concienciac* ipini du, baina bestea ez du ezabatu.
 17. E-an “jauncozco”.
 18. E-an “Theolgo”.
 19. E-an “Eguilleaz”. Ik. “criaturari” zazpi hitz beherago.
 20. Ezin esan “*minic*” ala “*miñic*” den, lerro tartean ezarria izan den *arimetan* hitzak estaltzen bait du gune hori.
 21. Orrialde pean “Agust[in] lib[er] 12 de Civit[ate] Dei, c[apite] 10.
 22. E-an “irazten”.
 23. Orrialde pean “Sapient[iae] 16. v. 24”.
 24. Hemen “*Ucututzen*” dio eta aurreko paragrafoaren bukaeran “*icututzen*” esan du.
 25. Orrialde pean “lib[er] 4. Dialog[orum] c[apite] 29.
 26. E-an ez dago *obeto* hitza.
 27. E-an arimagortz-en”.
 28. E-an asmatzetzen”.
 29. Hola dago: “*escupeda*”. Ik. “*escapada*” 1, 2, 2.
 30. Ez ditu ateratzen argitara hemen, testuaren zati bat falta (?) delarik edo.
-
1. Hurrengo paragrafoaren zati bat orrialde honetan dago, baina puskarik luzeena eskuidatzian (E) lehenengo orriaren atzeko aldean dago.
 2. E-an ez dago *dan* hitza.
 3. E-an bi aldiz dago *becela*.
 4. E-an “*mudutic*”.
 5. E-an ez dago *dirala*.
 6. E-an “*jaincozcozcoac*”.

7. E-an “ez ezaten”, baina 9-10 hitz beherago “ez zezaten”.
 8. E-an “difenciatzen”.
 9. E-an “puntu”.
 10. E-an “biurr”. Esango genuke “biurtzea” espero dela.
 11. Ematen du *lotuaz* errepikaturik dagoela. Edo, bestela, “lotuaz *batuaz*” (?) ipini duela.
 12. E-an “gaitaqueria”.
 13. E-an estalirik parentesian idatziak: “jaqu[in arre]n, [ditua]la”.
 14. Aurreko oharra bezala.
 15. E-an “izaren”.
 16. Orrialde pean “Sentir, es voz basca: egunsentia; sen, esto es, señales, tia ô dia, multitud. Esta multitud de sena, ô señales, nos hacen sendir ô conocer que, así como preceden al dia, así tambien en otras cosas, para sentir o conocer”.
 17. E-an “sentieracitzeracitzen”.
 18. E-an “ecerera”, baina bi aldiz paragrafo onetan “ecerecera”.
 19. E-an “emananaz”.
 20. E-an “necatututze-ác”.
 21. E-an “adiquideari”.
 22. E-an errepikaturik *ez burruca*, lerro bukaeran eta lerro hasieran.
 23. Beharbada, “eguitea” izan behar luke.
 24. E-an “eguguitea”.
 25. E-an “litzqueala”.
 26. E-an “quentzen-á”.
 27. E-an “illudutzen”.
 28. E-an “lizuntana-gatic”.
 29. E-an ez dago *da*.
-
1. E-an “esateten”.
 2. Hola dio: *quin*, etimologiaren baten fruitu edo.

3. E-an “bicí”.
4. Orrialde pean “Sant[o] Thom[as] 4. ep. quaest[io] 60. art. 3. ad 3”.
5. Orrialde pean “Levit[icus] cap[ite] 3.4.5. et 6”.
6. E-an “habico”.
7. Orrialde pean “Glosa Lyrana, in Psalm[um] 31.
8. E-an “alcazatu”.
9. Bi aldiz dago *bereala*, lerro bukaeran eta lerro hasieran.
10. E-an “meremenduac-gatic”.
11. E-an *baic*, ez “baicican”.
12. E-an “usbetzen”.
13. Uste dugu *folio* dela. Laugarren testu hau bi orrialdetan banatzen da, lehenbizikoa bi paragrafo beherago bukatzen dela, hitz hauekin: “bear da, ongui confesatu”. Bigarren orrialdea edo folioa hasten da gero, honela: “Hau onela izan arren”.
14. Orrialde pean “Jerem[iae] c. 8.22”. Bertso lerroa ez da ikusten. *Prophetia Ieremiae* liburuko aipamena da.
15. E-an “nunquid”.
16. Orrialde pean “erres-urrina, erres, residuo remanente del pan bazo, y urrina, olor fragante; otrosí, erre, quemar, urrina, olor &”.
17. Orrialde pean “Glosa Cyriaca, in cap[ite] 8. Jerem[iae], populus nolebat audire medicum, nec ejus recipere medicinam”.
18. E-an “confesora-gana”.
19. Hemen “atrapatzea”, eta 22 bat hitz beherago “arrapatzen”.
20. Hemen “dautzala”. Ik. “deutzan” 7, 3, 1.
21. Orrialde pean “Luc[ae] c[apite] 13.5. Ez du ipini bertso lerroa.
22. Hemen bakarrik ikusi dugu “-tarić” atzizkia.
23. Lerro tartean eta *barcatzeco* gainetik *ascatu* edo ipini du.
24. Hemen “bana-banan”, baina hurrengo orrialdeko bigarren paragrafoan “banan-banango” leitzen da. Berriz ere “banan banango” 5. orrialdeko 3. paragrafoan.
25. Orrialde pean “comunean, pilloan”.

26. E-an “*guernu*”, baina “*governatzen*” 7, 4, 13, eta “*govenatzen*” (sic -*ena-*) 1, 2, 7.
27. E-an “*imposibe*”. Ik. “*posi/be*” 1, 1, 3 eta “*posible*” 1, 4, 3.
28. E-an “*declatuac*”.
29. “*Trentoco*” espero da, eta hola dago gero 6. or., 2 eta 4. paragrafoetan.
30. Orrialde pean “*Concil[ium] Trident[inum] ses[sio] 14. c[apite] 5*”.
31. E-an “*Ayt*”.
32. Hemen “*gucietan*”, baina “*gucit[aln]*” 3. or., 6. paragrafoan.
33. Orrialde pean “*trebé, diestro, habil*”.
34. Errepikaturik dago *batzuc*.
35. E-an “*eranzuac*”.
36. E-an “*esperenciaciac*”.
37. Errepikaturik *batzuc*.
38. E-an ez dago *zan*.
39. E-an “*devocia*”.
40. E-an “*gueyo*”.
41. Hola: “*ajuntamentu*” (*-i + j-*).
42. E-an *concienen*”.
43. E-an “*adisquede*”.
44. Ik. “*Erriplicoaren*” 5, 4, 7.
45. E-an “*gueldiratzatzen*”.
46. *fin* hitzaren ondotik eta lerro berean errubrika ipini du.

1. *aguertua*. hitz eta puntuaren ondoren *Buelta* ipini du. Baina ez dugu hemen sartzen atzeko orrialdean dagoen testua, baizik eta **6. testua** izenaren pean ematen dugu.
2. E-an “*Guzonac*”.
3. Paragrafo honen hasiera parean, ezkerreko bazterrean, honako hau irakurtzen dugu: “*Bai, N, amor, 1.^o*”.

4. Paragrafo honetan bertan “guciacanaco” esan du.
5. Lerro tartean, *onen* hitzaren gainetik, *egua* dago erantsirik.
6. E-an “serbitzequin”.
7. E-an “ontzatzat”.
8. E-an “da”.
9. E-an “errigioa”. Lau bat aldiz agiri da testu honetan “errigio” eta ez “erriligio”. Ik. 16, 19 eta 21. oharrak.
10. E-an “campotitic”.
11. Orrialde pean “Plutarco in tractatu contra Colonem” (sic C-).
12. Errepikaturik *egua*.
13. Hemen eta “gauz-ezá” 3, 3, 2 hitzean aurkitu dugu berba hau bukaerako *-a* gabe.
14. Ergatibo marka falta da: “bada guizona, ... eztú artzen”.
15. Uste dugunez, “esamenatua” irakurri behar da, baina ez dago argi.
16. E-an “errigioac”.
17. E-an “sinigorrac”.
18. Hemen “dituztenian”, baino paragrafo honetan bertan ikusiko dugu “dituztenean”.
19. E-an “errigioac”.
20. E-an “guciciac”.
21. E-an “errigioaren”.
22. E-an “esperenciaz equiten”. Ik. “ez ezaten” 3, 2, 2. Iraganaldiko 3. pertsona hasierako z- ipintzen duela egiten du: “zebillela”, “zedukan”, “zegoan”, “zekarkieten”, “zekian” “zekien”, “zekidion”, etab.
23. Latinezko hitzak dira *tat*, *at*, eta ‘baina’ esan nahi dute.
24. Hemen “erreñuetaco”, eta paragrafo honetan bertan “erreñuac”.
25. Ik. “Erripublicoaren” 4, 7, 2.
26. Hitz bakar bat egiten dutela daude: “lausengarilabanen”.
27. Hola dio, *ez zuten ezarri* esan beharrean edo.
28. E-an “lirquean”.
29. Bi aldiz ikusi dugu “ascoco”, hemen eta 7, 1, 2.an.

30. E-an “biotzgor”.
31. Orrialde pean “Tulius, lib[er] 1. de natura Deorum num. 2. et lib[er] 2, de Legibus, num. 7”.

1. Ik. 5. testuko 1. oharra.
2. Horrela dio: “*da*”. Egia esan, “*batac beretzat*” gero esantsia da, eta eraskin hau gabe ongi zegoen “*da*”.

1. Ik. 5. testuko 29. oharra.
2. E-an hitz bat egiten dutela loturik: “*lagunurrecoaganaco*”.
3. E-an *mandametutan*”.
4. Dieresi marka *jo* hitzaren *j* gainean.
5. E-an “*adiment*”.
6. E-an “*gomu*”.
7. E-an “*illunduen*”.
8. “*Jobé*” dio, eta ez “*Jabé*”. Frantses eta gaztelaniaz *Yahvé* idazten da eta ingelesez *Yahveh*.
9. E-an “*zutenic*”.
10. Hola dago: *bi bidecoa*, eta ez dakigu zer esan nahi duen.
11. E-an ez dago “*zuan*”, baizik “*zan*” edo “*zun*”.
12. E-an “*gomu*”.
13. E-an “*boronda*”.
14. E-an “*dagozquinac*”.
15. E-an “*judua*”, bukaerako *-c* gabe.
16. E-an “*itsusquiriro*”.
17. E-an “*erotu ta erotu*”.
18. E-an “*eguzguia*”.

19. Orrialde pean “ad Rom[anos] 1.23”. Berak 21 dakar, ez 23.
20. E-an “guinaz”, hasierako *e-* gabe.
21. Ik. 4. testuko 20. oharra.
22. Harridura marka falta da.
23. Espero da “dituzuten”, “anzordecotzac” ongi badago. Ik. 31. oharra.
24. Orrialde pean “Ciceron, lib[er] 3 de o[ff]ficiis, cap[ite] 29”.
25. Orrialde pean “Mat[t]h[aei] cap[ite] 5,37. Ez dakar bertso lerroa.
26. Hola idazten dugu, baina ez gaude seguru hasierako hiru letrekin: “*aleurac*”, “*alcurac*”, edo zer?
27. E-an “*zienenean*”.
28. E-an “*gogorietan*”.
29. Orrialde pean “Agustin, lib[er] 2. de civitate Dei”.
30. Orrialde pean “3. Regum, cap[ite] 15.13”. Ez dakar bertso lerroa.
31. Espero den “*ditzagun*” adizkiaren orde z “*dezagun*” ipintzen du.
32. E-an “*icarr*”.
33. Orrialde pean “Quinto mandamiento. Scytac, guizonezco araguaia jaten zuten, ta &”.
34. E-an “*erbescoac*”.
35. “*etsayac* *becela*. *erreñuco*” dio, puntu marka eta guzti. Beharbada, *erreñuco* gero erantsia dago.
36. Hemen “*legue*” dio, baina hurrengo bi paragrafoetan “*leguea*” dago.
37. Orrialde pean “Plat[o] lib[er] 6”.
38. Orrialde pean “Cicero Orat[i]o pro Caelio, Horatius, lib[er] 1. satira 2”.
39. Orrialde pean “ex Historicis et viatoribus”.
40. E-an “*Philopho*”.
41. Orrialde pean “Cicero. lib[er] 3. de o[ff]ficiis, cap[ite] 29; et cap[ite] 12”.
42. E-an ez dago *zuten* adizkia.
43. Hemen “*ete*” dio, baina hurrengo orrialdean bost aldiz “*ote*” dago. Ik. 46. oharra.

44. Hemen “*esperiencia*”, baina beste gucietan “*esperenciac*” 1, 1, 1; etab.
45. E-an “*jaincoizco*”.
46. E-an “*ere*”. Ik. 43. oharra.
47. Hitz baten hasierako hizkia da *V* hau, baina hemendik behera zuri dago orrialdea. Orriaren atzeko aldean, beste batek hau idatzi zuen: “8 panes navarros. / una libra de grasa / otra de aceyte / quartillo y medio de aguard(ien)te / 2 panes navarros / quartillo y medio aguard(ien)te / dos potes. / una libra de grasa / quartillo y medio de Aguard(ien)te / un cuarteron de tabaco. / un pot / dos panes navarros. / un pan de ciudad. / un pliego”.

HIZTEGIA

A

- ABERETAR (adj.) 'animal'. biotzeko jaiquera ta griña lotzagarrienac eguiten dute *aberetarra* arimea, 3, 7, 1.
- ADIERA (i.) 'intelgentia' (?). bere (Jaungoicoaren) dagoquiotazunac, au da, *adiera*, jaquinduria, ontazuna, guciáháltazuná, argueguiten dúte mundu onetan, 5, 2, 13.
- ADIMENTU (i.) 'intellectus'. *adimentu*-gomuta-borondatean, 7, 2, 4: *adimentua* illunduric-gomutea baltzituric-borondatea oquerturic, 7, 1, 3.
- ADITU (a.) 'intellego'. gugan *aditzen* duaná-gogoatzen duaná-pensatzen duaná, 3, 5, 1.
- ADITZALLE (adj.) 'intellegens'. Gure arimea da *aditzallea*-gogotzallea-pensatzallea, 3, 2, 5.
- ADORAZIO-GAI (i.) 'obiectum adorationis'. judua(c) ez bai beste gendeac, ...ichutu ziran jaincozco *adoracio-gay* onetan, 7, 2, 7.
- AGERPEN (i.) 'apparitio; reuelatio'. ozta ozta *aguerpená* desaguertu, 1, 4, 1; señalé, ceruco *aguerpenez* icasi zutela Erligio eguiazcoa, 3, 2, 2.
- AGERTERAZI (a.) 'manifesto, publico'. pecatuac *aguert-eracita* alabatzea, 7, 4, 8.
- AGINTARI (i.) 'auctoritas'. guero eurac, *aguintariburu* paratu, 3, 1, 3.
- AGIRAKARI (adj.) 'agiraka egiten duena'. betibeti irritu, beti *aguiracari*, beti alacá barruan dagoquiguná, 3, 2. 1.
- AGIRIKO (adj.) 'manifestus, publicus'. agureguite-beguirune-adoracio *aguiricoa*, 6, 1, 3.
- AGUR (i.) 'adoratio'. *agur* au ezta burut(acioe)n humea, 5, 3, 8.
- AGUREGIN (a.) 'adoro'. *agureguiten*-adoratzen-ta amatzen duten Jaungoicoa, 6, 1, 3.
- AGUREGITE (i.) 'adoratio'. Erriligioa... da birtute bat, ceñarequin ematen zaion Jaincoari *agureguite*, zor zaiona, 5, 1, 1.
- AGURTAZUN (i.) 'adoratio'. jaunaganaco *agurtazun* arec contra-esan ta eguiten die, 5, 3, 6.
- AGURTU (i.) 'adoro'. generic bat ere ezta izan ain sorra, nonda, Jaungoicoren bat,... *agurtu* ez duanic, 5, 3, 5.
- AHALDUN (adj.) 'potens'. ceren dan chit *ahálduna*, 5, 1, 10.
- INGERUZKO (adj.) 'angelicus'. Santo Thomas, escoletaco Eracusle *aingueruz-coac*, 4, 1, 3.

- AITALEN (i.) 'patriarcha'. Adan-Noe-ta beste *Aytalen* santu ta Profetac-gandic, 7, 1, 4.
- AIZERIKERIA (i.) 'astutia'. libre izateco lapurreta, astruciaz eta *aizerikeriaz* eguiña, 7, 4, 7.
- ALDUN (adj.) 'potens'. (Jaungoicoa) dalaco betibeticoa ta guciz *alduna*, 3, 7, 1.
- AMAGARRI (adj.) 'dignus amoris'. ona ta *amagarria* daná, 5, 1, 7.
- AMAGARRITAZUN (i.) "amabilitis". izanic (Jaungoicoa) *amagarritazun* ta ontazun guciaren iturburua, 5, 2, 7.
- AMARRENBAGETU (a.) 'hamarrenak kendu'. *amarrenbagnetu*-gosetu-ill bear dirala (Sacerdoteac), 3, 1, 2.
- ANDIKI (i.) 'magnate'. *andiqui*-aguintari-buruac, ecitzeco, 5, 5, 1.
- ANDIKOI (adj.) 'solemne, grandioso'. *agurequite*... aguiricoa, ceñ dagoan, ceremon-ia, soñu andicoyan, 6, 1, 3.
- ANDITAZUN (i.) 'maiestas'. adoracioa da, *anditazun* nagusiac (Jaungoicoac) guganaco ta criatura guciacanaco daucan jabetazunaren confesioa, 5, 1, 6.
- ANDRAGELA (i.) 'burdel, mancebía! (?). beren *andraguela*, ardanguela, ta batzarretaco baster gucietan, 3, 1, 3.
- ANDRAKERIA (i.) 'deshonestidad'. *andraqueriaco* batazunetan, 2, 1, 2.
- ANDRAKETA (i.) 'fornicación'. Catonec eguin zuan leguea, ontzat emanaz, libre izateco *andraqueta*-emajauste-edo andrac comunac izatea, 7, 4, 6.
- ANDREANZEKO (adj.) 'emakume antzeko'. *andreanz-eco* jaincosa onen aurrean, 7, 3, 8.
- ANZBERDIÑEKO (adj.) 'irudi bateko'. uretacoen artean daode arraiñ mota batzuc, gure chit *anzberdiñecoac*, 3, 6, 5.
- ANZORDEKOTZA (i.) 'exemplum' (?). *anzordecotzac* icusico dezuten becela bereala irugarren mandamentuan, 7, 3, 1.
- APOSTOLUZKO (adj.) 'apostolicus'. *apostoluzco* doctrinar(e)n escuraematetic, 4, 4, 6.
- ARAGIGEITAZUN (i.) 'lujuria'. burutacioac, argalago dira, guticiac eta *aragui-gueytazunac* baño, 5, 3, 7.
- ARAGITI (adj.) 'lujurioso'. canta *araguiti* berdeai suertatuco zaietela incirria-orroa icaragarriac, 2, 1, 2.
- ARGIEGIN (a.) 'illumino'. Baña ezauera-arguizuzi-&^a, gurequin jayo onec *arguieguiten* digu ezagutzeco ona ta charra, 3, 4, 2.
- ARIMETU (a.) 'mehe-mehe ardazketu'. batac apaindu, besteac *arimetu* eta meé-meé ardazketu, ta besteac arilldu zutenean, 3, 2, 1. *Oharra*: etimologia egiten ari da, gure ustez.

- ARNASA EGIN (a.) ‘aspirar’ (?). Icen au (Geheéna) Euscaldun labort-arrac bere itz-eran, beste moduz *arnasa-eguiten* ta ebasten du, 2, 2, 1.
- ARRABIO (i.) “scorpio”. suzco *arrabio* ta erretazun portitz-énac, 2, 3, 7.
- ARRAINTZAR (i.) ‘arrain haundi’. aberetzar ta *arraintzarrac* chiquiagaoquin eguiten duten becela, guc ere alcar ill, ta jatea, 3, 8, 1.
- ARRAZOEDUN (adj.) ‘rationalis’. gure izate *arrazoedunari*, 3, 2, 1.
- ASEBETE-EZIN (adj.) ‘insatiabilis’. Gurá *asebete-eciñaquin* eztago paqueric, 3, 3, 2.
- ASMOARTU (a.) ‘asmo izan’ (?). ceren eciñ izan litequean, sugar gorigori artan benetan pensatz(e)n duan arima batec *asmoartzea* pecatueguiteco, 1, 4, 4.
- ASMO EGIN (a.) ‘erabaki’. *asmo-eguin* det ipintzeá osagarri(tza)t gucien aurrean fedeco eguia bat, 3, 1, 4.
- AZKENBAGE (ad.) ‘amaigabe’. ¿nola..., ezpaldin balitzaque *azquenbague* santua?, 1, 1, 8.
- AZKENBAGERO (ad.) ‘amaigabe’. ¿ta nola izango litzaque *azquenbaguero* santua...?, 1, 1, 8.

B

- BAGETIK EGIN (a.) ‘creo’. Naturalezac, eztú ecercho ere *baguetic-eguiten*, 3, 3, 1.
- BAGETU (adj.) ‘nudatus, priuatus’. on suerte gucitic *baguetua*, 2, 2, 4.
- BAIMENDU (a.) ‘permitto’. Jaunac *baimendutzen* du peccataria izan dedilla perse-guitua pecatu bere berea-gatic, 3, 7, 1.
- BAKIDA (i.) ‘conjunción, junta’ (Larram.). eman bai escubide bat barcatzeco becatuac *baquidan*, 4, 3, 5. *Oharra*: orrialde pean “comunean, pilloan” dio.
- BAKIDARO (ad.) ‘sensu lato’. Erriligioa, *baquidaró* edo zabalean adituric, da eguitada bat..., 5, 1, 1.
- BARRENDU (a.) ‘penetro’. Bacar bacarric bada Jaungoicoa da, guizonen biotzac *barrendu* ta ezagutzen dituan-á, 4, 4, 2.
- BARRENEKO (adj.) ‘interior’. Asco zan, dio, *barreneco* damua, 4, 1, 3.
- BARRUKO (adj.) ‘interior’. aguereracitzen digu... bere gaytazun *barrucoa*, 3, 3, 2.
- BARRUNBE (i.) ‘constientia’. norberari bere gogoac bere *barrumbean* esaten zion campoco señaleren batequin, 4, 1, 2.
- BASAGIZON (i.) ‘gizon salbai’. ango gendeac “*basaguizon*” deitzen dieten-ác (chimio casta batzuei), 3, 6, 5.

- BASOTAR (adj.) ‘montaraz, incivilizado’. *basotar*, edo, basoan bacarric acitacoa, 3, 2, 3.
- BATAZUN (i.) ‘unicitas’. aldatu zuten aren (Jaungoicoaren) *batazuna*-egua-ta gloria, [e]guinaz hura, guizon, egazti, lauñoeco, ta sierpeen semeantzera, 7, 2, 7.
- BATU (i.) ‘unión, composición’. *batu* edo *compondu* bat eguiten duten zati biren aldendutzeá, eztá beren ecerezutzea, 3, 3, 1.
- BATUKA (ad.) ‘jeneralean’. *deklaratuco* balitzaiezquete (becatuac) *generalean* edo *batuca*, 4, 4, 2.
- BATUTAZUN (i.) ‘unio; concordia’. arimagor[pu]ltz-en *batutazuna*, 2, 3, 8; guizonac eztaucanean *batutazunic*, alcarri char asco ecarri diozaquetela, 5, 2, 5.
- BATZARRE (i.) ‘concilium’. dio Trentoco *batzarre* santuac, 4, 6, 4.
- BEAREZTAN (i.) ‘disparate’. onetan *beareztan* bat esaten du, gu arimea dala izatez gauzabat berberá arri ta mé-talluacquin, 7, 2, 1.
- BEGIARGIRO (ad.) ‘evidenter’. ezagueracitzen du *beguiargiro* premia bat, 2, 2, 3.
- BEGIAURREKO (i.) ‘etorkizun’. Baldin ona eguiteac eta charra eguiteac ezpaleucate beste *beguiaurreco* ta *beguiragarriric*, bicitza oraíño au baño, 3, 5, 4; *beguiaurrecoari* ta *gueroco[a]ri* *beguiraturic*, 1, 1, 8.
- BEGIRAGARRI (i.) ‘etorkizun’. Ik. BEGIAURREKO.
- BEGIRAKUNE (i.) ‘observancia, cumplimiento’ (?); respeto, decoro’ (?). eraman zuten euracquin legue baten *beguiracune* on ta gordetze leyal beti betico bat, 4, 5, 3; dagoquiola jaunaren *beguiracuneari*, 7, 3, 3.
- BEGIRUNE (i.) ‘ueneratio’ (?). agureguite-*beguirune*-adoracio aguiricoa, 6, 1, 3.
- BEGITANDU (a.) ‘representar, mostrar’ (?). ta bestetic *beguitandutzen* digu Jaungoico bat becela (atheistiac), 7, 1, 11.
- BELARRIKO (adj.) ‘auricular’. confesio *belarricoaren* premiaren dotriña, 4, 5, 3.
- BERAZ (i.) ‘ondorio’. bat galtzen dala-tic, eztá *beraz* edo ondorea ateratzen, galtzen ere dala bestea, 3, 2, 5.
- BERDAKERIA (i.) ‘gordinkeria’. esanaz *berdaqueria*, christaua lotsatzen ta emen esan bear ez tiran-ac, 7, 3, 8.
- BERENEZKO (adj.) ‘connatural, congénito’. edo dala *berenezco* argaltazunez, edo culpagarritzco ezjaquiñez, 7, 4, 13.
- BEREZBEREZKO (adj.) ‘especial, particular’ (?). pausu *berzberzcoacquin* juango naiz azaltzera erriligio cerutic aguertua, 5, 1, 4.
- BERRI-EMAN (a.) ‘comunicar, indicar’. *¿cer berri-ematzen* digute biotzaren uestecabeco icarac...?, 3, 7, 1.
- BERRITAZUN (i.) ‘innovación, cambio’. *¿cer berritazun*, uste dute bada heregeac, sartu zuala Inocencio 3.^{ac} eliza santuan, confesioco puntuan?, 4, 5, 5.

- BERRIZTATU** (adj.) ‘repetido, reiterado’. ìbeguiratzen ote dituan edo ez berdiñ-berdiñ pecatu guciac, ain berdiñ esquergeac, nola sarri *berriztatuac?*, 7, 5, 6.
- BESTERATU** (a.) ‘itxuraldatu, eraldatu’. besterátú, edo, beste erá ta irudia bat eman, 3, 3, 1.
- BESTETU** (a.) ‘diferenciarse’. arimea, banatu-*bestetu*-dife[re]nciatzen dala izate gorputzdun-etic, 3, 2, 5.
- BETIBETI** (ad.) ‘sekula eta beti’. irauñ bear du *betibeti*, 3, 3, 1.
- BETIBETIKO** (adj.) ‘sekulako’. *betibetico* iraupen naturala, 3, 3, 1.
- BETIRAUNKOR** (adj.) ‘azkengabe’. tormentu *betiraunccorac*, 1, 4, 3.
- BETIRAUNTE** (i.) ‘aeternitas’. penaen *beti irauñtearen* contra, 1, 1, 6; paguen *betiraunccorearen* contra, 1, 1, 6.
- BIDEBAGE** (adj.) ‘zuzengabe’. providencia da *bidebagea*, 3, 6, 2.
- BIDEEGIN** (a.) ‘ibili’. pecaturaco zabalbide guciac zarratutzen diozcan-á, ez bideeguiteco, 1, 4, 4.
- BIDE GALDU** (adj.) ‘bidekatu’. bicitza onen ondoren ezpadago cer bildurtu, ez cer ichodon, gure arrazoea aurquitzen da *bide-galduric*, 3, 6, 2.
- BIGIRA** (i.) ‘velada, reunión’. beren gavetaco *biguira*-tan, 7, 3, 1.
- BILDURDAMU** (i.) ‘atritio’. atricioa-*bildurdamua*-infernuaren bildurraz artzen degun damua, 4, 2, 2.
- BIOTZBARRUKO** (adj.) ‘interior’. Deista batzuc... erriligio gucia, *biotzbarrucoa* ere, arrasatu ta galtzen dute, 6, 1, 1.
- BIOTZBIGUNEKO** (adj.) ‘afable, afectuoso’. gurasoac-anaco *biotzbiguneco*, 5, 4, 10.
- BIOTZGOGOR** (i.) ‘impiedad’. erligioa dala errientzat eta guizarteraco osasungarri, *biotzgogorra* berriz caltegarria, 5, 5, 3.
- BIOTZGOGORREKO** (adj.) ‘impío’. *biotzgogorrecoen* contra, 5, 4, 10.
- BIZILEKUTU** (adj.) ‘ostatu hartu’. izpia, *iritua* (azpimarraturik), edo gure gorputzeco iri-uri-echean *bicilecutua*, 3, 2, 1. *Oharra: Espiritua* hitzaren etimologiaz ari da.
- BURLAGILLE** (i.) ‘burlatzaile’. erriligioaren *burlaguilleac*, 5, 3, 9.
- BURUAUSI** (a.) ‘descalabrar (Larram.), dañar, perjudicar’. *buruausten*-caltetutzen-*descalabratzen* abiatu eztañic, 3, 7, 1.
- BURUJAUSI** (adj.) ‘zoro’. guizon ain *burujausi*ac, arrazoeraren abo-oza ito nai luqueten-ac, 3, 5, 1.
- BURUTAZIO** (i.) ‘capricho; antojo’. *burutacio*ac sortu ditzaquete guizarcean iritzi ta opinioac, 5, 3, 7; ìta... norc esango du, gende guciac, erri guci[a]c, *filosofho* guciac izandu dirala, *burutacio*ac arrapatuac-engañatuac...?, 5, 3, 8.

D

- DAGOKERA (i.) 'proprietat'. bestetic eman zien adiera, *dagoquera* oyec nai ta nai ez aitortu ta ezagutu baño besteric eciñ dezaquean, 5, 2, 15.
- DAGOKIOTAZUN (i.) 'proprietat'. Eguiaz, bere *dagoqiotazunac*, au da, adiera, jaquinduria, ontazuna, guchiaháltazuná, argueguiten dúte mundu onetan, 5, 2, 13.
- DEABRUZKO (adj.) 'diabolicus'. aimbat engañuzco ta *deabruzco* machinada, 5, 3, 10.
- DEADAREGIN (a.) 'clamo'. cergatic *deadareguiten* dan aimbeste, penaen beti irauntearen contra, 1, 1, 6; aren justiciaren contra *deadar-eguiten* dezutenóc, 1, 3, 1.
- DESAGERTU (a.) 'ezkutatu'. aiceac *desaguertz[e]n* duana, 3, 5, 1.
- DESBERDIN (adj.) 'bestelako, ezberdin'. guizonac eta abereac... dirala cerbait *desberdiñac* gorputzean, 3, 8, 1. Ik. DESBERDIÑTAZUN.
- DESBERDIÑTAZUN (i.) 'ezberdintasun'. agundu du (eliza santuac) desberdiñ, demboren *desberdiñtazunen* eran, 4, 5, 5.
- DESERRITU (adj.) 'herbestetu'. bere erri cerucotic betico *deserrituric*, 2, 2, 4.
- DESESTALDU (adj.) 'agertu'. burua *desestalduric*, aurpeguia lurrera macurturic, 4, 6, 5.
- DESEZAGUTU (a.) 'desconocer'. gendeac hura *desezagutu*-desonrratu ez [z]ezaten, 3, 2, 2.
- DESGUZTUKO (adj.) 'desagradable'. izanic onela beren eguitadeac, dongue-supersticioso-ta bere *desguztuco*, 7, 2, 7.
- DESZUZEN (adj.) 'desordenado'. amodio desordenatu-*deszuzena*, 2, 2, 4.
- DIÑADE (i.) 'dignidad, cargo'. ostutzea... bere ondazunac, bere diñadeac, 3, 6, 2.
- DONETI (adj.) 'sagrado, santo' (?). gure agureguite bildurti-*doneti*-erriligiozcoac, 6, 1, 1.
- DUARIK EMAN (a) 'conceder, admitir' (?). *duaric demagun*, gure ta zuen arrazoeac dirala indar berdiñecoac, 3, 8, 2.

E

- EBATSI (a.) 'pronuntio' Ik. ARNASA EGIN.
- EDERTU (a) 'zuritu' ceren *edertu* nai izatu zuan, 4, 1, 2.
- EGIKUNDE (i) 'efecto' (?). ta onez gañera, sortutzen ditu gugan *eguicunde*, edo ecandu miragarriac, nola poza, tristura..., 3, 4, 2.
- EGIN (i.) 'acto, hecho'. on *eguín* [ba]tec daucana, 3, 4, 3; char *equinac* bildurtzea, 3, 4, 3.

- EGITADA (i.) ‘acto, hecho’. *eguitada* gucietan, dagoan ontazun edo malicia, 3, 4, 1; beren *eguitadac* (abereenac) dira beti erabatecoac, 3, 4, 2.
- EGOTE (i.) ‘estada (Larram.), permanencia’. spinozzistac, argüitzen du... eztagoala munduan izate ta *egote* bacar bat baño, 7, 2, 1.
- EGUNEZKO (adj.) ‘diurno’. festa *egunezcoetatic*, 7, 3, 1.
- EKANDU (k.) ‘efecto’ (?). Ek. EGIKUNDE.
- ENAJAUSTE (i.) ‘fornicación’ (Larram.). andraqueta-*emajauste*-edo andrac comunac izatea, 7, 4, 6. Ik. ANDRAKETA.
- EPAI (i.) ‘sentencia’ (Larram.). Evangelioa, non ematen digun onbiurtzeko *epai* bildurgarri bat, 2, 1, 3; *epai* bat emateco puntu oni, bildu cituan mundu guctic bai guchienez laureun Obispo, 4, 6 1.
- ERABAKI (adj.) ‘ajustado, perfecto’ (?). eciñ asmatu ta esan ere liteque itz acabatuago *erabaquiagoric*, gomendatzeko confesioaren obligacio ta premia, 4, 4, 1.
- ERABATEKO (adj.) ‘igual, inalterable’. beren eguitadac (abereenac) dira beti *erabatecoac*, 3, 4, 2.
- ERAGOZKETA (i.) ‘impedimento, estorbo’ (Larram.). artzen degu guc ere zati ta parte hura, baldin gueroc guere aldetic arazo-*eragozqueta*-catibuera ta traburric ipiñtzen ezpadegu, 4, 2, 2.
- ERAMANEZIÑ (adj.) ‘insoportable’. gogorra ta *eramaneciña* (da sua), 2, 2, 6.
- ERANZUTE (i.) ‘erantzun’. Orixe bai dala *eranzute* ederra, 7, 5, 2.
- ERANZUTE EGIN (a.) ‘akar egin’. meachatzeraz-zematzera-ta *eranzute eguitera* etorri zequidion arteraño, 4, 2, 1.
- ERAZKO (adj.) ‘conveniente, adecuado’. uztarri piñu andicoa izatetic urruti, contrara dala chit *erazcoa* erripublicoaren oneraco, 4, 7, 2.
- ERAZO (a.) ‘premiatu’. *¿...cergatic da erazoa* edo premiatua, ona ontzat, eta charrá chartzat ezagutzeco?, 3, 4, 4.
- ERBESTEKO (i.) ‘arrotz’. aguinduaz, illtzeco *erbes[te]coac*, 7, 4, 4.
- ERBESTETU (adj.) ‘deserritu’. mundutic *erbestetua* ibiliric, 4, 1, 3.
- ERRAIARTE (i.) ‘hutsune’. utsuné, edo *errayarte*a betetzeco, 3, 3, 2.
- ERRETAZUN (i.) ‘erredura’ (?). suzco arrabio ta *erretazun* portitz-énac, 2, 3, 7.
- ERRIBATU (a.) ‘bildu, elkarganatu’. ceren erri edo guizonac *erribatuzen* eta lotutzen dituan legueacquin, 5, 1, 1.
- ERRIJENDE (i.) ‘biztanle’. munduco *errigende* gucien bai ta naitazun gogo bateco au, 5, 3, 9.
- ERRITAR (i.) ‘herriko’. Minos Cretaco Legueguilleac, *Erritarrai* legueren bat ipiñi nai zienean, 5, 4, 1.

- ESANGAI (i.) 'esaldi' (?). esan dedan evangelioa[re]n capituloco *esangay* au azaltzeco, 4, 4, 2. *Oharra*: S. Juan, 20, 21-23 aipatzen du.
- ESKOLAU (i.) 'instruido, ilustrado' (?). Framasonen *escolauac*, 2, 1, 5; eztira beste animalien aguintari, ez *escolau*, 3, 6, 5.
- ESKURAEMATE (i.) 'traditio'. jaincozco edo apostoluzco doctrinar[e]n *eskuraematetic*, 4, 4, 6.
- ESPIRITUDUN (adj.) 'spiritualis'. ùcatuco die au (betico iraupena) izate *espiritudunai?*, 3, 3, 1.
- ESPIRITUZKO (adj.) 'spiritualis'. arimea da izate *espirituzcoa*, 3, 5, 1; *espirituzco* bicitzan, 4, 6, 6.
- ETORRITAKO (adj.) 'traditionalis'. au iduqui bear dala, *etorritacoa* becela, jaincozco edo apostoluzco doctrinar[e]n eskuraematetic, 4, 4, 6.
- EZAGUNGARRI (i.) 'prueba, demostración'. Puntu onen prueba, edo, *ezagungarriraco*, 3, 2, 1.
- EZDABAIDA (i.) 'discusión, duda' (?). erligioco punturen baten gañean jaiquitzen diran *ezdabaidac*-galdeac-eta leyac erabaquitzezo, 4, 4, 4.
- EZEREZTU (a.) 'deuseztatu'. ala nola suac eztuan *ecerezutztzen*, erretzen duan egurrá, 3, 3, 1.
- EZIGAITZ (i.) 'indomabilidad'. gure aserre, edo, *eci-gaitza*, 3, 4, 1.
- EZIKUSGARRI (adj.) 'inuisibilis'. sú icusgarritic bere ondoren dator bero irazequi ta miñ *ezikusgarri* bat, 2, 3, 6.
- EZILGARRI (adj.) 'immortalis'. Gure arimea da *ezilgarria*, illezcorrá edo, iñoiz ere illeciña, 3, 1, 5.
- EZ ILLKOR (adj.) 'immortalis'. gurá, edo, naitazun, *ez-illcorra* izateco arimeac daucan-ác, 3, 3, 2.
- EZIÑKIZUN (i.) 'quimera, ficción'. humechoen ipuiñaldi-*eciñquizun*-ta zolasac, 3, 6, 2.
- 1 EZJAKIN (a.) 'ignoro'. atheistic... *ezjaquin*-ucatu-edo dudatzen du (Jaungoicoa) betibeticoa dan-á, 7, 1, 10.
- 2 EZJAKIN (adj.) 'ignorans'. lau aldetako gendeac, *ezjaquiñac* izan arren, 3, 1, 2.
- 3 EZJAKIN (i.) 'ignorantia'. culpagarritzco *ezjaquiñez*, 7, 4, 13.
- EZJAKINTAZUN (i.) 'ignorantia'. ùceimbat *ezjaquintazun*-useguita-contrasate-tan...?, 7, 1, 8.
- EZSINISKOR (adj.) 'incredulus'. *ezsiniscorrac*, impio-biotzgorreco-fracmas[o]n, 3, 1, 2.
- EZTITU (adj.) 'bigundu, ematu' (?). poztazun guezurrezco onequin ayec engañaturic-*eztituric*-zoraturic, 3, 1, 3.

F

FREGU (i.) 'galga'. *fregu* au, 4, 7, 2; *fregua*, Urquia-brida ezarten (sic) die, 5, 3, 6.

G

GABETAKO (adj.) 'nocturnus'. *lau* bera eguiten dute... *framasonac* ere, *beren gavetaco biguira-tan?*, 7, 3, 1.

GABEZKO (adj.) 'nocturnus'. *guizon* ta *emacumezcoac* *alcar* *baturic* *euren gavez-co* *ayuntamentuetan*, 7, 3, 1.

GAI (adj.) 'hábil, apto' (Larram.). *ezagutzeco*, (Jaungoicoa) *gay-zolizoli-ta zintzoa* *daná*, 5, 2, 14.

GAION (i.; adj.) 'utilidad; útil'. *lcer gayon* ta *ongarri dacar...?*, 3, 6, 1; *gayonago* *da urreratzea Jaungoicoagana, guizonacana baño*, 5, 2, 8.

GALDUZKO (adj.) 'galdu'. *emacume galduzco* *batzarre bat*, 7, 3, 8.

GALGARRI (adj.) 'perverso'. *Onelaco sinisquera galgarri* ta *guezurrezcoac*, 3, 1, 3.

GALKOR (adj.) 'caduco, percedero'. *ondazun cabudun* ta *galcor* *guciguciac*, 3, 3, 2; *irudia galgor* (sic -g-), 7, 2, 7.

GAUBELATU (a.) 'uigilo'. *Jaunac gaubelatzen* *du, ... gaiztaqueriaren gañean*, 1, 1, 4.

GAUZEZ (adj.) 'incapaz'. *etzuan eguingo gauz-ezá* *izatez, hura ál-gaiñ-zá-tzeco*, 3, 3, 2.

GEZURREZKO (adj.) 'falso'. *juramentu guezurrezcoa*, 7, 4, 8.

GEZURTU (a.) 'rebatir, refutar'. *españaco* (sic *e-*) *heregeren batzuc* *nai luquete guezurtu* *egua* *au*, 4, 3, 4.

GIZALDI (i.) 'belaunaldi' (?). *batzarre* *au* (Trentocoa) *baño guizaldi* *ascoz lenago*, 4, 4, 2.

GIZONEZKO (adj.) 'humanus'. *guizonezco* *casta guciaren ezjaquintazuna*, 7, 4, 11; *legue guizonezcoac*, 7, 5, 4.

GOGAITKARRI (adj.) 'molesto, pesado'. *evangelio santua* *ez dator izatera suzpi-tzagarria abiatu arteraño izaten gogaitcarria*, 3, 7, 1.

GOGOARGI (i.) 'inspiratio' (?). *Onela, biotzeco gogoargui, gurequin jayoac,...* *eztira besteric ezpada humechoen ipuiñaldi...*, 3, 6, 2.

GOGOARTU (a.) 'meditor'. *gogoartutu* (sic -tutu) *bitzate arduraz* (gure liburu santuac), 2, 1, 5.

GOGOATU (a.) 'cogito, meditor' (?). *anima* *au, gugan aditzen duaná-gogoatzen* *duaná-pensatzen duaná*, 3, 5, 1.

- GOGOTZALLE (adj.) 'discursivo, reflexivo' (?). Gure arimea da aditzallea-gogotzallea-pensatzallea, 3, 2, 5.
- GOGOTU (a.) 'cogito, meditor' (?). aditzeá-gogotzeá-pensatzeá, eguiteco edo eguinbide au, eciñ sortu liteque ezpada izate espirituzco batetic, 2, 3, 5.
- GOGOURRITU (adj.) 'moderado, humilde' (?). ez dezute icusico batere guizonic, justua, jaquintsua, oitura zuzenecoa, *gogourritua*, ta batez ere garbicas-toa..., 3, 7, 1.
- GOINATURALEKO (adj.) 'supernaturalis'. ala naturaleco nola *goinaturaleco* mandamentuac, 7, 4, 13.
- GONADUN (i.) 'emakume'. Guezurra ta abarra da au, dariena, batez ere *gonadunen* artean, 4, 3, 6.
- GORDEBERETU (adj.) 'reservado, destinado'. castigalecu batena, Jaunac *gordebereturic* daucan-á, castigatzeco pecatariac, 2, 2, 3.
- GORDETZE (i.) 'guarda, observancia'. eraman zuten euracquin legue baten beguiracune on ta *gordetze* leyal beti betico bat, 4, 5, 3.
- GORPUTZALDE (i.) 'miembro' (?). beren (abereen) *gorputzaldeac* diralaco osobeteago, 3, 6, 3; beren (abereen) tallu-tajú, ta *gorputz alde* gucietan, 3, 6, 5.
- GORPUTZBAGE (adj.) 'incorporalis'. su gorputzdunaren bidez arima *gorputzbaguea*... tormenta didin, 2, 3, 6.
- GORPUTZDUN (adj.) 'corporeus'. eguin nairic anima gurea ayenarequin bapatanzeco-ta *gorputzdun*, 3, 2, 2. Ik. GORPUTZBAGE.
- GORPUTZEKO (adj.) 'corporeus'. on eta mesedeac, animaco ta *gorputzecoac*, 5, 2, 4.
- GOSETU (a.) 'hambrear'. amarrenbagnetu-gosetu-ill bear dirala, 3, 1, 2.
- GOZALDI (i.) 'placer'. *gozaldi* lizunai, 2, 1, 2; *gozaldi-placer*-ta poz, 3, 6, 2.
- GOZATAZUN (i.) 'placer'. gogo aragui-zalea, ta *gozatazun* araguiuzcoa, 3, 7, 1.
- GUZIAHALTAZUN (i.) 'omnipotentia'. (Jaungoicoaren) *guciaháltazuná*, 5, 2, 13.
- GUZIAKIKO (adj.) 'uniuersalis'. erromaco (sic e-) elyzaren batazun ta fede gure *guciaquicotic* urratuac egon arren, 4, 5, 3.
- GUZIERAKO (adj.) 'uniuersalis'. elyza-batazun-ta fede *gucieracotic* (aldendu baci-ran ere), 4, 5, 3. Ik. GUZIAKIKO.

I

- IBILLERA (i.) 'andadura' (?). mezaco ceremonietan, elizacanta santuetan, calbarioco-letaniaco-procesioco *ibilleratan*, 6, 1, 2.
- IDIKIPEN (i.) 'abertura'. *idiquipena* aoa daucaten-ac, 2, 2, 1.

- IGARIMAR (i.) 'sirena'. arraiñ mota batzuc, gure chit anzberdiñecoac..., "*igarimar-uguermarrac*" deitzen dieten-ac, 3, 6, 5.
- IGARPEN (i.) 'uaticinatio'. aguerpenac-*igarpencac*-eta mirariac, 7, 1, 4.
- IGESINGURU (i.) 'subterfugio, evasiva' (?). aitzauia-escupeda-*iguesinguru* asco 2, 3, 9.
- IKASBIDE (i.) 'doctrina, enseñanza'. onen contra zabaldu dirala *icasbide* galgariac, 3, 1, 2.
- IKUSGARRI (adj.) 'uisibilis'. sú *icusgarrtic* bere ondoren dator..., 2, 3, 6.
- IKUSI-EZIN (adj.) 'inuisibilis'. beguiz *icusi-ecinac*, 3, 4, 2.
- IKUSKETA (i.) 'uisio'. ibilli bague turbatzen gendea... *icusqueta* despreciagarria-quin, 2, 1, 4.
- ILLEZIN (adj.) 'immortalis'. *illeciña* dala gure arimea, 3, 7, 1.
- ILLEZIN̄TAZUN (i.) 'immortalitas'. animaren *illeciñtazuna*, 3, 1, 2.
- ILLEZKOR (adj.) 'immortalis'. Gure arimea da ezilgarria, *illezcorrá* edo, iñoiz ere illeciña, 3, 1, 5.
- ILLGARRI (adj.) 'mortalis'. Baldin arimea bada *illgarria*, 3, 6, 1.
- ILLKOR (adj.) 'mortalis'. erriligioco locarria, *illcorrentzat* ain salbagarria, 5, 5, 2.
- INDAREGIN (a.) 'ahalegindu'. *indareguin* arren ere, ayec itó edo osatutzeco; ta indareguite oiec..., 3, 7, 1.
- IRAKASDE (i.) 'doctrina, enseñanza'. apostoluai bere elyzaren governu oneraco bear ziran *iracasdeac* ematen zebillela, 4, 3, 6.
- IRAUNERAZI (a.) 'mantener, conservar'. *irauneracitzen* gaituan jaincozco zuzentazun ta providenciac, 2, 2, 3.
- IRAUPEN (i.) 'duración, conservación'. Eguilleac autortu, edo ematen badie... *iraupen* naturala, 3, 3, 1.
- IRINTZI (a.) 'irentsi'. *irintzi* dezagun justoa, bada Jaunac eztaqui, ta eztu icusten ecer, 1, 5, 1.
- IRITU (adj.) 'ostatu hartu'. izpia, *iritua* (azpimarratua), edo gure gorputzeco iri-uri-echean bicilecutua, 3, 2, 1. *Oharra: Espiritua* hitzaren etimologia egiten ari da.
- IRITZI (i.) 'dictamen' (Larram.). concienciaco *iritzia* deitz[e]n diogun-á, 3, 4, 1.
- IRUDIGARRI (adj.) 'imaginario'. su au ezatala *irudigarria*, baicic[a]n eguiazcoa ta izatezcoa, 2, 2, 5.
- IRUDIPENKO (adj.) 'aparente, imaginario'. aditu ditugu zuen argüimendu *irudipeneco*, edo diruditenac, 3, 8, 1.
- ITSATSITAZUN (i.) 'enlace, conexión' (?). penitenciaren ta barcacioaren artean dagoala alaco adisquidetazun edo *itsatsitazuna*, non da..., 7, 5, 4.

- ITXODOMEN (i.) 'itxaropen'. *¿Cer ichodomen, edo esperanza da au...?*, 3, 4, 3.
- ITZERA (i.) 'dialecto'. Euscaldun labort-arrac bere *itz-eran*, 2, 2, 1.
- ITZILLIKO (adj.) 'secreto, oculto'. *¿ceimbat modutaco becatu itzillicoen ugoideac ez luque ondatuco mundua?*, 4, 7, 2.
- ITZKETA (i.) 'lenguaje, expresión'. Hau bera esaten dute... *itzqueta* berdiñ berdiñacquin, 4, 4, 2.
- IZATEGALDU (a.) 'birrindu, suntsitu'. Izate gorputzduna *izategaltzen* da, ascatu-tzen dalaco zati-tan, 3, 2, 5; au (arimea) iñolaco ere moduz ezta *izategaltzen*, 3, 2, 5.
- IZATEZKO (adj.) 'egiazko'. (su au) eguiazcoa ta *izatezcoa*, 2, 2, 5.

J

- JABETAZUN (i.) 'dominio'. aitortu ta ezagutu bear da aren guganaco ta criatura guciacganaco *jabetazun* au, 5, 1, 6.
- JAIKERA (i.) 'pasión, inclinación'. biotzeco *jaiquera* ta griña lotzagarrienac, 3, 7, 1; griña-*jayquera*-pasioen furia, 1, 3, 1.
- JAINKOZKO (adj.) 'diuinus'. escubide *jaincozco* bat, 4, 3, 4.
- JAIOTERRI (i.) 'patria'. et̄say-saltzalle-ta traidore dira bada *jayoterrico*, erriligioco cchea lurrerabotatzeco lanean dabiltzanac, 5, 4, 8.
- JATORRIZKO (adj.) 'originalis'. pecatu jatorrizcoac, 7, 2, 3.
- JAUSKERABERRI (i.) 'recaída'. nola gorde buruac *jausqueraberi-tatic*, 4, 7, 1.

K

- KALTEGARRI (adj.) 'galgarri'. Ik. BIOTZGOGOR.
- KALTEKO (adj.) 'damni'. pena *caltecoa* ta pena sentiducoa, 2, 2, 4.
- KALTETU (a.) 'dañar, descalabrar'. Ik. BURUAUSI.
- KANPOKO (adj.) 'externo, visible'. *campoco* señaleren batequin, 4, 1, 2.
- KANPOTIKO (adj.) 'externo, visible'. agureguite *campoticoaren* premia, 6, 1, 2.
- KATIBUERA (i.) 'eragozpen, atzerabide'. arazo-eragozqueta-*catibuera* ta traburic ipiñtzen ezpadegu, 4, 2, 2. Ik. ERAGOZKETA.
- KIDARI (i.) 'guía, conductor'. Adan eta Cain ere legue naturalean ziran,... itzquiribituzco quin, edo, *quidarie*-guiaric-lagunic, eta eracusleric ere bague, 4, 1, 3.
- KIN (i.) 'guía, conductor'. Ik. KIDARI.

- KONPONDU (i.) 'unión, composición'. Ik. BATU.
- KONSEJARI (i.) 'consiliarius'. billatu bear luquete *consejari* jaquitun ta leyal bat, 4, 7, 1.
- KONTAEZIÑGARRI (adj.) 'innumerabilis'. *contaeciñgariac* izan arren condena-tuen penac, 2, 2, 4.
- KONTRAESAN (a.) 'contradico'. batzuc ari *contraesan* bague, 4, 5, 1; jaunagaco agurtazun arec *contra-esan* ta eguiten die, 5, 3, 6. Ik. BERRITAZUN.
- KONTRAESATE (i.) 'contradicción'. Adi dezagun... eztagoala philosophoen opi-nioric, *contraesate* baguecoric, 7, 1, 9; ezjaquintazun-useguite-ta *contraesate-tan*, 7, 1, 8.
- KORDEBAGE/-KO (adj.) 'insensible' (?). sorra-gorra-ta *cordebaguea*, 3, 5, 4; adimentu-centzun-*cordebagueoac*, 5, 3, 8.
- KREITU BAGETU (a.) 'afrentar, infamar'. *creitu baguetua*-perseguitua-ta deserri-tua, 3, 4, 3.
- KULPAGARRIZKO (adj.) 'culpabilis'. *culpagarrizco* ezjaquiñez, 7, 4, 13.

L

- LAGUNEGITE (i.) 'compañía, asistencia'. Espiritu santuac aguindu diola bere *laguneguitea* Elizari, 4, 5, 2.
- LAGUNKIDA (i.) 'compañía'. demonioen *lagunquidac*, 2, 1, 2.
- LAPA (i.) 'bardana, lampazo'. errico izainac-lapac-ondaquinac becela, 3, 1, 2.
- LAUOÑEKO (i.) 'quadrupes'. guizon, egazti, *lauoñeco*, ta sierpeen irudia, 7, 2, 7.
- LEGEAUSLE (i.) 'infractor, delincuente'. icustean, legue guizonezcoac castiga-tzen dituztela beti *legueausleac* urcá edo beste eriotza modu batequin, 7, 5, 4.
- LEGEAUSTE (i.) 'infracción, delito'. Jaungoicoa izango dala *legueauste* onen vengatzalle, 7, 4, 13.
- LEGEAUTSI (i.) 'infracción, delito'. castigua etorrico zala obenáren ta *legueau-tsiaren* ondoren, 1, 2, 9.
- LEGEGILLE (i.) 'legislador'. *legueguillea* ta jueza, 1, 2, 3.
- LEKUKOTAZUN (i.) 'testimonium'. Eztala iracurtzen iracazderic ta *lecucotazu-nic*, 5, 3, 5.
- LIJITO (adj.) 'legalis' (?). Erriligioa, eusqueraz deitzen da ala, ceren dan erri *ligitua*-leguecoa, edo naturalezaco leguearen eracoa, 5, 1, 1. *Oharra*: Etimolo-gia egiten?
- LOTSA EKARRI (a.) 'lotsa erakutsi'. ari (gurasoari) bear dan *lotsa ecarri*, 7, 4, 1.
- LURIKARA (i.) 'terrae motus'. nondic datocen *luricarac*, 2, 2, 1.

LURJO (a.) 'suntsitu, hondatu'. hurá (erriligioa) *lurjotzeco*, 5, 3, 10; Erriligio bague... erreñuetaco seguridadeac *lur-jotzen* dú, 5, 4, 6.

LURRERABOTA (a.) 'derribar'. *lurrerabotatzeco* lanean dabilltzanac, 5, 4, 8.

M

MATXINADA (i.) 'sedición, tumulto'. hurá (erriligioa) *lurjotzeco* aimbat engañozco ta deabruzco *machinada* asmatzen ta ateratzen dituztenean, 5, 3, 10.

METALLU (i.) 'metallum'. erretzen cituztela laba edo *metalluzco* cecen go[ri]gorietan, 7, 3, 7. *Oharra*: Etimologia egiten?

MIRARI (i.) 'miraculum'. aguerpenac-igarpenac-eta *mirariac*, 7, 1, 4.

MOLDAKAITZ (i.) 'rudeza, rusticidad' (?). ¿Ceibat gende basotarren asarremoldacaitz-eta gogortazun, etzuen azpitu-moldatu-ta bigundu erri[li]gioac?, 5, 3, 11.

MOLDEZTU (a.) 'imprimir, grabar'. Jaunac *cilluz* moldeztua, 3, 4, 1.

N

NAGUSI (adj.) 'supremus'. anditazun *nagusiac* 'suprema maiestas', 5, 1, 6. Ik. ANDITAZUN.

NATURALEZAGAÑEKO (adj.) 'supernaturalis'. Erligio *naturalezagañecoa* da, 5, 1, 1.

NATURALEZAZ GOITIKO (adj.) 'supernaturalis'. erriligo *naturalezaz goiticoa*, 7, 1, 6.

NATURAZGOITIKO (adj.) 'supernaturalis'. *naturazgoitico* arguiaren[ui]n, 5, 1, 1.

NAUSITAZUN (i.) 'poder, prestancia' (?). ¿... ez ote zuten (legueguilleac) eguin erri[li]gioaren usadio, emateco beren legueai *nausitazuna*?, 5, 4, 1.

NEGARGARRI (adj.; i.) 'lamentable; calamidad' (?). esperiencia *negargarri* batec iracazten digu, 7, 4, 13; Guerta eztedin bada onelaco *negargarriric*, 3, 1, 4.

NEURRIKO (adj.) 'regular, normal' (?). erreguela *neurrico* bat ipiñtzeco, 4, 6, 1.

NOLAKOTAZUN (i.) 'calidad, índole'. ezagutu eritazunaren *nolacotazuna*, 4, 4, 2.

O

OBEDILLE (adj.) 'obediens'. potencia *obedillea* (da sua), 2, 3, 4.

OLESI (i.) 'hesi'. esi-*olesi*-ta barruera, 1, 3, 1.

ONBIURTU (a.) 'conuerto'. *onbiurtuco* dira, ta egingo dute penitencia, 1, 3, 5.

- ONDABIDE (i.) 'peligro, ruina' (?). *íceimbat gaizqui-negargarri-ta ondabide, ez lieque ecarrico erriai...?*, 5, 5, 1.
- ONDAKIN (i.) 'hondar, zabor'. *errico izainac-lapac-ondaquinac* becela, 3, 1, 2.
- ONEGIN (i.) 'mesede, fabore'. *ceimbat cereguiñ ta onegin* despreciatuco lir[a]-quean...!, 5, 4, 10.
- ONESDAMU (i.) 'contritio'. *contritio-onesdamu-damu* gucien gañeco damua, 4, 2, 2.
- ONGILLE (i.) 'benefactor'. *bearsu esquecoac-ganaco onguille* diranai, 5, 4, 10.
- ONOITAZUN (i.) 'birtute'. *berequin dauzcagulaco onoitazun* ta perfeccio guciac, 5, 1, 7.
- ONTZIGALDU EGIN (a.) 'naufragium pati'. *fedean ontzigaldu-eguiteco* tentatua, 3, 7, 1; *becatuan erori ta ontzigaldu eguin* duanarentzat, 4, 3, 3.
- OSAGARRI (i.) 'osagai, erremedio'. *ipintzeá osagarri[tza]t* gucien aurean fedeco eguia bat, 3, 1, 4.
- OSASUNGARRI (adj.) 'saludable, provechoso'. *erligioa dala errientzat eta guizar-teraco osasungarria*, 5, 5, 3.
- 1 OSOBETE (a.) 'cumplir; completar'. *gauza oiec gucioc osobete* bear ditugu, 5, 1, 5; *Osobetetzeo puntu onen ontazuna*, 5, 3, 3.
- 2 OSOBETE (adj.) 'perfectus'. *beren gorputzaldeac diralaco osobeteago*, 3, 6, 3.

P

- PADEZIKOI (adj.) 'passibilis'. (sua da) *padecicoyá*, *icututzen dion animaren aldetic*, 2, 3, 4.
- PENSATZALLE (adj.) 'pensans'. *aditzallea-gogotzallea-pensatzallea*, 3, 2, 5. Ik. ADITZALLE.
- PIXUEZA (adj.) 'pisu gutxiko'. *pixueza* ta *ariña* eguingo ezpalitza, 4, 6, 4.
- PIXUTAZUN (i.) 'peso, gravedad'. *becatuaren pixutazuna*, 4, 4, 2.
- POZALDI (i.) 'poz, atsegin'. *pozaldi* edo *penac*, 2, 3, 7.
- PREST (adj.) 'ligero, veloz' (?). (sua da) *bicia-lasterra-ta presta*, 2, 3, 4.
- PRESTAERA (i.) 'preparación, disposición'. *gure devocio ta prestaerari* dagocan garacia, 4, 2, 2.

S

- SALBAGARRI (adj.) 'osasungarri'. *erriligioco locarria, illcorrentzat ain salbagarria*, 5, 5, 2.
- SALTZALLE (i.) 'proditor'. *eñsay-saltzalle-ta traidore* dira, 5, 4, 8.

- SARTUALDE (i.) 'sartalde'. eguzquiaren sortualdetic *sartualderañoocoac*, 4, 5, 2.
- SENTIEZGARRI (adj.) 'insensibilis'. eguingo balú (Jaungoicoac)... naturaleza gucia, *sentiezegarria*, sorra-gorra-ta cordebaguea, 3, 5, 4.
- SENTIGARRI (adj.) 'sensibilis'. infernuco pena *sentigarri* gucietatia andiena, 2, 2, 5.
- SINISGOR (adj.) 'incredulus'. *sinisgor*, edo, sinisteric nai eztuana, 3, 2, 3.
- SINISGORTAZUN (i.) 'incredulitas'. Inorc eztu negareguingo ayen *sinisgortazuna...*?, 7, 1, 4.
- SINISKERA (i.) 'sineskai, fedegai'. animaren illeciñtazuna, *sinisquera* sagradutzat iduqui arren, 3, 1, 2; heregiaren *sinisquera* guezurrezcoa, 4, 5, 2.
- SINISKOR (adj.) 'sinestedun'. beti *siniscor* ta sendo confesioco puntuan, 4, 5, 4.
- SORTUALDE (i.) 'sortalde'. eguzquiaren *sortualdetic* sartualderañoocoac, 4, 5, 2.

T

- TAJU (i.) 'forma, traza, talla'. echura-irudia-*tajua*, 3, 3, 1.
- TALLU (i.) 'forma, traza, talla'. gorputzeco *tallu* on batetic datocen perfeccioac dirala, 3, 6, 3; Animalia batzuc daodela, daquigu, ... guizon ta andre diruditen-ác, beren *tallu*-tajú, ta gorputz alde gucietan, 3, 6, 5. *Oharra*: Etimologia egiten?
- TOLESBAGE (adj.) 'sincerus, candidus'. damu benazco-cinezco-*tolesbaguea*, 4, 4, 2.

U

- UGERMAR (i.) 'sirena'. Ik. IGARIMAR.
- UKAEZIN (adj.) 'innegable, incuestionable'. izan[i]c *ucaeciña*... castigatuco dituala, 5, 3, 9.
- UKAEZINGARRI (adj.) 'innegable, incuestionable'. Da bada eguia *ucaecingarri* bat, 3, 7, 1.
- UKATUEZIN (adj.) 'innegable, incuestionable'. *Ucatueciñac* izanic guizonezco gogo, edo, biotzicututze oiec, 3, 4, 3.
- URKA (i.) 'traba'. fregua-*Urquia*-ta brida ezarten die, 5, 3, 6; fregua ta *urca*, 5, 3, 6.
- USALDI (i.) 'falta, insuficiencia'. bitartean dan *usaldi*-falta-ta escastazuna, 4, 2, 2.
- USBETE (a.) 'completar, suplir'. cumplitzen ta *usbetejitzen* du sacramentuac, 4, 2, 2.

- USEGIN (a.) ‘faltar, fallar’. Espiritu santuac aguindu diola bere laguneguitea Elizari, igues, ta *useguin* ez dezan eguiac inoiz, 4, 5, 2.
- USEGITE (i.) ‘falta, fallo; yerro, error’. eguindaco useguiteac, 4, 6, 6; ezjaquintazun-*usegite*-ta contraesatetan, 7, 1, 8.
- USTEKABE/-KO (i.; adj.) ‘casualidad, azar; inesperado, súbito’. *ustecabeac* batua, ta bere naira banatua, 3, 5, 1; biotzaren *ustecabeco* icarac, 3, 7, 1.
- USTELGARRIZKO (adj.) ‘corruptibilis’. sierpeen irudia galgor (sic -g-) *ustelgarrizco* semeantzera, 7, 2, 7.
- UTSUNE (i.) ‘uacuum’. arimean ichtizen duten *utsuné*, edo errayarte, 3, 3, 2.
- UTZIRUDI (i.) ‘jusión’. birtuteari equitea da choraqueria ta *utzirudi* bat, 3, 6, 2.
Oharra: “*utzirudi*” izan behar luke.

Z

- ZABALBIDE (i.) ‘bide zabal’ (?). pecaturaco *zabalbide* guciac zarratuzten diozcan-á, ez bideeguiteco, 1, 4, 4.
- ZABALPEN (i.) ‘abertura’. campora errebesatzeco *zabalpenic* eztaucaten-ác, 2, 2, 1. *Oharra*: *Sumendiez* ari da.
- ZATIEMAN (a.) ‘contribuir’ (?). sacramentuac eurac beragan dutenetic ere *zatiematen* dute, ta artzen degu guc ere zati ta parte hura, 4, 2, 2.
- ZATIKO (adj.) ‘partialis’. ¿barcacioa, ... izango ote dan osoa edo *zaticoa*...?, 7, 5, 7.
- ZILLUZ JO (a.) ‘signo, sigillo’. marcatu-*cilluz jo*-ta moldeztu zituan Jaungoicoac berac gure biotz-etan, 7, 1, 2.
- ZIMENDATU (a.) ‘oinarritu’. Emen *cimendat[suri]c* goacen aurr[er]a, 3, 2, 4; Testimonio onetan *cimendaturic*, 4, 4, 2.
- ZIMENDU/-ZKO (i.; adj.) ‘oinarri; oinarrizko’. legueai indarra ta balioa emateco *cimendu* sendoa, 5, 4, 2; Erreguela *cimenduzco*... oien ondoren, 4, 5, 1.
- ZUTI IPINI (a.) ‘implantar’. oien ordez Framasonen legue ziquiña *zuti ipintzeco*, 3, 1, 3.

ADIZTEGIA

A

ATOZTE 'zatozte'. *Atozte*, 1, 2, 9.

B

BADEZAGU 'badezagu'. "considera *badezagu*", 4, 1, 1.
 BALEGO 'balego'. *balego*, 1, 3, 2.
 BALETOR 'baletor'. *baletor*, 1, 3, 4.
 BALEUKA 'baleuka'. *baleuca*, 3, 3, 2.
 BALEUKATE 'baleukate'. *ezpaleucate*, 3, 5, 4.
 BALIE 'balie'. *balie*, 1, 2, 6.
 BALIGUTE 'baligute'. *ezpaligute*, 4, 7, 1.
 BALIRA 'balira'. *ezpalira*, 4, 6, 7.
 BALITU 'balitu'. *balitu*, 1, 2, 5.
 BALITZA 'balitz'. *balitza*, 3, 6, 4.
 BALITZAIEZKETE 'balitzaizkie'. *balitzaiezquete*, 4, 4, 2.
 BALITZAIIO 'balitzaio'. *balitzaio*, 4, 7, 1.
 BALITZAIIOKE 'balitzaio'. *balitzaioque*, 4, 7, 2.
 BALITZAKE 'balitz'. *balitzaque*, 1, 1, 8.
 BALU 'balu'. *balú*, 3, 5, 4.
 BALUTE 'balute'. *ezpalute*, 4, 6, 2.
 BEDI 'bedi'. "Iracorri *bedi*", 3, 8, 3.
 BEZAIOTE 'biezaiote'. "galde *bezaiote*", 2, 1, 5.
 BITZATE 'bitzate'. "iracorri *bitzate*", 2, 1, 5.

D

DA 'da'. *da*, 1, 1, 1; *dana* 1, 1, 3.
 DABILLTZA 'dabiltza'. *dabilltzanac*, 5, 4, 8.
 DAGIETEN 'diezaieten'. *daguietena*, 4, 7, 1.
 DAGIKEGU 'diezaguke'. *daguiquegun*, 5, 1, 10.
 DAGIOGUN 'diezaiogun'. *daguiogun*, 1, 4, 4.
 DAGION 'diezaion'. *daguijon*, 3, 4, 3.
 DAGO 'dago'. *dagó*, 2, 1, 6.
 DAGOKA 'dagokio'. *dagocana*, 1, 3, 3.
 DAGOKIGU 'dagokigu'. *dagoquiguná*, 3, 2, 16.
 DAGOKIO 'dagokio'. *dagoquion*, 1, 2, 4.
 DAGOZKIO 'dagozkio'. *dagozquionac*, 7, 4, 1.
 DAKAR 'dakar'. *dacar*, 3, 6, 1.
 DAKARTE 'dakarte'. *dacarten*, 3, 7, 1.
 DAKAZKI 'dakartza'. *dacazqui*, 3, 8, 3.
 DAKI 'daki'. *daki*, 1, 3, 4.

- DAKIGU 'dakigu'. *daquigu*, 2, 2, 1.
 DAKIT 'dakit'. "Nic *badaquit*", 3, 1, 2.
 DAKITE 'dakite'. *daquite*, 4, 3, 6.
 DAKUS 'dakus'. *dacus*, 1, 1, 4.
 DAODE 'daude'. *daode*, 3, 1, 2.
 DARAMA 'darama'. *daraman-ác*, 3, 7, 1.
 DARIE 'darie'. *dariena*, 4, 3, 6.
 DATOR 'dator'. *dator*, 1, 3, 4.
 DATOZ 'datoz'. *datocen*, 2, 2, 1.
 DATOZKIE 'datozkie'. *datozquie*, 2, 2, 4.
 DATOZKITE 'datozkie'. *Datozquite*, 3, 7, 1.
 DATXEKA 'datxekio'. "ari *dachecala*", 4, 3, 3.
 DAUKA 'dauka'. *dauca*, 1, 1, 4.
 DAUKAGU 'daukagu'. *daucagu*, 2, 1, 3.
 DAUKATE 'daukate'. *daucate*, 3, 4, 3.
 DAUTZA 'dautso'. "ari *dachecala*, *dautzala*", 4, 3, 3. Ik. DEUTZA.
 DAUZKA 'dauzka'. *dauzca*, 3, 3, 2.
 DAUZKAGU 'dauzkagu'. *dauzcagu*, 2, 1, 3.
 DAUZKATE 'dauzkate'. *dauzcate*, 1, 3, 5.
 DEDIN/DIDIN 'dadin'. "despreciatu ez *dedin*", 1, 2, 4; "tormenta *didin*", 2, 3, 6; "Guerta *eztedin*", 3, 1, 4; "artu *eztidin*", 4, 5, 2.
 DEGU 'dugu'. *degu*, 1, 2, 8.
 DEMAGUN 'demagun'. *demagun*, 3, 8, 2.
 DERIZTE 'deritze'. "fracmas[o]n *deriztenac*", 3, 1, 2.
 DET 'dut'. *det*, 1, 1, 6.
 DEUTZA 'dautso'. "escutic *deutzan* edoceñequin", 7, 3, 1. Ik. DAUTZA.
 1 DEZAGUN 'dezagun'. *Dezagun*, 5, 1, 5.
 2 DEZAGUN 'ditzagun'. "icusi *dezagun...* beste 7-rac", 7, 4, 1.
 DEZAKE 'dezake'. *dezaque*, 1, 2, 4.
 DEZAKEGU 'dezakegu'. *dezaquegu*, 7, 4, 13.
 DEZAKETE 'dezakete'. *dezaquete*, 5, 3, 4.
 DEZAN 'dezan'. *dezan*, 3, 3, 1.
 DEZATEN 'dezaten'. *dezaten*, 5, 2, 16.
 DEZAZUTEN 'dezazuen'. *dezazuten*, 2, 3, 9.
 DEZU 'duzu'. *dezu*, 1, 5, 1.
 DEZUTE 'duzue'. *dezute*, 3, 7, 1.
 1 DIE 'die'. *die*, 3, 3, 1.
 2 DIE 'diete'. "Moyses ta Profetai sinisteric ematen *ezpadie*", 1, 3, 5.
 DIET 'diet'. *diet*, 4, 4, 2.
 DIETE 'diete'. *diete*, 2, 1, 5.
 DIEZTE 'dizkiete'. *dieztela*, 3, 1, 2.
 DIEZTEZUTE 'dizkiezue'. *dieztezuten*, 4, 3, 6.
 DIGU 'digu'. *digu*, 2, 3, 4.
 DIGUTE 'digute'. *digute*, 3, 4, 2.
 1 DIO 'dio'. *dio*, 7, 1, 10.
 2 DIO 'esaten du'. *dio*, 4, 1, 3.
 DIOE 'diote'. "rguiten *dioe*", 4, 6, 7.
 DIOGU 'diogu'. *diogu*, 3, 5, 1.
 DIOT 'esaten dut'. *diot*, 3, 5, 4.

- 1 DIOTE 'diote'. *diote*, 1, 3, 5.
 2 DIOTE 'esaten dute'. *diote*, 1, 2, 5.
 DIOZAGUN 'diezaiogun'. *diozagula*, 3, 8, 3.
 DIOZAKETE 'diezaiokete'. *diozaquetela*, 5, 2, 5.
 DIOZKA 'dizkio'. *diozcana*, 1, 4, 4.
 DIRA 'dira'. *dira*, 1, 1, 8.
 DIRAU 'dirau'. *dirauen*, 1, 1, 8; *dirauben*, 1, 1, 8.
 DIRUDI 'dirudi'. *dirudi*, 4, 5, 5.
 DIRUDITE 'dirudite'. *diruditenac*, 3, 8, 1.
 DITEKE 'daiteke'. *diteque*, 4, 2, 2.
 DITEZEN 'daitezen'. *ditecela*, 7, 5, 4.
 DITEZKE 'daitezke'. *ditezque*, 4, 2, 2.
 DITU 'ditu'. *ditu*, 1, 1, 4.
 DITUGU 'ditugu'. *ditugu*, 3, 8, 1.
 DITUT 'ditut'. *ditudan*, 2, 3, 9.
 DITUZTE 'dituzte'. *dituzte*, 2, 2, 1.
 DITUZU 'dituzu'. *dituzun-á*, 3, 5, 3.
 DITUZUTE 'dituzue'. *dituzute*, 3, 8, 1.
 DITZAGUN 'ditzagun'. *ditzagun*, 3, 2, 3. Ik. 2 DEZAGUN.
 DITZAKE 'ditzake'. *ditzaquean-ác*, 3, 2, 3.
 DITZAKEKIGU 'diezazkiguke'. *ditzaquequigu*, 5, 2, 10.
 DITZAKETE 'ditzakete'. *ditzaque*, 5, 3, 7.
 DIZKIGU 'dizkigu'. *dizquigun*, 5, 1, 9.
 DIZUTE 'dizue'. *dizute*, 1, 1, 2.
 DU 'du'. *du*, 1, 1, 2; *duben*, 1, 2, 8; *duan-a*, 1, 1, 8.
 DUTE 'dute'. *dute*, 1, 1, 7.

E

- EGIZUTE 'egizue'. *Eguizute*, 3, 8, 2.
 EKITEN. Ik. ZEKITEN.
 EZAZU 'ezazu'. *ezazu*, 1, 3, 5.
 EZAZUTE 'ezazue'. *ezazute*, 4, 3, 6.

G

- GAITEZEN 'gaitezen'. *gaitecen*, 3, 8, 3.
 GAITU 'gaitu'. *gaitu*, 3, 5, 1.
 GAITUZTE 'gaituzte'. *gaituzte*, 2, 1, 4.
 GAITZAKE 'gaitzake'. *gaitzaqueanari*, 3, 8, 3.
 GAITZAN 'gaitzan'. *gaitzan*, 4, 6, 6.
 GENDUAN 'genuen'. *guendualaco*, 1, 4, 3.
 GENEZAN 'genezan'. *guenezala*, 4, 5, 6.
 GERA 'gara'. *guera*, 7, 3, 1.
 GINDEZIN 'gintezzen'. *guindecin*, 4, 5, 5.
 GINEN 'ginen'. *ezquinenean*, 4, 5, 5.

'GO 'dago'. *bagó*, 1, 2, 1.
GOAZEN 'goazen'. *goacen*, 3, 2, 4.

L

LEGIKION 'lekio'. "Jaincoari nai *leguquiola*", 2, 1, 2.
LEZAKE 'lezake'. *lezaque*, 3, 7, 1.
LIEKE 'liekete'. *lieque*, 5, 5, 1.
LIEKETE 'liekete'. *liequetela*, 1, 3, 7.
LIRAKE 'lirateke'. *liraque*, 1, 2, 6; etab.
LITEKE 'liteke'. *liteque*, 3, 2, 5.
LITEZKE 'litezke'. *litezquean*, 4, 7, 1.
LITEZKETE 'litezke'. *litezquete*, 5, 4, 9.
LITUZKE 'lituzke'. *lituzque*, 4, 7, 2.
LITUZKETE 'lituzkete'. *lituzquetela*, 3, 6, 4.
LITZAKE 'litzateke'. *litzaque*, 1, 1, 4.
LUKE 'luke'. *luque*, 1, 2, 1.
LUKETE 'lukete'. *luquete*, 1, 4, 1.

N

NAIZ 'naiz'. *naiz*, 1, 5, 1.
NINDUEN 'ninduen'. *ninduen*, 4, 3, 6.
NINTZAKE 'nintzateke'. *nintzaque*, 7, 3, 6.

Z

ZAIE 'zaie'. *zaie*, 3, 5, 3.
1 ZAIETE 'zaie'. *bazaiete*, 1, 3, 5.
2 ZAIETE 'zaizkie'. *zaietela*, 2, 1, 2. Ik. ZAIEZTE.
ZAIEZTE 'zaizkie'. *zaietzte*, 4, 3, 6.
ZAIIO 'zaio'. *zaio*, 1, 4, 4.
ZAITEZTE 'zaitezte'. *zaitezte*, 3, 8, 3.
ZAITUET 'zaituztet'. *zaituet*, 4, 3, 6.
ZAITZUTE 'zaitzue'. *bazaitzute*, 1, 3, 1.
ZAIZKA 'zaizkio'. *zaizca*, 5, 1, 8.
ZAIZKO 'zaizkio'. *zaizco*, 1, 4, 4.
ZAN 'zen'. *zan*, 4, 1, 2.
ZAODE 'zaude'. *bazaode*, 1, 5, 1.
ZEBILLEN 'zebilen'. *zebillela*, 4, 3, 6.
ZEDUKAN 'zeukan'. *zeducan*, 7, 2, 3.
ZEGOAN 'zegoen'. *Zegoan*, 5, 4, 1.
ZEKARKIETEN 'zekarkien'. *zeczarkietela*, 5, 4, 1.
ZEKIAN 'zekien'. *bazequian*, 5, 4, 1.

- ZEKIDION 'zitzaion'. "Profeta... etorri zekuidion arteraño, 4, 2, 1.
 ZEKITEN 'zekiten'. "esperenciaz ekuiten", 5, 4, 2. Ik. ZEZATEN. Ik. ere 5. testuko 22. oharra.
 ZEODETEN 'zeuden'. *zeodeten*, 4, 5, 4. Ik. ZEODEZEN.
 ZEODEZEN 'zeuden'. *zeodecenaz*, 4, 1, 4.
 ZERA 'zara'. *zera*, 1, 5, 1.
 ZERATE 'zarete'. *zerate*, 1, 3, 1.
 ZEUDEN 'zeuden'. *zeuden*, 4, 2, 1. Ik. ZEODETEN eta ZEODEZEN.
 ZEUKAN 'zeukan'. *zeucan*, 3, 3, 1.
 ZEKAKETEN 'zekaketen'. *zekaqueten*, 4, 5, 4.
 ZEZAN 'zezan'. "ezagutu zezan", 4, 1, 2; "confesa zezan amorea-gatic", 4, 1, 2; "confesa zezan-gatic", 4, 1, 3.
 ZEZATEN 'zezaten'. "desonrratu ez ezaten" (sic e-), 3, 2, 2; "nahastu ez zezaten", 3, 2, 2.
 ZIEN 'zien'. *zien*, 4, 3, 6.
 ZIETEN 'zien'. *zietela*, 4, 3, 4.
 ZIÑEKITEN 'zenekiten'. *baciñequiten*, 1, 2, 9.
 ZIÑIZKIDATEN 'zenizkidaten'. *ziñizquidatenac*, 1, 4, 3.
 ZIOETEN 'zieten'. *etzioeten*, 7, 3, 7.
 ZION 'zion'. *zion*, 1, 3, 5.
 ZIOTEN 'zioten'. *zioten*, 3, 2, 1.
 ZIOZKAN 'zizkion'. *ziozcala*, 4, 1, 2.
 ZIRAN 'ziren'. *ziran*, 2, 3, 4.
 ZITEKEAN 'zitekeen'. "guerta zitequeala", 4, 3, 5.
 ZITEZEN 'zitezen'. *zitecen*, 1, 1, 7.
 ZITEZKEAN 'zitezkeen'. "ezagutu zitezquean", 7, 5, 3.
 ZITUAN 'zituen'. *zituan*, 4, 2, 1.
 ZITUZTEN 'zituzten'. *zituzten*, 1, 2, 6.
 ZITZAITEN 'zitzaien'. *zitzaiten*, 5, 2, 16. Ik. ZITZATEN.
 ZITZAKAN 'zitzaion'. *zitzacan*, 4, 1, 3.
 ZITZATEN 'zitzaien'. *zitzatela*, 5, 2, 12.
 ZIZKOEN 'zizkioten'. *zizcoen*, 7, 1, 4.
 ZOAZTE 'zoazte'. *zoazte*, 2, 1, 3.
 ZUAN 'zuen'. *zuan*, 4, 1, 2.
 ZUTEN 'zuten'. *zuten*, 3, 2, 2.

1. TESTUA

1.º Esaten dute: “Andieguia da Jaungoicoa, guc emen lurrean yeguiten ditugun-az, arduratzeco”.

¡Oh, erri gaiztoac, eranzuten du emen Espiritu santuac Igarla baten aoz², ¿nola ausartzen zeráte pensatzera ta esatera: Jaunac eztaquila³ gure bicitzaren berri, eztaucala lurreco gauza chiquien⁴ arduraric? Baña!, o lastima gogorra!, guraso christauen humé aci-eci-icasiac, des-paratu au esan bearra! gurasoac iracatziz dizute, Jaunac eguiñ zituala cerua ta lurra, eguzqui, illargui, izar, ta beste edertaz[une]q[ui]n[.] arrazoe ta esperenciac iracatziz dizute, Jaunac gobernat[ze]n⁵ dituala armonia ederrean, inorc turbatu ál bague: San Pauloc iracatziz ere dizute⁶, Jaunagandic artu dezutela izatea, muguida-ibillia, ta bicitza:

¿nola da bada posilbe, Jaun arguizco au munduaren aurrean egotea, emen igarotz[e]n dana jaquin bague? ¿nola da posilbe, zuen erdian egotea, eguiten ta pensatzen dezuten gauzaric chiquiena, jaquin bague? ¿nola bada, pensamentua guizonari eman dion-ac, ezjaquingo du guizonaren pensamentua?

ez, ez: Jaunac gaubelatzen du, [Vigilia, o beguiaguiria]⁷, gaiztaqueriaren gañean⁸; gucia dauca aurrean, gucia dacus; bestela, ez litzaque izango Jaungoico osó osó: contrara bai; berac asmatu, iguerri, ta gogoan ditu gauza guciac; berac ezagutzen du Profeta, sortua izan baño len, ta icentatzen du bere serbitzari Ciro, berreun urtez jayo baño len; berac azquenic, asco da⁹ ezagutzea berberá, ezagutzeco gauza guciac.

2. Esaten dute: “Eztá arrazoe baicic[a]n injusticia, castigatzea betico pena-q[ui]n instante bateco pecatubat”.

Aittortzen det, eciñ aditu dedala, cergatic deadareguiten dan aimbeste, penaen beti irauntearen contra, ta cergatic deadareguiten eztan berdiñ berdiñ sari ta paguen betirauntearen contra.

Jaungoicoa da, esaten dute, da chit oná-erruquiorra-misericordiosoa, galtzeco betico criatura batzuc, cein étzituan eguin, izan zitecen zorigaiztocoac; ta ala, beretzat gloria gueyago izango litzaque, saristatzea birtutea gueyeguiarequin, instante bateco argaltazunezco pecatua betico castigatzea baño.

¡Cer itzaldi ederra, edo obeto esateco, cer ichutazuna au, N¹⁰, jaincotazuna arrasatzen ta ucatzen duan-a! cer[e]n ¿nola Jaungoicoa, izan arren ere ona, izango litzaque Jaungoico, ezpaldin balitzaque azquenbague santua? ¿ta nola izango litzaque azquenbague¹¹ santua, baldin balitzaque guchiago justoa misericordiosoa baño?: baña, ¿ta nola ez litzaque izango guchiago justoa misericordiosoa baño, baldin castigatuco ezpalu pecataria, bere pecatuac dirauen dembora gucian, ala nola saristatzen duan justoa, bere birtuteac dirauben artean? bataren pecatua ta bestearen birtutea badá, demborari beguiraturic, iraupen guchicoac izan arren, baña beguiaurrecoari ta gueroacoari¹² beguiraturic dira betibeticoac; ta ala, batac bear du izan castigatua, ta besteac ordaiñdua-saristatua eternidade guciango-an:

[2] Ona bada emen, nola, arrasatzen duanac justicia azquenbagueco bat aitzauia ederrarequin althatzeco misericordia azquenbague bat bere begui-

-aurrecoan; beraz, baldin bere esquerguetazuna bada azquenbaguea, mereci du pena azquenbague bat: ¿baña, nola izango litzaque azquenbaguea berez, ta nola eraman ahalco luque criatura batec? Emendic ondorea atera bear da Theologoen escola guciarequin, pena au bacarric dala azquenbaguea bere eternidadean.

Aitzaquia¹³-escapada-iguesinguru au indartu nai dute beren pensatzeco-modu galgarrira, esanaz:

Jauná, Ayta on batec, ondutzeco bai, baña ez betico, castigatzen ditu semeac: Au bera eguiten du Jaungoico Ayta onac ére.

Eranzun bear da, ori ala dala, baldin Ayta ori bacarric bada Ayta; baña eztala ala, baldin dembora berean ere bada legueguillea ta jueza. Jaungoicoa bada, ez bacarric da Aytaric onena, baita ere legueguilleric jaquintsuena, ta juezic zuzenena, leguegordetzeari beguiratu bear diona; Ta orregatic castigatu dezaque pecatua, dagoquion neurrico pena beticoarequin: ala badá, zuzenqui portatzen da, bere persona ta nagusitazuna despreciatu ez dedin.

Jauná, diote, Jaungoicoac castigatuco balitu criaturac beste bicitzan, gozatuco litzaque onetan: Au ezta eder Ayta bategan.

Eranzun bearda, orretan eztala gozatzen, criaturaren pena dan aldetic, ezpada bere justiciaren leguea dan aldetic. Ceren, baldin barcatuco balie guizachar guciac beste bicitzan; nola beste aldetic gozatu zituzten onic asco lurrean, euren sortuna¹⁴, edo, sortu-ona izango litzaque ascozaz obeagoa, guiza onen fortuna baño; ta orduan caltetuco liraque bere santidadea¹⁵, justicia, ta beste perfeccioac; ta bere legueac ere ez liraque gordeco ez gorde bearco: beraz, cast[igat]u bear dira beticó.

Jauna, diote, pena edoceiñ izan bear da, pecatuaren neurricoa; ta betico penaren ta instante bateco pecat[ua]re]n artean eztago berdiñtazunic, ez neurric.

Eranzun bear da, ori eztala neurritzen pecatuaren iraupenetic, ezpada justiciaren calte ta berdiñtazunetic. Ceren, justiciac berdiñdutzen du pecatuaren pena, ez iraun duben demborari beguiraturic, ezpada eguin duben injuriari; Ta orregatic icusten degu, eriotza bat, lapurreta bat, Erreguearen contraco obena, legueautsia¹⁶ Erregueren magestadearen contraco altchatze bat, castigatzen dala urca-mendiarequin: ¿ta ezta au errudunarentzat pena betico bat, bada betibetico da aldendua bicien artetic?¹⁷.

Baña penaen beticotazuna injusticia dala esaten dezutenóc, queḡac beñ edo beñ itzilltzeco, atozte arrazoetara: baciñequiten, zuen pasioa gozatu baño len, castigua etorrico zala obenären ta legueautsiaren ondoren; baciñequiten eguia icaragarrri au, Jaunac guraso-maißu-predicarien aoz sarri ascotan, 1824 urteren buruan esanic; baciñequiten, eguitada bat, jaincozco magestad[eare]n contracoa, ta erredimitzeco, bere odola baño guchiago costa eztana, zala diña infern[ua]re]n¹⁸;

[3] ¿Cerezaz queḡatzen zerate, baldin Jaungoicoa iruditzen bazaitzute ain gogorra bere venganzatan? ¿eraso, edo jotzera eguiñ dizute berac lenengo? ¿ezta bada izango arrazoe chit bidezcoa, Jaungoicoac becela venganza artzea? ¡ah¹⁹ icer icaragarrizco bide eztana,²⁰ injusticia, eguiten dezuten zubec, aren justiciaren contra deadar-eguiten dezutenóc! bada eguia esan, beticotazunaren gogortazunaz

quēx̄atzetic urruti, aitortu bear degu, castigu au dala chit suabea oraindic. Ceren, guerrac eta beste laceriac ascotan etorri izan arren, dira orregaitarren²¹ garbiagoac gure oiturac?: ¿contrará eztegu icusten eriotza gueyago, desonestidade-lizunqueria gueyago, bidegabe-calteeguite-ta lapurqueria gueyago? beraz, penaen beticotazuna da oraindic, esi-olesi-ta barruera chit argala, gueldituzeco zuen griña-jayquera-pasioen furia.

Baldin da baldin peccataria sinisturic balego, penaen beticotazun ta eternidadeac iduquico duala, luqueala, azquen cabua; ¿ceimbat gaiztaqueri, nazcagarri, ta negargarriren ugoldeac etzuan ondatuco oraingoraco christau mundua? ¿ceimbat conversio icusten dira, ta cer mella eguiten dute gugan, guerra, gose, egarri, izurri, ceruac biralduco azoteac? ¿ceimbat urca, icusten dira goratuac, castigatzeco errudunac; ta orrez guciac ere, eriotzac &.^a oiñean lenac?

Castigu oiec bada igarotzen dira, ta ez dute iñor bildurtzen; beraz, Jaunaren justiciari dagocana da, dio S[an] Gregorioc²², gure gaiztaquerien ugoldeari, penazco beticotazun bat aurpeguiz aurpegui ipintzea. Esan dezagun bada, cen, beticotazun au, ceñaren gañean deadareguiten dezuten aimbeste, dala, Jaunaren justicia-ren neurri berecoa.

3.º Esaten dute azquenic: “Norc daqui, beste bicitzan igarotzen dan-á?: infernutic, eta²³, beste mundutic ez dator ona berriric ez cartaric: iñor eztegu icusi biurtzen andic, oiala, ai bada, baletor, sinistuco²⁴ guñioque”.

Eranzun bear da, J[esu] Christo berac eman zuan eranzueraquin²⁵, icusten degun becela, Evangelioac dion aberatz zequen condenatuaren gañean, ceñec erregutzen zion Abrahameri, esanaz: Ayta Abraham, biraldu ezazu Lazaro mundura, aurkitzen naizan zorigaiztoaren berri neri anayai ematera, bada ill-en arteco bat²⁶ juater; bazaiete esaterá, emen igarotzen dan-á, onbiurtuco dira, ta eguingo dute penitencia; Ta Abrahamec eranzun zion: Moyses ta Profetac an dauzcate, baldin Moyses ta Profetai sinisteric ematen ezpadie, ez diote sinistuco ill biztu bati ere²⁷.

¡O ceñ jaquintsua dan eranzuera au, ill biztu baten presencia escatzen, ta Jaungoico baten esana despreciatz[e]n duten sinisgorrentzat!

Aitortzen det ala ere, ill biztu baten aguertutzeac sugarrez inguraturic sartuco liequetela ezurretaraño bildurric icaragarri-ena: ¿baña orregatic onbiurtuco liraque? Ez, ez liraque onduco, ala nola Saul, Samuelen aguertuteac²⁸ zaiñezurretaraño ta desmayatzerañooco birdurra sartu bazion ere, etzan orregatic onbiurtu, ez obeditu, ez Jauna[re]n aserrea samurtzeco sayatu.

[4] Ongui ezaguna da sinisgorren aberequeria ta genioa: ozta ozta aguerpená desaguertu, bereala esango luquete izan zala irudia uts uts bat, ta len baño leya ta setá gueyagorequin dudatu, ta ucatuco luquete infernuaren izatea: baño ecer ez dute balio duda-blasfemia-ta ucac, arrazoe-buru-ta centzunic erdia, desonestidade ta larreguacquin³⁹ galdu duten-enac, munduco jaquintsu guciac beti beti aitortu-ezagutu-ta iracatzi duten eguia onen beguietan.

¡Oh Jaungoico andia, cer icaragarria zeran, castigatzen dezunean sinisgorra-biotzgorra, ichutazunarequin³⁰!

Berac ez du sinistutzen infernua, ez penazco beticotazun zorigaiztocoa, conveni zaiolaco eztedilla egon, obeto berea eguiteco desordenu mota gucietan; Baña, naiz sinistu dezala, naiz ez, orregatic ezta jaincozco itza guezurtuco: Berac icusico du infernua egunen batean, aserratuco da³¹ beragan, ortzicaracquin orroa-eguingo du³², pe[c]cato videbit, esanaz: ¿nola da posible, ni becelaco christau batec despreciatu duala J[esu] Christoren errenua ta loria, munduco humequeriatic? ¡Oh, ondazun madaricatuac, ceruco ondazunac gal-erazo ziñizquidatenac! ¡Oh, amodio ta gozatazun araguizco igarocorrac, nere Jesus Jaungoicoaren gorroto beticoa ta tormentu betirauncorrac eracarri zinizquidatenac! ¡oh, emen penitencia eguiten, ta animaco estutasunaren indarrez negar-eguiten egon bearra betibetico, paenitentiam agentes, eta prae angustia spiritus gementes³³, munduan, infernuaren gañean ondo pensatu ez guendualaco!

Orain bada, N, ¿nola da posilbe ez pensatzea infernu-an? Ichutazun icusgarria da, ez pensatzea infernu-án: pensatu beragan, ta ez ari bildur izatea, da arrigarizco furia ta suira bat: ta pensatu beragan ta ari bildur izan bai, ta aleguñ guciac ez eguitea igues-eguiteco ari, da eroqueria negargarri bat. Pensatu dezagun infernu-an, ari bildur izateco; ta bildur izan daguiogun, ara ez juateco, dio San Chrisostomoc³⁴, ceren eciñ izan litequean, sugar gorigori artan benetan pensatz[e]n duan arima batec asmoartzea pecatueguiteco, ain erraz, beñtatzat. Pensamentu au da olesti bat ebaquitzen diozcana pecaturaco pausoac; graciac aurrean ipintzen dion eragozpen bat, demonio ta pasioac eraman nai duten pecatu lecura joatea eragozten diona, ta pecaturaco zabalbide guciac zarratutzen diozcan-á, ez bideeguiteco. Pensamentu onec eguiten du arimea humillago, beguiratua, zuhurrago berberagan; ta a-trebétzen naiz esatera, dio Santuac, cen, iñor ere, infernua beti gogoan daucanic, eztala juango ará, ala nola inorc ere, beti aazturic daucanec, eztion igues-eguingo ari. Bai, N, Bildur osasungarri au, ceñ, Daviden esaeran³⁵, dan jaquintazunaren asiera, da, J[esu] Christo amatzeco bide bat: bada bildur izan ezquero Juezari becela, amatzen da Ayta becela; eracusten zaizco pecatuen zauriac; escatzen zaio humillqui ayen barcacioa, ez gueyago ofenditzeco asmo sendo-zolizoli bateq[ui]n.

[5] † Nic aitortzen det, o nere Jesus ona, zu zerala eguiaz vengancen³⁶ Jaungoicoa, ta orain itzilic bazaode, ori dala zure misericordia-gatic. ¿Noiz artean baña ichodongo dezu, galdu dezatela zure artalde ta erligioa, beren burla, eraso³⁷, ta gaizqui esateac-quin? ¿Noiz artean pecatariac gloriatuco dira zure contra esanaz: irintzi dezagun justoa, bada Jaunac eztaqui, ta eztu icusten ecer³⁸? ¿Noiz artean egongo zera jaiqui bague Zu, lurra juzgatzen dezun-á, botatzeco infernura zure icen santuaren etsáy pecatari arroac? Baña ez, nere Jesus ona; oraindic ere³⁹ zagan misericordia, ceren ceren oraindanic abiatzen dira esaten Profetarequiñ: nere bicitzaren erdian juango naiz pensamentuarequin infernuco atetara; ta Jobec becela esanaz: Infernua da nere echea, ta bertan ipini det nere oea. Nere J[esu] Chris]to Jauna.

2. TESTUA

Infierno

Introduccion. ¿Infernuric bagó, galdetzen dute christau ascoc, Framas[one]n dicipulu eguiñ diranac?

Jaincoari nai leguiquiola, dio San Chrisostomoc, irtetzea infernutic condena-tu bat, gucia sugar-ez inguraturic, eta, sarturic, orraco andraqueriaco batazunetan, orraco ordiqueriaci basterretan, orraco canta-danza-jocu loiqueriaco batzarrretan, ay-oiii-ta deadar andiacquin esatea: ¿beraz infernua da, non azquena-cabu-ta muga iduqui bear duten, anditazunac-onoreac-eta ondazunac? ¿zuetatic nori irudico zaio, munduco poztazun ero burubagueai guertatuco zaietela negar samiñ garratzac? ¿nori irudico zaio, canta araguiti berdeai suertatuco zaietela inciria-orroa icaragarriac, gozaldi lizunai aguiñ orz etaco garrasiotzac, eta laguntazun gozagarriai demonioen lagunquidac, birao-desesperacio-ta erneguz naztuac?

Ala ere, eztago mirari onen premiari¹; dauzcagu Leguea ta Profetac; gueyago daná, daucagu J[esu Chris]toren² Evangelioa, non ematen digun onbiurtzeco epai bildurgarri bat esanaz: Alde nigandic, zoazte madaricatuoc betibetico surtara³, sugar gorigorira⁴, illuntazun campocoetara⁵, non engongo diran negarrac, eta ortzen irringa⁶, iNegar⁷ tristea! baña ongui merecia⁸.

Milla bider zematu degu pecataria infernuarequin, ta milla bider artu ditu gure esanac burlazat⁹, esanaz: ¿cergatic premiatzen gaituzte sinistutzera gauza batzuc, arrazoeac ucatzen dituan-ác? ¿eztauzca bicitza onec pena eguiazcoric asco, or ibilli bague turbatzen jendea oraindic ere, bildur alperricacoa[ui]n-icara guezurrezcoaq[ui]n-ta icusqueta despreciagarriquin?

Au gucia ta gueyago ere esan dute christau ascoc, Framasonen escolauac, igaroco constitucio egunetan: baña nai baldin badute icasi borondate onaz, iracori bitzate gure liburu santuac, gogoartu¹⁰ bitzate arduraz, galde bezaiote beren arrazoeari, baita beren biotzari, ta gauza oiec gucioc eranzungo diete, cen, alperri-caco itzaldi, infernucio penaen eguia ta beticotazunaren contra asmatzen dituzten-ac, bacarric dirala balio guchico argüimendu batzuc, ceiñ Espiritu santuac lotsatu¹¹ dituan bere Igarleen aoz bi milla urte ta gueyago igaro dan oetan, ta ceiñ nic ere oraiñ aguereracico dedan daodela lotsaturic arrazoe ta Escritura sagradu-etic, esanaz puntu bacar onetan:

Punto. Infernua bai dagó, gucia suturic, inoiz ere cabutuco eztiran pena gogorracquin.

[2] Au da eguia bat, J[esu Chris]toc¹² infernuari eman cion icenac, eta norberaren arraz[oea]c aguererac[itze]n dutená. J[esu] Christo da lenbicicoa, infernuari deitu zioná “Geheénna”, dio San Geronimoc. Icen au Euscaldun labort-arrac bere itz-eran, beste moduz arnasa-eguiten ta ebasten du, esanaz: ē Gèнна, au da, eXe, eXetu, iXio; esan nau du, eXehénna, eXetuená: Ta onela dio J[esu] C[hristo]c lurbarrucio ondalecu ari; Arrazoeac, ceren, esperenciaz daquigu guc ere, lurpean daodela lecu batzuc¹³, a-súbrez-azoguez-cillar biciz, eXe-iXio-irazequiatic; lecu ceiñtzuc, idiquipena aoa¹⁴ daucaten-ác, botatzen dituzte campora sugarrac auts, ta queé mémeac, icusten dan becela Bésúbioco ta Enáoco¹⁵ mendietan, eta campora errebesatzeco zabalpenic eztaucaten-ác, estanda-lér-ta zart eguiten dúte lurpean, nondic datocen luricarac, icusi dan bezela, oraiñdic urte asco eztala, San Joserén egunean Españan, Calaurra, ta beste erri ascotan.

Eguia onetan cimendaturic, arrazoeac¹⁶ ateratzen ditu bere contuac, eta esaten dú: culparic bat ere ezta gueldituco castigu bague; beraz aitortu bear da, justicia-zuzentazun-ta ongui eguina dala, eGehenna pena eXetu-iXio-iracequi ayen beticotazuna.

Eguia esateco, bicieracitzen digun arimeac batetic, eguin gaituan ta iraunera-citzen gaituan jaincozco¹⁷ zuzentazun ta providenciatic bestetic, ta pecatuari lagun-tzen dioten biotzaguincadac azquenic; onec gucionec ezagueracitzen du beguiar-guiró premia bat, castigulecu batena, Jaunac gordebereturic daucan-á, castigatzeco pecatariac euren esaneguien eran.

Icasbide andi bat ipintzen dute gay onetan Theologo¹⁸ guciac, beren Maiss[u] S[an]to Thom[ase]q[ui]n esanaz: contaeciñgarriac izan arren condenatuen penac, ala ere, bitan zarratuzten dirala, ta deitzen dirala pena caltecoa ta pena sentidu-coa. Pena caltecoa dago, Jaungoicoa ez inoiz icuste-an, bere erri cerucotic betico deserrituric egotean, on suerte guctic baguetua izate-an: ta pena sentiducoa da, araco, ceñagatic condenatuaren gorputza ta sentidu guciac diran betico tormenta-tuac, suarequin. Pena bi oiec datozque, pecatuac sortuzten dituan desordenu biri; ta dira, desprecio lotsabaguea, guizonac bere Eguilleari¹⁹ eguin dioná; ta amodio desordenatu desuzena, criaturari iduqui dion-á.

Onez gañera, Theologo guciac San Agustin ta S[an]to Thomas escoletaco Maissu[a]q[ui]n esaten dute: infernuco pena sentigarri guciatic andiena dala duda bague, suac ematen duan-á; su au ezala irudigarria, baicic[a]n eguiaczo ta izatezcoa, gorputz ta anima berdiñ erret[ze]n dituana; ta ausardia andi bat bague ecin ucatu litequeala eguia bat, ain arguiró Escriturac eta Evangelioac esaná, ain irmé Elizaco gurasoac escudatua, ta ain sendo munduac sinistua.

¿Ondo ezagutzen degu menturaz su onen bicitazuna, ta lureco elementu au, ain gogorra ta eramaneciña daná, infernucoaren parean, Escriturac dionez, anz erbal bat baño ezta-a?

[3] Ongui esaten dute bada Theologoac, cen infernuan condenatua tormenta-zen duan suac, bere laná eguiten ta obratzen duala eguiac ta izatez bere arimearen gañean; ¿ta nola da au?

1.º Ceren Jaungoicoac prestatzen du arimea zabalduaz gaytazun, padecitze-co berac daucan-á:

2.º Ceren bere aháltazunac altchatzen du suaren indarrá izateraño gay, eguiteco arimetan minic²⁹ samiñena; bi modu oiec dira miragarriac, ez guchiago ciertoac, miris sed veris modis, dio S[a]n Agustinec²¹, au da, suác, mirarizco baña eguiaczo moduaquin eguiten duala bere eguitecoa arimen gañean.

Au berá iracazten²² digu Espiritu santuac, esaten duanean, ecen, suac, criatu-ra dan aldetic, obeditzen diola bere Eguillearen borondateari; ta aserratzen ta iracequitzen dala eciñ gueyagoan pecatariaren contra, nor bear duan castigatú²³. Ta emendic valiatu ziran Theologoac, azaltzeco arguitazun gueyagorequin, ipiñi ziotenean su ari icen berri bat, au da, potencia obedillea, ceñ dan bicia-lasterra-ta presta suaren aldetic, ta padecicoyá, icututzen dion animaren aldetic.

Ucututzen²⁴ dio bada sú arec arimeari, sinisgorrac eguia icaragarri au sinistu nai ez arren:

ceren, San Gregorioc dionez²⁵, sú icusgarritic bere ondoren dator bero irazequi ta miñ ezicusgarri bat, onela, su gorputzdunaren bidez anima gorputzbaguea ere sugar gorputzdunareq[ui]n tormenta didin.

ceren, Sutil Doctor Escotoc inorc baño obeto dionez, nola gorputz onezaz inguraturic egoteac sortutz[e]n diozcan arimeari pozaldi edo penac, ala suaren elementu billau arzaz inguraturic egon bearrac ceren sortutzen diozcan suzco arrabio ta erretazun portitz-énac.

Ceren San Agustinec dionez, suaren arimeari icututze au alá dan, aditu eziñ badegu ere, ala nola arimagorputz-en²⁷ batutazuna ala eguia dan, nola dan, ezagutu eciñ badegu ere.

Eguia au illundu nai dute ala ere oraiño biotzgororrecoac-sinisgorrac-eta Framasonac, ontzat eta oiñean iduquitzeco beren desoneztidadeac-lapurretac-edoceiñ modutaco lasaitazunac, onetaraco asmatutzen²⁸ dituztela aitzaquia-escupeda²⁹-ta iguesinguru asco, ceiñ ateraco ditudan arguitara³⁰, aitortu dezazuten dira-la, arrazoe-buru-ta centzunbagueac.

3. TESTUA

Inmortalidad de la alma

Introduccion. Con estos pocos renglones, se saltara al primer parrafo de la buelta¹.

N: Gure Erregue Jaunac aguintzen digu predicatu dezagula arimearen ille-ciñtazunaren gañ[ea]n ceren dion, fedeco cimenduric sendoena dan² onen contra zabaldu dirala icasbide galgariac, igaroco guerrataco urte negargarrietan, fede ceña ucatzetic datorren, beste articulu guciac lur jotzea. Nic badaquit, nere euscaldun maiteen artean eztala aurquitzen casta onetaco pecatariric, ceren fedeco gauzatan beti diran christau zaar, sendoac; eta munduaren lau aldetaco gendeac, ezjaquiñac izan arren, erligio guezurrezcoac eguiazcotzat iduqui arren, baña animaren illeciñtazuna, sinisquera sagradutzat beti iduquiric: ¿galdetzen det, ote daode asco ta asco Ezpaña barruan ere, ezsinsicorrác, impio-biotzgororreco-fracmas[o]n direztenac? bai badaode; ongui arguiro aditzera eman duten becela³ beren pensatzeco modua, beren liburu ta esan-eguinacquin: bada Española diru ederren costura arrotzen liburu ziquiñac ona ecarriric, eta ayetan icasbide galgariac icasiric, eztira lotzatu esate-az: “eztago bicitza guerocoric, ez etorquizunic, eriotzarequin cabutzen da gucia; ere esanaz, contuac eta ipuiñac dirala, Sacerdoteac asmatuac, gendeac bildultzeco, ta bildur onen bidez ayec menpetu, ta sacramentu ta Elizaco cer-emonia utz batzuquin pecatuac barcatuco diezabela guezurrez irudituric, onela guero poliqui poliqui ta itzill itzillic ayen odola chupatzeco; ere esanaz, errico izainac-lapac-ondaquinac becela, argatic, amarrenbagueu-togoseu-ill bear dirala, zeuroc zer[a]t[e]n becela Testigú”.

Onelako sinisquera galgarri ta guezurrezcoac zabaldu dituzte gau ta egun, beren andraguela, ardanguela, ta batzerretaco baster gucietan, intencio galduz beteric, [J]esu [C]hristoren erligioa ta Erregueen tronuac mundutic⁴ quentzeco, ta oien ordez Framasonen legue ziquiña zuti ipintzeco; onen menpean gendeac obeto aurquituco dirala⁵ esanic, ta poztazun guezurrezco onequin ayec engañaturic-eztituristic-zoraturic, guero eurac, aguintariburu paratu, erreñuco armac eta ondazunac beretu, gendeac menpetu, ta naturaleza lizunaren desordenu ta libertadean bicitzeco.

Guerta eztedin bada onelaco negargarriric, ez guizonezco odola berriro botazteric, asmo-eguin det ipintzeá osagarri[tza]t gucien aurrean fedeco eguia bat, naturaleza berac ta arrazoeac ere aitortutzen duten-á, gay onetan gaizto diranac ondutzeco, ta on diranac obetutzeco, puntu bacar batean ezanaz onela:

Punto. Gure arimea da ezillgarria, illezcorrá edo, iñoiz ere illeciña.

[2] Punto onen prueba, edo, ezagungarriraco, jaquiñ bear degu lenbico lecuan, ecen, icen oiec, “arimea, álma, izpiritua”, eusquera garbi garbiac izanic, ardura ta arreta andi batequin ipiñi zizcoela gure izate arrazoedunari antzínaco euscaldun, erdaldun beste guciac baño filosofo jaquitunagoac; badá “arimea” deitu zioten iru emacuméc, araco, batac liñoa apaindu, besteac arimetu eta meémeé ardazquetu, ta besteac arilldu zutenean, aditzera emanaz onetan, iru persona jaincozcoac⁶ eguin zutela beren irudia ta semeanz-era gure arimea, iru ayéc eguin zuten ari hura baño neurribague méméago-piñpiñago-utsutsago, antzínaco euscaldunen canta ta ipuiñ-etatic ongui daquigun becela: “alma” deitu zioten beste batzúc, au da, *ál*, edo, ahál izate, *má*, edo mea ta gorputzbaguea: “espiritua” deit[u] zioten beste batzúc, au da, *espi*, edo izpia, *iritua*, edo gure gorputzeco iri-uri-echean bicilecutua: ta “espiritua” deitzen badá, esan nai du, dala espia bat, esan ta eguin bear ditugun edo ez ditugun gauzatan, betibeti irritu, beti aguiracari, beti alacá, barruan dagoquiguná.

Icen oiequin mundu jayo berritic euscaldun jaquitunac ezagutu ta onrratu zuten gure arimearen izate noble icen andicoa, [señalé, ceruco aguerpenez icasi zutela Erligio eguiazcoa]; inoizco demboran gendeac hurá desezagutu-desonrratu ez zezaten⁷ beren becatu, gaiztaqueri, ta desordenuacquin; ta hura nahastu ez zezaten abereen arimearequin, eguin nairic anima gurea ayenarequin bapat-anzeco-ta gorputzdun.

Emendic atera ditzagun arrazoe indar andico batzúc, inorc ere ucatu eciñ ditzaquean-ác: naiz dalá filosofo, edo, jaquituna; naiz dala sinisgor, edo, sinisteric nai eztuana; naiz dala basotar, edo, basoan bacarric acitacoa; arguitazunic andienarequin esanaz guciai onela:

Gure arimeac pensatzen dú; beraz gure arimea da espiritua. Emen cimenda-t[ur]ic goacen aurr[er]a.

Gure arimea da aditzallea-gogotzallea-pensatzallea; aditzeá-gogotzeá-pensatzeá, eguiteco edo eguinbide au, eciñ sortu liteque ezpada izate espirituzco batetic: Etá, emendic aguertzen da arguiró, eztauca-la nahazteric bat ere, izate gorputzdu-

na dan gauzacho ere batez; ta emendic ateratzen ere da, cen, izate aditzallea, edo, arimea, banatu-bestetu-diferenciatzen⁸ dala izate gorputzdun-etic: beraz, bata galtzen dala-tic, eztá beraz edo ondorea ateratzen, galtzen ere dala bestea: Izate gorputzduna izategaltzen da, ascaturzen dalaco zati-tan, edo, zatitzen dalaco; izate aditzallea, edo, arimea, ceñac eztaucan zatiric, ezta ascaturzen zati-tan, eta, eciñ zatitu liteque, zatiric eztaucalaco: beraz au iñolaco ere moduz eztá izategaltzen; beraz dá, iñoiz ere illeciña. Ta oná emen, arrazoe bat, esandaco puntua⁹ azaltze-co, berau bacarric asco dan-á; ta munduaren asieratic onaco guizon zentzundu-néc aitortu bai, baña ucá ta contra eciñ eguingo dion-á.

[3] Ipiñi dezagun beste arrazoe bat, esanaz: ala batá, nola bestea, eztirala biurtzen ecerecerá. Ta eguiaz: eriotzac aldendutzen du arimea gorputz-etic; baña, batu bat edo compondu bat eguiten duten zati biren aldendutzeá, eztá beren ecerezututzea-ecerecerá biurt¹⁰-izatea galtzea: ¿cer da badá? ez besteric, ezpada, len baturic zeodetenian, batu edo compondu onec zeucan anzá, echura-irudia-tajua, ordezco, ta azalecoac galdu bai, baña izateac, lengoac guelditzea; Ta ala, gorputza guelditzen da, izatez len zaná, au da, lur; ta arimea guelditzen da, izatez len zaná, au da, espiritu. Naturalezac, eztú ecercho ere baguetic-eguiten, ez eta ecerecerá biurtzen: eztaqui, ta ez ere dezaque beste gauzaric, ezpada, batú, aldendu, besterátú, edo, beste erá ta irudia bat eman, lotuaz¹¹ ta ascatuaz lau elementuac, oiec ecereztu bagué, zati eguinaz; ala nola suac eztan ecereztutzen, erretzen duan egurrá, bai zatitzen, auts biurtuaz. Naturalezac, beñ izatea iduquitzera eldu zan-ác, irauñ bear du betibeti, aric eta Eguilleac ecereztu dezan artean, fisicaco erreguelaen eran: baldin Eguilleac autortu, edo, ematen badie elementu ta izate gorputzdunai betibetico iraupen naturala, ¿ucatuco die au izate espiritu-dunai?: baldin gaya, edo gueya, erderaz materia deitzen dan-á, badá betibeticoa: beraz, arrazoe gueyagorequin betibeticoa, espitirua.

Onez gañera, gure arimeac dauzca idea, gaytazun, ta gura andi, berarequin jayoac, bere azqueneco azquena ta espirituzcoa betibeti gozatzeco. Ta eguiaz: gure arimeac dauca gaytazun, berequin jayoa, bere centro ta Ontazun gozatzeco: gaytazunac edoceiñ ere criaturatan aditzera ematen du bere izatea: beraz, baldin gure arimeac badauca gaytazun berequin jayoa, gozatzeco Ontazun nagusi betibeticoa, bere izatea ere izan bear da betibeticoa; ceren bestela, alper ta lotsagarria izango litzaque Eguillearentzat, bera gozatzeco, gura ta gaytazun betibeticoac arimeari eman bai, ta izate betibeticoa ez emateá. Ala badá, gurá, edo, naitazun, ez-illcorra izateco arimeac daucan-ác, aguereracitzen digu, batetic bere izate beticoa, bestetic bere gaytazun barrucoa, gaytazun beticoa gozatzeco daucan-á: Ta orregatic, esateracó, edoceiñ ere aberé, guizonen erregue izateco gay eztan-á, ciur da, ez ere dala gay, guizonezco erreñua gurá, edo, nai izateco; badá, alaco guraric baleuca, dudabague naturalezac etzuan eguingo gauz-etzá izatez, hura ál-gaiñ-zá-tzeco. Onez gañera, munduco ondazun cabudun ta galcor guciguciatic eztira asco, arimean ichtizen duten utsuné, edo, errayarteá betetzeco; beraz, on, edo, ondazun cabubaguea da, bete bear dituan-á, bere errayarte ta gura asebeté-eciñac: Gurá asebeté-eciñacquin eztago paqueric ez zorionic, ezpada eciñegoná ta zorigaiztoa, gozatu artean on, edo, ondazun cabubaguea; beraz, gurá asebeté-eciñac, illeciñtazunaren gañean arimeac dauzcan-ác, dira senale ciur-ciurrac,

aditzen ematen dutenac, gaytazuna daucala, hurá gozatzeco. Itz batean, illeciñta-zuna da cabubagueco On bat, eciñ ezagutu liteque, hurá guratu bague: baldin arimeac hurá ezagutzen badu, premiaz hura gura dú: gura badú, premiaz da, hurá algañzatzeco gay; beraz, gaytazun au, dá, izate bere berea.

[4] Ucatu eciñ ere liteque, gure arimeac daucala ezauera arguia ta libertade osoá, nai duaná, eguiteco edo ez eguit[e]co. Ta eguiatz: ezauera-argui zuzi-candela jaincozco, beti iracequi au, dá, aráco concienciaco iritzia deitz[e]n diogun-á, Jaunac cilluz moldeztua, ceñec agueracitzen digun eguitada gucietan, dagoan ontazun edo malicia: libertadea berriz da ahaltazun eta escubide bat, daucaguná, ezitzeco gure griña char ta zaletazunac, ta ecarteco arrazoearen menpera gure aserre, edo, eci-gaitza, Jaunac aguertu digun becela: “sub te erit a[p]petitus, Gen. 4”.

Ezauera ta libertade au palta zaielaco abereai, beren eguitadac dira beti erabatecoac, eta onetan ezaguteracitzen digute, euracgan dagoala obratzeco asiera edo legue bat, premiaz premiazcoa, naita ez erasotzen ditena; ta orregatic, accio char lotzagarrizco bat eguin arren gure aurrean, ala ere, ezтира lotsatzen-damutz[e]n-bildur[tze]n. Baña ezauera-arguizuzi-&^a, gurequin jayo onec argueguiten digu ezagutzeco ona ta charra beguiz icusi-ecinac izan arren ere; ta onez gañera, sortutzen ditu gugan eguicunde, edo, ecandu miragarriac, nola poza, tristura, &^a, lotzari-damu-ta bildurra.

Ta emendic dator araco bildurrá, guizon biotzgorreco batec daucan-á, ceñec ez tuan nai, ezcutuan eguin duan gaiztaqueria bat, inorc jaquiñ daguion; ta contrara, emendic dator araco paque ta poz gozo-gozoa, guizon justu batec daucan-á, creitu baguetua-perseguitua-ta deserritua izan arren: birai concienciac sartzen die, batari penaren bildurra, &^a. Ucatueciñac izanic guizonezco gogo, edo, biotzicututze oiec, ¿cergatic, galdetzen det, cergatic guizon, ezcutuan gaztaqueria¹² eguiten duan-a, da bere pe[catuen] bild[ur] ta on estaldua eguiten duanac, ichodotz[e]n du beti bere saria? ¿Cer bildur dira auéc, inorc icusi ez jaqu[ín] arre]n¹³, [ditua]lla eriotza, edo, &^a, edo beste charqueria bat-egatic? ¿Cer ichodomen, edo, esperanza da au, on eguin [ba]tec¹⁴ daucana, ceñ, ezcutuan eguina izanic, dan, ezpalitza becela? ¿cer azquen daucate azqenic gauza contrari oiec; au da, char eguinac bildurtzea-estutzea-larritzea, ta oneguina? &^a.

¿Baldin guizona bada oso-oso librea, concienciaren contra eguiteco edo ez eguiteco; cergatic ezta librea bere deadarrac ez enzuteco? ¿Baldin bada librea, ona edo charra eguiteco; cergatic da erazoa edo premiatua, ona ontzat, eta charrá chartzat ezagutzeco?

Beraz, gogo contrari oiec aditzera ematen dute dagoala gugan izate espirituzco bat, Jaunac eguina, norc pagatuco duan ona, ta castigatuco charra. AVE Maria.

Au gucia onela izan arren, ala ere, argüitzen dute gaiztoac, ezanaz: gure arimea dala arnasa bat.

[5] Eranzuten zaie, eciñ izan litequeala; ceren, lenbicico lecuan, baldin galdezen badiogu arrazoeari arima onen izatearen¹⁵ gañean, lengoaz gañera eranzungo

digu, cen, anima au, gugan aditzen duaná-gogoatzen duaná-pensatzen duaná, asmatzen ta uste izaten duan-á, poztutzen ta larritzen dan-á, bildurtzen dana ta naitatzen duaná: itz batean esateco, adimentua-gogoa-centzuná, poztazuna ta tristura, bildurra, ta naitazuna, gauza gucioquin conturatzen gaitu arrazoeac, arimau ecin izan litequeala arnaza ez baoa bat, barrutic irten ta quea edo laiñoa becela deseguiten dan-á; ez auts zatibat, aiceac desaguertz[e]n duana; ez eta, elá ta lausoen eoa bat, euleac aria batutzen duan becela, ustecabeac batua, ta bere naira banatua: arrazoe berac¹⁶ sentieracitzen¹⁷ digu, araguiac ta odolac, eciñ littequeala marcatzea gure biotzetan amar mandamentuac, ez eguiaren misterio sagraduac, ez eta zuzentazunaren erreguela santuac, marcatuac daoden becela berez gure sortutzetic. Adimentu laburreco batec ere eztu naico sinistu, nola izan litequean egotea guizon ain burujausiac, arrazoearen abo-ozá ito nai luqueten-ac, izanic eguia, onec diola: arimea dala izate espirituzcoa, eztagoala iñor, escuac ezarri ta ill dezaqueanic; ta gorputzetic irtetze-an, bearco duala, edo batutu Jaungoicoareq[ui]n, edo aldendua izan beragandic; ceñ gozatzea, dan betico zoriona, ta ceñ galtzea, betico zorigaiztoa.

Argüitzen ere dute esanaz: gure arimea ecereztu, &.ª dala; ta au asco dala, Jaungoicoac onaren eta gaiz[oare]n venganza artzeco.

Eranzuten zaie, eciñ izan litequeala; ceren arrazoeac dion, cen, arimearen ecereztute au erorico litzaqueala berdin berdiñ onaren ta gaiztoaren gañean, ta orduan ¿cer castigu andiagoa sufrutuco luque errudunac errubagueac baño?. Beste aldetic, ecerecera¹⁸ biurtzeac ez luque ichico ezagueraric-centzunic-ez sentiduric; ¿ta nola ecerecera biurtze au izan liteque tormentu bat, Jaunac venganza artzeco?: Azquenic, ecerecera biurtze au da, egungo biotzgogorreco-gaizto-ta lasaiac gueyen maitatzen ta naitatzen duten gauzá; ecerchori ere ez diote aimbat bildur nola bicitza guero-coari, ill ezquero ere, bici bearrari; ta baldin eurac gozatu ta paquetutzen badira beren desordenuetan, bacarric da, betico illico dirala uste duten esperanza eró ta icaragarriarequin. io, nere Jaungoicoa! ita ez dituzun-á castigatuco gaiztoac, ezpada beteaz beren gura ta naitazun-en neurri osoa!

Baldin ona eguiteac eta charra eguiteac ezpaleucate beste beguiaurreco ta beguiragarriric, bicitza oraiño au baño, ¿nolacoa izango litzaque naturalezaco ondazunen Emallearen providencia, baldin, emanaz¹⁹, gaizqui usatzen dituzten gaiztoai ugari, ta ongui usatzen dituzten justuai negarrezco ogui bat ere urri, baldin, diot, eguingo balú erortea intzá bere icen santuaren etsayen gañera, ta bere serbitzari leyalentzat izatea, cerua, burniazcoa; lurra, zequená; ta naturaleza gucia, sentiezarria, sorra-gorra-ta cordebaguea?

[6] Baldin arimea bada illgarria, ¿cer gayon ta ongarri dacar, birtutearen bide penazcoetan necatutze-ác²⁰?

Baldin ezpadago beste bicitza guero-coric, bildurti ta biotz chiquiaren jabe izatea dá, ez ostutzea adisquideari²¹-anayari-lagun urrecoari, bere ondazunac, bere diñadeac, bere emaztea: ollo izatea da, ez burruca²² eguitea, ez venganza artzea, ez cuchilladaz-maquilladaz-venenoz bicitza quentzea: lala gatzbagueco izatea da, ez nai dan gucia esanta eguia²³, mundutic juan ziran ayta baten-ama baten-emazte baten gomuta eguitea²⁴, beren azqueneco borondateac betetzea; baldin au gucia ta gueyago ere eguin al baliteque castiguaren bildurbague, norberac badu onetan gozaldi-placer-ta poz. Onela, biotzeco gogoargui, gurequin jayoac,

eta munduaren asieratic onerañoco Naciño gucien legue sagraduenac, ezтира besteric ezpada humechoen ipuiñaldi-eciñquizun-ta zolasac; ta azquenic, bicitza onen ondoren ezpadago cer bildurtu, ez cer ichodon, gure arrazoea aurkitzen da bide-galduric, guizartean bacarric aguintzen du desordenuac, birtuteari equitea da choraqueria ta utzirudi bat, ta providencia da bidebaguea.

Argüitzen dute azquenic esanaz: gure arimeac eztaucala idea &.^a, baicic[a]n, ala nola abere batzuc diran beste batzuc baño arguiago ta zoliago, beren gorputzaldeac diralaco osobeteago, ala gugan ere, gorputzeco tallu on batetic datocen perfeccioac dirala.

Eranzuten zaie, eciñ izan litequeala; ceren, arrazoeac esaten digu, cen, ori ala balitza, animalia batzuc, guizonezco gorputzaren anz ain andi ta berdiña daucaten-ác, berdin berdiñ iduquico lituzquetela idea &.^a, berequin jayoac.

Animalia batzuc daodela, daquigu, ala lurreco nola ichasocoen artean, guizon ta andre diruditen-ác, beren tallu-tajú, ta gorputz alde gucietan: lurrecoen artean daode chimio casta batzuc, gure tercijo tercijocoac American, motivo augatic ango gendeac “basaguizon” deitzen dieten-ác; uretacoen artean daode arraiñ mota batzuc, gure chit anzberdiñecoac African, Zambre Congo icen onetaco ichas-basterrean, “igárimar-uguermarrac” deitzen dieten-ac; baña gorputzeco perfeccio orrezaz guciáz ere, ezтира beste animalien aguintari, ez escolau, ezpada besteac bezaiñ mutú, edo mutuagoac: Ta emendic ezagutzen du guizonac, cen, bera ere ez litzaqueala²⁵ izango ayec baño nagusiago, baldin balitzaque antzeco beren arimean, nola dan gorputzean; ta ezagutzen ere du, bere arimearen ideac-gatic &.^a, ezta la gorputzean baño ayen anzeco.

[7] Baña, ¿nondic[a]n datozquite oraiño gaiztoai onelaco dudac asmatzea, ezpada beren pecatutic? Da bada eguia ucacingarri bat, ecen, pecatua biotz barruan daraman-ác, ere daramala berarequin icara-bildurra-turbacioa: pecatu bat eguiten duan-ác, bereala sentitzen du bere biotz barrumbean antsia bat, pena bat, eta odeicho batzuc zabaltzen diran-ac bere arimearen gañean; ta bere damuz dala ere, naita ez dator egotera catibaturic, eciñ egonic, turbaturic, eta tristeturic; eta orduan guertatzen da ascotan billatzen dituala dudac, paquean jartzeco: ceren, jaquiñ bear dezute, cen, bacarric macurtzen dala dudatze-rá, bere obligacioetatic aldendutzen abiatzen dan-á: evangelio santua ez dator izatera suzpitZagarria abiatu arteraño izaten gogaitcarria: ez dezute icusico batere guizonic, justua, jaquintsua, oitura zuzenecoa, gogourritua, ta batez ere garbicastoa izan, da, fedean ontzizgaldu-eguiteco tentatua izan ditequeanic; bacarric gogo aragui-zalea, ta gozatzun araguizcoa da, creitua quentzendum-á²⁶ gure erligioco gauza altu ta santuai; biotzeco jaiquera ta griña lotzagarrienac eguiten dute aberetarra arimea, ta illundutzen²⁷ dute arrazoea. Guizon abereac ez ditu ondo aditzen gauza jaincozcoac, dio San Pauloc, 1. Corinth[jos] 2: Ez dezute icusico batere libertinoric, bere biotzeco lizuntazuna-gatic²⁸, buruausten-caltetutzen-descalabratzen abiatu eztanic, bada bacarric naitatzen dute dudatzea paquetutzeco biotzburuac beren desordenuetan, baña alperric; ceren Jaunac baimendutzen du pecataria izan dedilla perseguitua pecatu bere bere-gatic; bere concienciaco aguiñcada beti daode bicibici; indareguin arren ere, ayec itó edo osatutzeco; ta indareguita oiec dira ascotan ain bici ta portitzac, nonda, azquenic dacarten bat desesperaciara: ¿Ta cer esaten digute aguiñcada ain samiñ oiec, sentitzera naturalezac beartzen gaituana-?; ¿cer berri-ematen digute biotzaren ustecabeco icarac, bildurrac, turbacioac,

ezpada illeciña, dala gure arimea, ta ere dagoala Jaungoico vengatzalle bat, noren justiciari bear zaion bildur izan?; bada eguiten ezpadu justicia beti bicitza onetan, ori da, dalaco betibeticoa ta guciz alduna; Ta ala, beticoa dan aldetic, eztago beretzat beranduric, eta guciz alduna dan aldetic, iñorc ere eciñ igues-eguiñ lezaque bere justiciatic.

Orañ badá, ô Framason gaiztoac, arimea betico izatearen gañean, ala nola Jaungoicoa izatearen gañean, ta J[esu Chris]toren erreligio eguiazcoaren gañean, beti argumentu modu batzuc ipiñi oi dituzuten-ác.

[8] Aditu dituzute gure arrazoe indar andicoac, baita guc ere aditu ditugu zuen argüimendu irudipeneco, edo diruditenac; ceñ, daquigun, icasi ta atera dituzutela, “Sistema de la naturaleza” deitzen dan liburu ziquiñ batetic, ceñ munduco Naciño guciguciac daucaten iracurtea eragotziric, arrazoeaz, ceren iracazten duben, guizonac eta abereac dirala semeanzecoac arimean, dirala cerbait desberdiñac gorputzean, baña beti bapat eriotzan; iracazte ceña sinistutzetic etorrico litzaquean, erreñuetan, ez erreligioric-ez legueric-ez ordenuric egotea, indar-dunagoac berea eguitea, aberetzar ta arraintzarrac chiquiagooquin eguiten duten becela, guc ere alcar ill, ta jatea, igaroco urteetan icusi degun becela.

Eguizute oraiñ contu, ta duaric demagun, gure ta zuen arrazoeac dirala indar berdiñecoac gay onetan: Icasi bear dezute baña, ondoreac eztirala berdinarac; ceren bataren sinistecac dacarren betico zoriona, ta bestearen[a]c &.^a:

Ondu zaitezte bada, eztalaco chanchaco gauza, ez bi aldiz erratu litequean eguitecoa, ez eta dudatan ibilltzeco gaya; ceren, dudac nai diranian edoceñ ere gauzaren gañian, orduan prudenciatic esaten du jarraitzeco seguruagoari: Seguruago da²⁹ dudabague jarraitzea J[esu Chris]tori, bere erligio ta evangelio santuari, non iracazten duben, arimea dala illeciña, ta bildur diozagula, gorputz da arima infernura bota gaitzaqueanari. Orañ bada, ¿cer calteac ez dacazqui edocententzat, perseguitzeac [Chris]tori? ez guchiago ezpada condenacioa. Onda bedi bada len bait len esandaco liburua, ceñ Españatar batec etzuan iduqui lotzaric ecarteco amazapi milla errealen costura beste erreñu batetic: Iracorri bedi Escrit[ur]a sagr[adu]a, ondugaitecen: Ta orain, Urreratu gaitecen J[esu Chris]togana

4. TESTUA

Obligacion de confesar

Introduccion.

Punto.

Baldin escritura sagradua ondo iracurri ta considera badezagu, aurquituco degu, eztala egundaño iñor salbatu ta ez salbatuco ere, aldez edo moldez, nolabait, confesatu bagué. Egundainoz gueroz, legue gucietan, eta guizaldi gucie-

tan, usatu da ta usatzen da confesatzea: ez ordea, berdiñ. Legue naturaleco confesatzea, oraiño confesatzearen itzala becela zan: orducoa zan, oraingoaren señaie bat, irudia-figura-ta significantza bat.

Legue naturalean asco zan, biotzeco damutazun batequin, eta norberari bere gogoac bere barrumbean esaten zion campoco señaieren batequin, contu dezagun, begui altchatze batequin, edo, belaunicatze batequin, Jaungoicoari berari confesatzea, ta barcacio escatzea... Deitu zuan Jaungoico Jaunac Adan, eta galdeguin zuan, ¿ea non zan? vocavit Dominus Adam, et dixit, ubi es? Eta galdeguite hura etzuan ez eguin jaquin baguez, baicic[a]n alatan bere becatua ezagutu zezan, eta ezaguturic, confesa zezan amore-gatic: eta ceren etzuan bear zan bidean confesatu, baña bai ceren edertu nai izatu zuan, esaten¹ zuala, cen, bere emazteac eraguin ziocala, alatan, escusa chiqui bat bada ere, bildurraren bildurrac erazo zion-á, aibat calte ta damu artu zuan.

Modu berean iracurtzen da, galdeguin ziola Caini ere, bere anaya Abel ill zuanean, ¿non da zure anaya Abel? ubi est Abel frater tuus? ¿Eta cergatic galdeguin zion onela? bere becatua gogora zezan, eta gogoraturic, confesa zezan-gatic: eta ceren etzuan Adanec becela nolabait ere confesatu, bana bai ceren zuan guciz ucatu, alatan, ain on bear ta erruquigarri eguin zán; eta mundutic erbestetua ibiliric, azquenean condenatu zan. Bada Adan eta Cain ere legue naturalean ziran, gendeac bere naturalezaren eran, itzquiribituzco quin², edo, quidaric-gui-aric-lagunic, eta eracusleric ere bague, bicitzen ziran demboran. Baña, ceren naturaleza berac ere eracusten bai du, bear dala bici arrazoiaren bicia³, gaizqui eguitea utciric, laincoarequin ondo iduqui, ta ari bere faltac airtortu; alatan, etzan legue naturalean ere, cerbait moduz, gogoz, eta biotzez beintzat, cerbait señaierequin confesatu bague, iñor salbatzen. Beraz &. ³ del punto. Eguia da, etzan oraindic orduan, confesatzeco ceremonia señaleturic. “Ala dio Santo Thomas, escoletaco Eracusle aingueruzcoac⁴: Asco zan, dio, barreneco damua; ta damu hura, norberari bere baithan, edo, biotzeco gogoargui santuan iruditzen zitzacan, campoco señaieren batzucquin aguertzea ta adieracitzea: etzan oraindic orduan, dio Santuac, beste confesatze moduric, eta ez erremedio itzquiribituz ezarriric eta ipiñiric”.

Baña gueró, mundua apur bat aurrerago igaró zanean, legue naturaletic legue izcribitura, au da, Moisesen demborara eldu zanean, asi zan usatzen beste confesatze modu bat. Etzan ya orduan asco, norberac bere barreneco damua, poza zuan señaiearequin campoan aguertzea: baña bear zuan, barreneco damu hura, cenbait ofrendaz ta sacrificioz, ta ez, ceñezaz nai zana, ezpada artaco esquiribituz ordenaturic zeodecenaz, declaratu ta eman aditzera.

[2] Baciran legue zahar esquiribituan sacerdotiac, eta temploco cargu-dunac. Eta persona batec becatu bat eguiten zuanean, bear zuan, becatu hura-gatic, damutazun batequin, ta gueyago ez eguiteco borondatearequin, sacerdote ayen aurrean eguin ofrenda ta sacrificioen bat, eta artan eman aditzera, becatari zala. Ala aguintzen za Leviticoaren capitulu batzuetan⁵. Etzan oraindic orduan, oraiñ dan becela, iñori bere gañera ezarri bere becatuac confesatzeco aguinduric ez obligatoric, ez eta, nola-noiz-eta ceibat eguin zituan, esateco premiariac. Asco zan orduan, damutazun batequin, legueac aguintzen zituan ofrenda ta sacrificioac

eguitea. Hura zan, orduco confesatzte modua. Erregue David-ec besteren emaztearequin becatu eguin zuanean, eta becatu hura estaltzea-gatic, emazte aren senarra ill eraci zuanean, esaten du Glosac, au da, nire habituco⁶ Eracusle famatu Nicolao Lyrac⁷, aren gañean esanaz: “Erregue Davidec, ahalquez-lotsaz-ta bere burua ez nabarbendutzeagatic, utzten zituan eguin bague, aren becatuentzat ordenaturic zeuden sacrificioac; eta etzitian beiñ ere eguin, aric eta Nathan Profeta, mechatzera-zematzera-ta eranzute eguitera etorri zequidion arteraño: baña bai orduan, lotsa garaituric, eguin zituan, bear ziran ofrenda ta sacrificio guciac, eta guero ayecquin batean alcanzatu⁸ zuan barcacioa; ceren orduan ere, legue zahar escriptuan ere, eguin bear ziran, becatuen erremedioraco, ordenaturic zeuden ofrenda ta sacrificioac; eta hura zan, orduco confesatzte modua”.

Baña oraiñ, legue berrion evangelio santuac declaratuz gueró, usatzen da christauen artean beste confesatzte modu bat, sacerdotearen aurrean eguiten dan-á, legue naturalecoa eta escriptucoa baño indartsuagoa, seguruago, ta valio-soagoa; ceren, itz batean esateco, oraingo confesatzte-an, obratzen du J[esu] Christo Jaunaren pasio ta eriotzac. Becatua confesatzten degunean, eta sacerdoteac absolucioa ematen digunean, án da bereala⁹ J[esu] Christoren pasioco meritu ta valioa, án da bereala aren gracia ta faborea, ta arequin batean becatuaren barcacioa. Bi arrazoi eman ahál ditezque lenendic-óró, probatzeco, oraingo confesatzteac indar gueyago duala, legue zaharrecoac baño: 1.^a, ceren oraingo confesatzteac, legue zaharrecoac etzuaná, badu bere baitan barrena, edo, berez, indarra, garacia emateco; legue zaharreco confesatzteac eta orduco beste sacramentuac etzuten eurac bere indarrez ta birtutez garaciariac ematen, baicic[a]n, ematen zuten garacia, ematen zuten, artzen zituanac, zuan devocioaren ta prestaeraren erara, au da, nola prestatzen ziran artzeco, ala artzen zuten, “sacramenta veteris legis conferebant gratiam ex opere operantis”: baña oraingo confesatzteac eta sacramentuac ematen dute, gure devocio ta prestaerari dagocan garacia, ta are gueyago, sacramentuac eurac beragan dutenetic ere zatiematen dute, ta artzen degu guc ere zati ta parte hura, baldin guero guere aldetic arazo-eragozqueta-catibuera ta traburic ipiñtzen ezpadegu, “sacramenta novae legis conferunt gratiam ex opere operato” au da, J[esu] Christoren merecimenduac-gatic¹⁰: 2.^a arrazoea eman ahál diteque, probatzeco, oraingo confesatzteac indar gueyago duala, legue zaharrecoac baño; ceren, orduco confesatzte-an, baldin erditšico bazan barcacioric, bear zan biotzeco damutazun zolizoli bat, Jaungoicoa beragatic eta beraganaco amorio-agatic izaná ta artua, ceiñ deitzen dan, “contritio”, contricioa-onesdamua-damu gucien gaiñeco damua: baña oraingo confesatzte-an asco da sacerdotearen absolucioarequin batean beste damu modubat, ceruco loria galtzeco, edo infernuco penatara joateco bildurtazunetic eldu daná, dalaco consideratzeco puntua, ta chit erraz salbatzeco mesedea, ceiñ deitzen dan, “atritio” atricioa-bildurdamua-infernuaren bildurraz artzen degun damua, “ex atrito per sacramentum fit contritus”, esan nahi du, asco dala oraingo confesatztean uste izatea baduela contricioa; ceren ezpadu ere atricioa baic[ican]¹¹, cumplitzen ta usbetetzen¹² du sacramentuac, bitartean dan usaldi-falta-ta escastazuna. ¡Oh, au mesede parebaguea, sacerdoteac sacramentuarequin eguiten duan-á, motivo ceñagatic bacarric, bear luqueten gendeac amatu-eztimatu-ta onrratu Jaungoicoaren oiñordea becela.

[3] Hain andia da mesede au, cen, (quando se quiera hecharlo como brebe platica, se concluirá con este mismo ff.^o¹³) arrazoearequin galdetzen du Jerem[ias] Igarleac¹⁴; ¿numquid¹⁵ resina non est in Galaad? ¿aut medicus non est ibi? ¿quare ergo &.^o? ¿cer da au? ¿ez ote da erresinaric¹⁶ Galaad-eco errian, edo medicuric an bertan? ¿nolatan bada nere errico alabaren zauria ezta sendatu? Esan nahi du. Christau errian, arimaco eritazuna sendatzeco, ain erremedio andia ta medicina escuarra dan lecuan, cein diran confesoreac, ¿nolatan guciarequin ere aurquitzen dira aibat zauri eta eritazun? ¿aibat becatu ta gaiztaqueria? ¿ta nolatan eztira, lasterrago sendatzen, urte gucian ta batzutan gueyago ere, becatuaren eritazunean, quiraztuac-ustelduac-ta ziquinduac badaode?

Eranzuten du Glosac¹⁷: Eztira sendatzen, ceren eztiran sayatzen; eztira medicagana consejatzera, ta medicina artzera joaten; esan naidu, eztira bear becela confesatzen, ez confesorea-gana¹⁸ urreratzen.

Arimaco eritazunetic sendatzeco, erremedioa, da confesatzea. ¿Ontzia galduz guero, cer erremedio izango du mariñelac, salbatzeco? Zul pusca bati lotzea, ol bat atrapatzea¹⁹, ta arequin batean, ari dache cala, dautzala²⁰, igari itsasaldea irabaztea, “paenitentia est secunda post naufragium tabula”, esan nai du, ontzia galdu ondoan arrapatzen dan ol baten pare dala, becatuan erori ta ontzigaldu eguin duanarentzat, confesatzea. Baldin eguiten ezpadezute penitencia, dio San Lucas Evangelistac²¹, gucioc azquen gaiztoa alcarrequin eguingo dezute; bada penitenciaren partetic²² bat, da confesatzea; beraz, ez azquen gaiztoa eguiteco, bear da, ongui confesatu.

Hau onela izan arren, dan becela fedeco eguia, J[esu] Christoc eman zietela apostoluai ta ayen icenean sacerdoteai escubide jaincozco bat, barcatzeco²³ becatuac, eta lotu edo guelditzeco araco barcatu bear eztiranac, orrez guciac ere, españaco heregeren batzuc nai luquete guezurtu eguia au esanaz:

1.^o Eztala iracurtzen iracazderic ez lecucotazunic, esango dubena, badala obligacio ta premia confesatzeco becatuac bana-banan²⁴-bat banaca; ta ongui guerta zitequeala, Salbatzalleac ez nai izatea ipiñi alaco obligacioric, ezpada eman bai escubide bat barcatzeco becatuac baquidan²⁵, becatuaren contricio-bitartez, eguin zuan becela Salbatzalleac becatariacquin”.

Guezurra ta abarra da au, dariena, batez ere gonadunen artean, onela bildurra quenduric, obeto berena eguiteco desordenu gucit[al]n. ceren eguia esan, guc bezain ondo daquite, San Juanen evangelioco ogeugarren capituluan aurquitzen dan iracaste ta lecucotazuna, beneric ezpalego ere, bera bacarric asco daná, probatzeco, confesatzeco obligacioa; non Salbatzalleac, illen artetic biztu ezquero, apostoluai bere elyzaren governu²⁶ oneraco bear ziran iracasteac ematen zebillela, esan zien: “paquea izan dedilla zuecquin: nic biraltzen zaituet mundutic escubide berbera ta berdiñ berdiñarequin ceñarequin nere Aytac biraldu ninduen ni lurraren gañera: orduan aicea-eman zien esanaz, artu ezazute Espiritu santua; araco nortzuen barcatzen dieztezuten becatuac, barcatuac izango zaiezte, ta araco, nortzuen guelditzen dieztezutenac, &.^o”:

[4] Itz oioc berberoc dira, Obispoac esaten dituanac sacerdoteen ordentzean, ematen dienean absolbitzeco escubidea ta eciñ asmatu ta esan ere liteque itz acabatuago ta erabaquiagoric, gomendatzeco confesioaren obligacio ta premia.

Testimonio onetan cimendaturic, eranzuten diet, imposible²⁷ izango litzaqueala barcatzea becatuac guizon batec, ayec lenengo ezagutu bague, ta eciñ ezagutu ahalco liraqueala, azalduac eta declaratuac²⁸ izan bague, declaracio ceñari deitzen diogun confesioa. Bacar bacarric bada Jaungoicoa da, guizonen biotzac barrendu ta ezagutzen dituan-á; bacarric berac ezagutu ahal dezaque becatari baten damu benazco-cinezco-tolesbagea; ta ala, J[esu] Christo Jaungoico ta guizon eguiazcoac etzeucan premiariac enzuteco confesio, ez Madalenaren, ez Samarit[anare]n, ez besteren-ic. Baña bere apostolu ta sacerdote animen cargu-dunac, iduqui bear dute becatu banan-banango confesioaren ezauera argui bat; “bada bestela, Trento²⁹ Batzarre Santuac³⁰, arrazoiñ oietan cimendaturic dionez, eciñ ahalco luquete eguin juicioric becatari damutuen estaduaren gañean; eta medicu becela ezagutu eritazunaren nolacotazuna, urreratutzeco dagoquion erre-medioa; ez eta juez becela ongui beguiratu becatuaren piñutazuna, emateco dagoquion moduco sentencia zuzena, ta berdindutzeco berarequiñ penaren neurria, ceña gucia, dionez, eciñ ahalco luquete eguin gauzaren ezauera bague, baldin ain bacarric declaratuco balitzaiezquete generalean edo batuca, ta ez particularean edo bat banaca”. Testimonio, edo, esan dedan evangelioa[re]n capituluco esangay au azaltzeco, jaquitunbatec, Alcuinoc, batzarre au baño guizaldi ascoz lenago, esan zuan: “¿cer gauza da ascaturzen duan-á escubide sacerdotezcoac, baldin lenaz beguiratzen ezpaditu, lotua dagoanaren locarriac? medicuac eciñ ahálco dute sendatu, baldin gaitsoac aguertzen ezpadituzte beren zauriac: ¿baldin gorputzeco zauriac escatzen badute medicu bat, ceimbat gueyago premia izango dute medicu espirituco baten consejuena biotzeco zauriac?” Hau bera esaten dute guizaldi gucietaco Eracusle ta Guraso santuac, guchi gora bera itzqueta berdiñ berdiñacquin, probatzeco, Christoc ipiñi zuan, ta christau artean beti usatu dan, esandaco confesatzeco moduaren obligacioa ta premia.

2.^a “Eztala iracurtzen, diote berriro, becatuac banaca confesatzeco obligaci[on]c, Inocencio 3.^o, icen onetaco Aya³¹ S[antu]ac ipiñi arteraño”.

Guezurra ta abarra da au ere, dariena, gende emeac engañatzeco, ta obeto berena eguiteco, desordenu gucietan³²; ceren, guc bezain ondo daquite, cen, erligioco punturen baten gañean jaiquitzen diran ezdabaidac-galdeac-eta leyac erabaquitzeco, jaquin ta jarraitu bear dirala, San Agustinec iracatzi zituan erregla oiec:

1.^o Dio, oieztan eroqueria bat dala a-trebe-tzea³³ leyan, Eleyza guciac eguiten duaná, ea eguin bear ote danen ganean.

2.^o Dio, Eleyza guciac eguiten duaná, ta ez, eleyzaguizonac batzarren batean ipiña, ezpada, betibeti eracatzia eta gordea, lecu gucietan usatua izandu daná, “quod semper, quod ab om[n]ibus, quod ubique”, au iduqui bear dala, etorritacoa becela, jaincozco edo apostoluzco doctrina[re]n escuraematetic.

[5] Erreguela cimenduzco, artacotzat Theologo ta Canonista jaquitun guciac ezaguturic dauzcaten, oien odoren, arrazoe zentzun onecoac sinisteracitzen du, berritazun bat eciñ sartu litequeala gende gucien artean, ayetatic batzuc³⁴ ari contraesan bague; bada, alacoren bat guertatu danean, esperenciac eracutzi du, bereala iratzarri dirala leyac-galde-ta eranzunac³⁵, bai fededunen, ta bai animen arzaian artean: guerra dembor[a]n legue berri bat sartu nai izaten danian becela.

Fedeac ere iracazten du, Espiritu santuac aguindu diola bere lagun-eguitea Elizari, igues, ta useguin ez dezan eguiac iñoiz, ta artu eztidin heregiaren sinisquera guezurrezcoa fedearen abé ta cimendu irme sendo onetan: esperenciac³⁶ ere agueracitzen du, munduco elyza guciac, eguzquiaren sortualdetic sartualderañoac, beti egon ta izan dirala a-corde batecoac-erabaqui batecoac-itiz batecoac, dotrinaco puntu onetan:

elyza ayetatic batzuc³⁷ aldendu baciran ere, elyza-batazun-ta fede gucieracotic puntu batzutan, baña etzan inoiz icusi aldendu zirala, becatu banan banango confesio belarricoaren premiaren dotriña puntutic, gorde zan ayen artean inoiz ere ausi bague mandamentu ta doctrina, apostoluac danic artutaco au; ta erromaco elyzaren batazun ta fede gure guciaquicotic urratuac egon arren, ala ere, eraman zuten euracquin legue baten beguiracune on ta gordetzen leyal beti betico bat, legue ceñari, ezta iracurtzen iñore eguin diola contraric Lutero daño, ta Llorente deitzen zan³⁸ herege españatar escomulgatua daño:

armenioac, etiopeac, cophtoac, griegoac, guciguciac dira alde onetan sinisquera batecoac Erromaco elyzarequin, ta ala, eciñ artu zezaqueten doctrina au Inocencio 3.^{en}, icen onetaco Ayta santuagandic, ceren au jayo baño urte ascoz lenagotic zeodeten gende ayec aldenduric gure elyzatic, baña beti siniscor ta sendo confesioco puntuan.

¿cer berritazun, uste dute bada heregeac, sartu zuala Inocencio 3.^{ac} eliza santuan, confesioco puntuan? Ona emen eguia bat, inoizco demboran ucatu eciño duten-á, baldin ibili nai ezpadute beti guezur-etan: nola confesatzeco mandamentu au, Jaungoico berac emana dan, cumplitu bear da noizbait, batez ere, eriotzaco peliburuan; ta lance onetan ezquinenean ere, dirudi cen, mandamentu au eman zuanean, izan zuala intencio ta borondate, confesa guindecin asco aldiz, ceren sarri confesatzetic ontazun asco sortutzen diran; ta ala, eliza santuac iduqui du beti ere puntu onez contú, ta aguindu du desberdiñ, demboren desberdiñtazunen eran, noiz eta ceimbatetan bear degun, eriotzaco ordu edo peliburuan ez egon-agatic ere, confesatú.

Lenago apostoluen demboran, ta oraiñago apostoluac illez gueroz ere, lenbici berri artan, ain zan devocioa andi ta beró, cen, egunoro gorputz santua artzen bai zuten, eta artaracotzat, becuric zutenac, egunoro confesatz[e]n ziran; baña nola guero ondoan, devocioa³⁹ otzitutzen asi bai zan, aguindu zuan Fabiano ayta santuac, sarriago izango ezpazan ere, urtean iru pascoetan, confesaturic, bazcoz-mendecoztez-ta eguberriz, gorputz santua artu guenezala;

[6] Ta azquenic, ain otzitu ta itzali zan devocioa, non, Inocencio 3.^{en} icen onetaco ayta santuac, epai bat emateco puntu oni, bildu zituan mundu guctic bai guchienez laureun Obispo ta zortzireun ta gueyago⁴⁰ Theologo jaquitunenac; eta ayecquin batzarre ta aijuntamentu⁴¹ eguinic, (ez confesioa lenagotic ipiña ipiñtze-co, ezpada ceimbat aldiz guchienez confesatu bear zan erreguela neurrico bat ipiñtze-co), aguindu bearra izandu zuan, aurreracoan, urtean beñ bederic confesa guindecilla, ta artu comunio ta gorputz santua, bazco garicim-acoz.

Esan dezagun bada herege gucien contra, cen, esandaco arrazoe ain aguriac asco izanic, oitura bacarra, eleyza santu gucian beti usatu dan-á, asco izango litzaqueala agueracitzeco confesio belarricoaren premia, onen gañean Letrango ta

Trentoco batzarreac ecer erabaqui ezpalute ere. Azquenic, 3.^o diote, confesioa dala concienzien⁴² tormentua, uztarri pixu andicoa, ta ala &^a.

3.^a “Eztala tormentatu bear iñor, diote azquenic, confesioaren uztarri pixu andicoarequin”.

Guezurra ta abarra da au ere, dariena, intencio galduz beteric, Jjesu Christo-
rjen erligioa mundutic quentzeco, animac inf[ernu]ra botatzeco. ceren, eguia da, uztarri pixu andico bat irudico litzaqueala confesioa, becatuac aguertze-an dagoan lotzagatic, baldin pixueza ta ariña eguingo ezpalitza, sacramentu onetara bear becela urreratzen diranac, absolucioaren bitartez, artzen dituzten ondore ta ongarrri andiac-gatic; ta ala, gaiztaqueria bat dá, deitzea confesioari concienzien tormentua, dio Trentoco batzarre santuac, sesi. 14. c. 5.

Ala bada, aitortuten ditugunean becatuac, belaunicatuac egonaz sacerdotearen oñetan, burua desestalduric, aurpequia lurrera macurturic, escuac ipiñiric eta cerura zuzenduric, señaile oiequin agueracitzen degu gure humilltazuna ta sacramentuaren birtutea; ta lotza guchi bat sufritu arren, ñnolaco poza eztegu artzen guero absolucioa-gatic?

Eztago guizonezco bicitzan, gauza gozoago ta ongarrigoric adisquide eguiazco bat baño, nori aguertu ahál izan libertadearequin, dauzcagun eguinbideac-premiac-penac, eta ez jaquiñez edo beste moduz eguindaco useguiteac, zuzendu gaitzan-socorri gaitzan-consola, gaitzan, eta jaquitun eguin gaitzan eldutzeco salbacioco ichasbaster segurura: bada espirituzco bicitzan, adisquide⁴³ ori da confesorea, cereguin oiec berberoc eguiten dituaná gurequin confesioan.

Iñoiz ere etzuten ezagutuco asco guizonec ongarrri ain andi au, baldin egondo ezpalira premiatuac confesatze-rá; ceren guizona, asco bildurtzen da icuste-an bere burua, ala nolacoa dan; baldin noizbait sayatzen bada ezagutzen bere burua, izan oi da dembora labur batez, ta modu ain azaleco batez, non da, laster aáztutzen zaion, nor dan; guchitan artzen ditu beretzat, entzuten edo iracurtzen dituan eguiac, baña mella andi bat eguiten dioe, adiquide batec esaten diozcanean.

[7] Orregatic, inoiz Jjesu] Christoc eta Elyza santuac aguindu ezpaligute ere confesioa, christau, bearequin nai luquetenac cintzoró beren salbacio-an, billatu bear luquete consejari jaquitun ta leyal bat, iracatzi daguietena; nola ezagutu beren animen estadia, nola garbitu beren becatuac eguinaz penitenciaco frutu diñac, nola gorde buruac jausqueraberri-tatic, aurreratuz birtute-an: iah, cer laguntazun ta ventaja ain indar andicoac atera litezquean, baldin aguertuco bali-zaió biotz-barrumbean!

Ucatu eciñ liteque bada azquenic, confesioa, concienziataco tormentua ta uztarri pixu andicoa izatetic urruti, contrara dala chit erazcoa erripublicoaren⁴⁴ oneraco, ta guizonen alcarren arteco batutazun-eraco; ceren confesioac gueldiracitzen⁴⁵ du pasio ta griña charren indarra, ta pecatzeco libertadea, lotsaren mugariarequin: baña, quenduco balitzaioque fregu au guizonen maliciari, ¿ceimbat modutaco becatu itzillicoen ugoideac ez luque ondutuco mundua? Ta lizunduric guizonac pecatzeco oiturarequin, ez liraque lotzatuco eguite-az aguirian gaizta-

queriaric caltegarrienac errientzat: ¿cer cabura ez litzaque elduco orduan liberta-dea? ¿ta norc iduqui ahalco lituzque seguru bere ondazunac eta bicitza? fin (eta *errubrika*)⁴⁶.

5. TESTUA

Plática 1.ª sobre Religion natural

Introd[uccio]n

N: Erriligioa, eusqueraz deitzen da ala, ceren dan erri ligitoa-leguecoa-edo naturalezaco leguearen eracoa; ceren erri edo guizonac erribatutzen eta lotutzen dituan legueacquin Jaungoicoarentzat, bera serbitzeco. Erriligioa, baquidaró edo zabalean adituric, da eguitada bat, ceñareq[ui]n munduaren eguillea amatz[e]n dan onore jaincozcoa[ui]n; edo S[an]to Thomas escoletaco Maißsuareq[ui]n esateco, da birtute bat, ceñarequin ematen zaion Jaincoari agureguite, zor zaiona. Erligio natula da, argui naturalequin ezagutzen dan-á, ta naturaleza bertan cimendatzen dan-á. Erligio naturalezagañecoa da, aráco, naturazgoitico arguiare-q[ui]n, au da, Jaungoicoaren itzarequin ezagutzen dan-á. Gauza oiec alcarren ondoren azaltzeco, aguereracico det puntu bacar onetan, esanaz:

1.º artu bear dala erriligioen bat, edo Jaungoicoa izan bear dala amatua ta onrratua, bai biotzbarruan, bai campoan, bai aguirian:

2.º criaturen accio guciac eztirala Jaunaren guztoco, batzuc izanic beren izatez onac, beste batzuc charrác:

3.º erriligio naturaleco obrac azalduric, aguereracico det, au eztala asco, ta orregatic premiazpremiaczcoa dala errebelacioa: ta onela pausu berezberezcocquin juango naiz azaltzera erriligio cerutic aguertua¹.

1.º Aguereraci dezagun puntu onen anditazuna. Guizonac² Jaungoicoari zor ta eman bear dion-á dago batez ere, adoracioan, amodioan, esquerrac ematean, oracioan, ta obé-diá-encian: eta gauza oiec gucioc osóbete bear ditugu, aren anditazunaren borondatea eguiteco.

1.º Jaungoicoac³ izan bear du adoratua: ceren, adoracioa da, anditazun nagusiac guganaco ta criatura guciacanaco daucan jabetazunaren confesioa; ta eguiaz aitortu ta ezagutu bear da aren guganaco ta criatura guciacganaco⁴ jabetazun au, bada da eguiaz ta benaz, ecerecetic atera zuan mundu onen jabe ta jaun.

2.º izan bear du amatua: ceren, arrazoe zentzun onecoac esaten du, hura izan bear dala amatua, ona ta amagarria daná; ta eguiaz Jaungoicoa da chit ona ta amore guciaren diña, berequin dauzcalaco onoitazun ta perfeccio guciac.

3.º esquerric asco eman bear zaizca, dalaco onguillea.

4.^o izan bear du erregutua: ceren, nola eguin dizquigun mesede ta onic asco, ta eguin ahál ditzaquequigun egunoró, arrazoe ta legueac dacar erregutzea guc berari, eguinaz humill humillic oracio.

5.^o izan bear du obeditua: ceren dan chit ahálduna ta dembora berean chit zuzena; ta orregatic, ecercho ere eciñ aguindu ahál daguiquegu, arrazoearen eraco eztañic.

2.^o Ezaguteracitzeco puntu onen eguia⁵ balioa, diot, gauza ciurciurra dala, guizonac dirala jayoac guiza-arteracó.

[2] Gauza jaquiña da, guizonac, alcarren artean ta alcarren oneraco, dirala lotuac legue ascorequin, ta bear dutela lagundu alcarri, beren cereguin, oficio-ta serbitzuequin⁶, onetara premiatzen dituztelaco legue-catea, ta locarri oiec.

1.^a da amodio ta borondatearen inclinacio bat, berez daucana, ceñarequin macurtzen dan, ontzat⁷ dauzcan beste guizon-etara;

2.^a da norberaren ongarria, ceñ artzen duan bacoitzac, alcarren arteco batutazun-juan etorri-ta tratamentutic;

3.^a da esquerrac eman bearra ayei, nortzuec-gandic artu dituan on eta mesedeac, animaco ta gorputzecoac;

4.^a da bildurra, bada edoceñec bildur izan bear du, guizonac eztaucatenean batutazunic, alcarri char asco ecarri diozaquetela.

Orañ bada, legue ta locarri oiec, ceñtzeuc, munduco gucién bai ta naitazunez, batutzen ta lotutzen dituzten guizonac euren artean, estuago ta indartsuago batu ta lotu bear dituzte guizonac Jaungoicoarequin:

bai amodioaren aldetic; ceren izanic amagarritazun ta ontazun guciaren iturburua, eguiac beragana, piñu guciarequin becela, macurtu bear da guizonezco borondatea; ta biotzeco indar ta gogo beroagoarequin izan bear du amatua;

bai ongarriaren aldetic; ceren gayonago da urreratzea Jaungoicoagana, guizonac baño;

bai esquerren aldetic; ceren izanic doañen chit emallea, ondoren esquerriac asco eman bear zaizca betibeti;

bai bildurraren aldetic; ceren aserraturic, char gueyago eguin ditzaquequigu, guizonac baño.

Ala bada, legue-catea-ta locarri, guizonac euren artean batutzen ta lotutzen dituzten oiec, ascoz gueyago batu ta lotu bear dituzte guizonac Jaungoicoarequin: beraz artu bear du⁸ norberac erriligioa⁹, edo Jaungoicoa izan bear da amatua &^a arriba.

3.^o Icusteco ere gueyago puntu onen indarra, berriz ere diot, Jaungoicoa, mundua eguiñaz, aguereraci zitzatela guizonai.

Eguiaz, bere dagoquotazunac, au da, adiera, jaquinduria, ontazuna, guciahál-tazuná, argueguiten dúte mundu onetan;

batetic autortu zien ugariro adimentua, bera munduco obratan ezagutzeco, gay-zolizoli-ta zintzoa daná;

bestetic eman zien adiera, dagoquera oyec nai ta nai ez aitortu ta ezagutu baño besteric eciñ dezaqueaná;

Orañ bada, ¿cer asmurequin Jaungoicoa aguereracico zitzaieten guizonai, cer uste ta fiñeraco emango zien adimentuco zentzunac ceñacquin ahál izan dezaten ezagutu bera chit erraz ta costu guchira, cer fiñetaraco, diot, baldin nai izan ezpalu guizonac amatu ta adoratu zezaten bera, bai biotzbarrutic, bai campotic¹⁰, eta bai aguirri aguirian gende gucien aurretic?

[3] beraz guizonac daode beartuac ezagutzera Jaungoicoa munduco obratan; daode premiatuac ematera berari gloria ta onorea, bere esandaco dagoquotazunaz miraritzera, ta beraren azpico dirala aitortutzera; bear dute gorde gogoa beraganaco beti gomutari, eguinaz bicitza bat bere borondate santuaren eracoo, euren pensamentu-esan-eguin gucietan:

beraz &.^a arriba.

4.º Osobetetzeco puntu onen ontazuna, diot gueyago, siniste au ere dato-rrela munduco gende gucien bai ta naitazun-etic.

Eguiaz, inoizco demboran etzan egondu erriric, ez sinisgorrac icentatu deza-quete bat ere, erriligoren bat artu etzuanic;

genderic batere ezta izan ain sorra, nonda, Jaungoicoren bat, guezurrezcoo izan arren ere, agurtu ez duanic¹¹.

Orañ, bai ta naitazun arec iduqui lezaque etorrera naturaleza bacarretic eta arrazoe zuzenetic; ceren, edo jayotzen da naturaleza ta arrazoe zuzenetic, edo guticietatic, edo aciera char-etic: ala da bada eguia¹² eztala jayotzen, ez guticietatic, ez acieratatic; ez guticietatic, bada, jaunaganaco agurtazun arec contra-esan ta eguiten die, fregua-Urquia-ta brida ezarten die, guticiai, ez eta aciera char-etatic, bada edoceiñ ere gauz¹³, guticiai fregua ta urca ezarten dien-áa, eciñ jayo liteque aciera char-etatic.

Ceren aciera charrac, edo obeto esateco, preocupacio, eusqueraz burutacioac, argalago dira, guticiac eta araguiguetazunac baño ere; burutacioac sortu ditzaquete guizarlean iritzi ta opinioac, baña ez, guticia ta gurariac freguac ezarte-co moducoac, bada guizona¹⁴, izanic chit macurra gaiztaqueri ta guticietara, eztú artzen inoiz ere gogoric ayec ecitzeco, arrazoeac acullatua ezpada onetara.

Onez gañera, jaunari agureguitau da gende guciaquicoa, burutacioac baña eztira guciaquicoac, beraz agur au ezta burut[acioe]n humea; ¿ta milla bider argüitua-esamenatua¹⁵-ta aitortua izandu dan ain pixu andico puntu onetan, norc esango du, gende guciac, erri guci[a]c filosofho guciac izandu dirala, burutacioac arrapatuac-engañatuac-itxhutuac, adimentu-centzun-cordebaguecoac?

beraz munduco errigende gucien bai ta naitazun gogo bateco au, jayotzen da arrazoe zuzenetic; eta ondorea atera bear degu esanaz: beraz erriligioac¹⁶ eztacarella bere etorrera Erregue-Aguintari-Buruen politicatic, ezpada arrazoe zuzenetic, izan[i]c ucaeciña, Jaungoico arrazoearen eguilleac castigatzen ta castigatuco dituala erriligioaren burlaguilleac.

5.º Ucatu eciñ liteque bada, N, egungo sinisgorrac¹⁷, noiz eta erriligioaren contra aimbat arricada arró-jótzen ta botatzen dituztenian¹⁸, ta hurá lurjotzeco aimbat engañuzco ta deabruzco machinada asmatzen ta ateratzen dituztenean, euren buruac guizonzco casta guciaren etšay dirala ta izango ere bai, adierazten dutela.

¿Ceimbat gende basotarren asarre-moldacaitz-eta gogortazun, etzuan azpitu-moldatu-ta bigundu erriligioac¹⁹?

[4] ¿ez ote zuten Legueguille guciac²⁰, Pythagoraséc, Platonec, Zaleucoc, Solonec, Lycurgoc, ta Chinaco, Indiaco, Igitoco-ac, diot, ez ote zuten eguin erriligioaren²¹ usadio, ecarteco beren legueai nausitazuna? bada esateraco: Licurgo legueguilleac, Lacedemonitarrari legueren bat eman nai zienean, lendanic joaten zan Delphos deitzen zan Beotiaco errira, non zegoan Apolo jainco guezurrezcoaren Temploa, ta irudituz guezurrez an icasi zuala, Apoloren borondatea zaná legue alaco ta onelaco ipiñtzea, jaincotazunaren itzalaz au sinisteraciric, areracitzen zien leguea, ceren bazequian etzutela artuco, jaincotazunaren icenean baño bestela: Orobat, Minos Cretaco Legueguilleac, Erritarrari legueren bat ipiñi nai zienean, lenengo igo oi zuan Dicten deitzen zan Mendi batera, irudituz gendeai, andic zecarquietela jaincotazunen aldetic leguea.

Oiec gucioc esperenciaz zequiten²², bacarric jaincotazuna edo erriligioa dala, legueai indarra ta balioa emateco cimendu sendoa;

iritzi batecoac ziran, errietaco legue bacarrac, gendeac etšayetatic gordetzeco-gaizqui eguitetic euquitzeco-paquean iduquitz[e]lco prestu eztirala.

Erriligioa bague, oitura-tán zuzentazuna de-ús, osotazun-garbitazun-prestutazunic bat ere ez;

ta, at baña²³, cantatzen duan becela Horacioc, ta aren ondoren cantatu zuten jaquitun guciac esan comun au, essanaz: “¿alperricaco legueac cer oitura onic bague balio dute?” eranzun bear da; de-ús balio dute.

Erriligio bague, guizarteco armoniac-errietaco paqueac-erreñuetaco²⁴ seguridadeac lur-jotzen dú, ceintzuec baño gauza ederragoric, izanic ciertoa, eztala aurquitzen munduan, ondo bicitzeco, ta erreñuac iraunteco.

Erriligioco angura sagradua ceimbat aldiz movitua izandu dan, aimbat bider ondatzeco zorian, edo, ez ondatu bai ondatu ibili da Erriplicoaren²⁵ ontzia;

etšay-saltzalle-ta traidore dira bada jayoterrico, erriligioco echea lurrerabotatzeco lanean dabilltzanac.

Legue guizonzcoac, guertaera gucien-circustancia gucien-genio gucien erara eciñ etorri litezquete;

Legue guizonezcoac, zequenen contra-biotzgorrecoen contra-lausengari laban²⁶ contra, etzarri²⁷ batere penaric; ez ere zuten aguindu bat ere sariric, ordaiñ emateco araco persona, gurasoac-anaco biotzbiguneco, lagun urrecoacganaco adisquide, beartsu esquecoac-ganaco onguille diranai, ta cereguin oietan cintzo cintzo bear-eguiten dutenai: Ta alá, erriligio bague, ô, ceimbat cereguiñ ta oneguin despreciatuco liraquean²⁸, guizarteco zorioneraco asco laguntzen duten-ac!

[5] Legue guizonezcoac, onez gañera, persona bacoy-batarrac ezitzeco berdiñ izan arren; guchienez, andiqui-aguintari-buruac, ecitzeco, ez liraque ascoco²⁹; gordeac izateco, indarra ta nausitazuna ecarri arren ere ayen-gandic. ¿Ta ala: ¿ceimbat gaizqui-negargarri-ta ondabide, ez lieque ecarrico erriai, baldin erriligioac eragotzico ezpalie?

Ala bada, calteguille-biotzgor³⁰-izurripestec dira guizon, erriligioco locarria, illcorrentzat ain salbagarria, urratu naiz dabilltzan-ác, euren burla-engañu-ta liburu galgarriac-quin, ceñ zabaldu dituzten Españatic:

Ala uste izan zuten, guizaldi gucietan, Philosophoric zoli-zoli ta jaquitunac: “quenduric santidadea ta erriligioa, dio Tulio, ondoren dator bicitzaco t-urbacioa ta nahazte andiandia”, onetan adieraciaz, erligioa dala errientzat eta guizarteraco osasungarria, biotzgorra berriz caltegarria³¹:

Au bera iracazten dute Philosopho berri oraiñogetatic icen andicoenac ere.

6. TESTUA

Platica 2.^a1

Introduc[cio]n

Deista batzuc, ala deitzen diran-ác (ezagutzen dutelaco Jaungoico bat, baña Jaungoico sorrá ta gorra) erriligio gucia, biotzbarrucoa ere, arrasatu ta galtzen dute, esanaz; Jaungoicoac eztaucala arzaz batere arduraric, sorra ta gorra eguiten dala gure erreguai, ichua gure premia ta eguitada guciai ta eztiotela batere mellaric eguiten gure agureguite bildurti-doneti-erriligiozcoac.

Beste batzuc, agureguite biotzbarrucoaren premia ezagutzen duten-ác, agureguite campoticoaren premia, ceñ dagoan gorputzeco ibilli batzutan, esateraco, mezaco ceremonietan, elizacanta santuetan, calbarioco-letaniaco-procesioco ibilleratan, onen gucienon premia, diot, ucatzen dúte.

Beste batzuc, osticopera botatzen dute agureguite-beguirune-adoracio aguiricoa, ceñ dagoan, cer-emon-ia, soñu andicoyan, ceñarequin guizonac bat-ean baturic, agureguiten-adoratzen-ta amatzen duten Jaungoicoa.

Oien gucien contra, izan bedi bada puntu au,

Punto.

Jaungoicoac izan bear du agurtua-adoratua-amatua, biotzetic, campotic, eta aguirian: ondoren, ta onetaraco artu bear da errilgioren bat. Batac beretzat².

7. TESTUA

Platica 3.^a

Intr[o]d[uccio]n.

N: Erligio naturala da ceruco argui bat, ceñarequin ezagutu-amatu-adoratu litequean Jaungoicoa.

Argui ceruco au, Adanen pecatua baño len, ain zan arguia, non da, ascoco¹ izan berez, ezagutzeco, Jaungoicoaganaco-guganaco-ta lagun urrecoaganaco², cereguin-oficio-ta obligacioac, ceñi daoden zarraturic Jaungoicoaren legueco amar mandamentuetan³; bada fiñ onetaraco, marcatu-cilluzjo⁴-ta moldeztu zituan Jaungoico berac gure biotz-etan.

Baña Adanen pecatua ezquero, alaco moduz illundu zan argui au bere ondorengoetan, non da, adimentua illunduric-gomutea baltzituric-borondatea oquer-turic, itz batean, naturaleza gucia argalduric-lizunduric-gaitzera macurturic; ya munduaren asieratic abiatu ziran guizonac aáztutzen, Jaunac aguertu zien erril-gio eguiazcoa.

Eguia onen testigu dira Judutarrac, ceintzuec, Jaunaren erri esleytua zalaco, icasi zuten erriligio eguiazcoa, Adan-Noe-ta beste Aytalen santu ta Profetac-gandic, Munduaren eguitearen-Adanen pecatuaren-ta Mesiaren etorreraren gañean: Ta ala ere, ñorc eztu negareguingo ayen sinisgortazuna, ceren, aguerpenac-igarpénac-eta mirariac eguiztatuac icusiric, onen gañean, ala ere, ceren zarratu zizcoen beguiac euren erriligio eguiazcoaren ciurtazunari, emanaz onela gentillai ere, erriligioric ez ezagutzeco bidea?

Orregatic bada, aguereracico det aldi labur onetan puntu bacar au, esanaz onela:

Punto. Adanen pecatua ezquero, ya criaturen accioac eztirala Jaunaren guz-toco, erriligio naturalaren contra diralaco. beraz, bear bearra da erriligio naturale-zaz goiticoa-cerucoa-jaincozcoa, ezagutzeco Jaungoicoaganaco &.^a arriba.

Aguereraci dezagun puntu onen anditazuna, beguiratuaz guizonari, bere adimentua⁵ gomuta⁶, becatu jatorriz[o]ac illundu duen⁷ aldetic.

Ta eguiaz, N, ordutic abiatu ziran aáztutzen, Jaunac aguertu zien erriligio eguiazcoaz; deitzen zalaric Kehobak, edo Jobé⁸, verba ceñac, eusquera garbigar-bia izanic, aditzen ematen dituan aren icen-izate-ta perfeccioac; eta onen ezauera galduric, ñceimbat ez jaquintazun-useguite-ta contraesatetan etziran erori euren pensatzemoduetan, errilgioco puntu onen gañean?

Adi dezagun berpertatic, eusquera aaztu zutenetic⁹ ona, eztagoala filosofop-
hoen opinioric, contraesate baguecoric:

atheisticiac, alde batetic eztu aitortu nai Jaungoicoric daná, ta ez-jaquin-ucatu-
-edo dudatzen du, betibeticoa dan-á; eta bestetic, mundu onetan izatea daucan
edoceiñ gauzari, ematen dio jatorri betibeticoa, orra non dagoan contraesatea:

deisticiac, alde batetic aitortutzen du, Jaungoico bat daná, au da, izate bat
azquenbageró jaquintsua; ta bestetic beguitandutzen digu Jaungoico bat becela,
bi bidecoa¹⁰ gure premiatan, ichua-sorra-ta gorra gure gauza gucietan:

[2] spinozzisticiac, argüitzen du Jaungoicoa dala munduaren arimea, ta ezta-
goala munduan izate ta egote bacar bat baño; ta onetan beareztan bat esaten du,
gure arimea dala izatez gauzabat berberá arri ta mé-talluacquin:

epicureoisticiac, eta maomaisticiac, aitortutzen dute eztagoala beste zorionic,
ezpada gozotazun araguizcoetan.

Aguiri da bada emendic, cer moduz illundu zuan¹¹ guizonezco adimentua ta
gomuta pecatu jatorrizcoac erriligio naturalean, cer premia zeducan guizonac
erriligio ceruco batena, ta onequin ta eusqueraren laguntazunarequin cer arguio
aditzen dituzten christau escola mutillac Joberen icen-izate-ta perfeccioac, philo-
sopho ayec baño ascoz obeto.

Emendic ezagutzen da arguiró, adimentu-gomuta¹²-borondatean¹³ &.ª cer
epaiac eguingo zituzten amar mandamentuetan.

Ta eguiaz, legue naturaleco lenengo irurac, jaunaren onrrari dagozquionac¹⁴,
beguira nola aaztu zituzten: badá,

1.º mandamentuac aguinduric amatzeco Jaungoicoa gauza gucien gañean,
ta ez emateco adoracioa beste iñori,

juduac¹⁵ ez bai beste gendeac, it̄susquiro¹⁶ erotu¹⁷ ta ichutu ziran jaincozco
adoracio-gay onetan; ceren, batzuc arrazoe naturalaren contra, ala gaizqui, aditu-
ric, jaungoicoa ez tala beneric ezpada mundu au berau, adoratzten zuten, bai
eguzquia¹⁸-bai illarguia-bai izarrac, “eta San Pauloc dionez¹⁹, aldatu zuten aren
batazuna-eguia-ta gloria, eguinaz²⁰ hura, guizon, egazti, lauofeico, ta sierpeen
irudia galgor ustelgarrizco semeantzera, ta serbitu zuten criatura gueyago, criado-
rea baño”; izanic onela beren eguitadeac, dongue-supersticioso-ta bere desgutzuco:

beste batzuc, asiera bi dirala, bata ona ta bestea charra aitorturic, batac
eguraldi onari-osasunari-zorionari aldareac eguinic, adoratzten zuten gauza on
ayen jaungoico ona, ta besteac eguraldi char-gaitso-zorigaiztoaren jainco charra:

beste ascoc, adoratzten zuten Venus, Baccho, Mercurio, ceiñ ziran, citalque-
ria, ordiqueria, lapurqueriaren irudiac; Venusen irudia emacumezco larrugorrian
adoratuaz bere lotzariac, ta guizon andre nahazte bere aurrean eguinaz citalque-
riajac; bachoren irudiaren aurrean eguinaz ordien ceremoniac; eta mercurioren
aurrean, ostutzen icasteco jocoac:

[3] ¿Esateraco: au bera eguiten dute gure christau gaizto-liberal-framasonac
ere, beren gavetaco biguira-tan? mirarituco guera venus adoratzten dutela, araco,

guizon ta emacumezcoac alcar baturic euren gavezco ayuntamentuetan, lenengo J[esu Chris]toren irudia azotatu, guero euren gorputzac billoztu, ondoren dantza eroetan berotu, ta azquenic arguiac ustecabean itzaliric, bacoitza bere amorantea-requin, edo, escutic deutzan²¹ edoceñequin, iah! cer²² gauza lotzagarrizcoac demonioen illuntazun-etan! An oy da guero bacoren adoracioa, moscorturic, eguinaz ordien ceremoniac; án oy da guero mercurioren adoracioa, iracatziaz, ostutzen icasteco jocoac; an azquenic marteren adoracioa, iracatziaz, erregueac eta sacerdoteac illtzeco arma-jocoac. Auen adoracio gavezcoac etorri dira antzinaconen festa egunezcoetic, anzordecotzac icusico dezuten²³ becela bereala irugarren mandamentuan.

2.º mandamentuac aguinduric ez juramentu alperric eguiteco, aren icen santua gaizqui erabilliaz,

ala juduac nola gentillac aditzen zuten gaizqui aguindu au; batac esanaz, eguiazco juramentua naitatu ta eguin bear dala sarri, dirudialaco dagoquiola jaunaren begiracuneari: bestecac esanaz, guezurrezcoa ere ezta la pecatu²⁴: ceintzen us-eguiteac, deseguiteco

beraz &^a, ceñean argüitu ta iracatzi zien, obe dala, juramentu bague itzeguitea, esanaz, bai, bai; ez, ez²⁵.

3.º mandamentuac aguinduric santututzeco jayegunac, osoro ta ceatz gordeaz, ta igaroz gauza on-etan,

ialeurac²⁶ igarotzen zituzten, ez nintzaque atrebetuco esatera, Escritura sagra-duac esango ezpalu, gauza deabruzcoetan!

¿Cer jayegun andia etzioeten eguiten gentillac euren jainco guezurrezco Astharot, Baalim, Dagon, Molochi, aráco, ayen egun icentatueta eguiten zienean²⁷ euren humeen opá ta sacrificio, erretzen zituztela laba edo metalluzco cecen gorigorietan²⁸ ayen icen ta onorean?

¿Cer jay andia etzioten eguiten erromatarrac euren jaincosa Florari, San Agustinec dion becela²⁹, araco garillaren 29-garrenean, emacume galduzco batzarrere bat, paratuaz larru gorrian, ta esanaz berdaqueria, christaua lotsatzen ta emen esan bear eztiran-ac, araco, dantzatzen zutenean andreanz-eco jaincosa onen aurrean, beronen gracia on-icen on-ta onorean?

¿Cer jay andia etzioten eguiten eurac desonestuen jainco Priapori, Escritura sagr[adu]ac dion becela³⁰, araco, guizonemacumeac nahazte, billuzgorituric-dantza ateraric-chalo eguinic, urreratzen ziranean beragana, bere lotzarietan usai ta musú eguite-rá; aur-escua artzen zuala, andiquiago zanác, ala non da, motivo augatic, eguin nai izan zuten festa onen aguintariburu, Maachá deitzen zan Assa erre-guearen ama, nori eragotzi zion semeac festa ziquiñ au, “matrem suam amovit, ne esset princeps in sacris Priapi”?

[4] Icusi dezagun³¹ laburquiró, legue naturaleco beste 7-rac, proximuaren provechuari dagozquionac, nola aditzen zituzten: bada, mandamentuac aguinduric amatzeco ta onrratzeco humeac gurasoa, ta ari bear dan lotsa ecarri, ta premian laguntzeco;

erri batzuc, orduan munduco jaquitunenac, nola, Athenas-Egipto-Carthago-Persatarrac, ioh, accio icaragarri³² ta deabruzcoa!, arzen zituzten emaztetzat ama ta arreba beren berenac, naturalezaren contraco gaiztaqueria oni, legueac contra eguin bague:

erri beste batzuc, nola Massagetatarrac, euren guraso zahartuac, esan oi dan becela, achurraz buruan jó, ta erriligioz illtzen zituzten.

5.^{oac} &.a Scytatarrac³³ eguin zuten legue bat, aguinduaz, illtzezo erbeste-coac³⁴, celatari-espia-ta etsayac becela. erreñuco³⁵:

Platonec eguin zuan legue³⁶, ontzat emanaz, edariac artzea humea botatzeco, jayo ezquero ere, erre cara botatzeco³⁷.

6.^{ac} &.a Catonec eguin zuan leguea, ontzat emanaz, libre izateco andraqueta-emajauste-edo andrac comunac izatea³⁸.

7.^{ac} &.a Lacedemoniotarrac eguin zuten leguea, libre izateco lapurreta, astruciaz eta aizeriqueriaz eguiña³⁹.

8.^{ac} &. Philosopho⁴⁰ oyec ontzat ematen zuten guezurra, juramentu guezur-rezcoa, pecatuac aguert-eracita alabatzea⁴¹.

9, ta 10 &.a Juduac ere ontzat ematen zuten⁴² deseozco pecatua, nola besteren emaztea, ondazunac &.a, etsayac ez amatzea, ta milla &.a.

Itz batean esateco, Epicuru ta Stoico-en escolac alabatzen ta iracazten zuten, guizon indarsuaren señalea dala, gaiztaqueria ta gozatasun mota gucietan ondo aprovechaturic irtetzea mundu onetatic, comediaco eche batetic becela &.a.

Orrá nolacoa dan guizonezco casta guciaren ezjaquintazuna-gaiztotazuna, ta lizuntazuna, Jjesu Chris]to etorri baño len, ta beronen erriligio cerucoaren berri-ric eztaucaten oraingo gentillac ere, erligio ta legue naturala eztaquite obeto gordetz[e]n;

Eta, ala antzīnacoc nola oraingoac, erriligio cerucoa bague, jaquingo ete⁴³ zuten nola alcanzatu, esandaco becatuen barcacioa?

ecer guchi: bai contrara, esperiencia⁴⁴ negargarri batec iracazten digu egono-ró, guizonac, edo dala berenezco argaltazunez, edo culpagarrizco ezjaquiñez, edo deabruzco maliciac, gueyenean ausitzen dituztela legue ala naturaleco nola goina-turaleco mandamentuac; eta au ala izanic, baldin sinistutzen badegu, jaincozco⁴⁵ providenciariac gobernatzen duala mundua, Naturalistac ere ala dala sinistutzen duten becela, eciñ dudatu dezaquegu, Jaungoicoa izango dala legueauste onela-coen vengatzalle, baldin ezpadago paquetutzeco moduren bat: modua bada paque-tutzeco justicia jaincozcoa, inorc eciñ ezagutu dezaque ciertu, ceruco errevelacio bague, cein dan... beraz &.a

[5] Oni eranzuten diote Naturalistac āo betean esanaz: “Jaungoicoac biotza nai duala, ta ez azalic; biotz barruco damu ta penitenciareq[ui]n paquetutzen dala; ta ala nola ayta batec, edo nagusi batec, edo etsay ez osoro gogor batec ez oi dien becela ucatu barcacioa eguiazco damutuai, ¿ceimbat gueyago au ichodon bear da, diote, Jaungoico, erruquitazun ta misericordian aberatza daná-gandic”?

Orixe bai dala eranzute ederra, ceñarequin iracazten duten berdin berdin dirala agravio ta barcacioac, jainco ta guizonen artean.

Baña, arrazoe ta legue naturalaren argui erbalacquin bacarric, eciñ ezagutu zitezquean justicia ta misericordia jainc[ozcoare]n mugac:

¿norc, esateraco, icustean, legue guizonezcoac castigatzen dituztela beti legueausleac urcá edo beste eriotza modu batequin, euren penitenciarri jaramon bague, ta naiz damutu ditecela naiz ez, cergatic au berau bildur izango eztiogu justicia jaincozco eciñ oquertu litequeanari; edo, norc, arrazoe ta legue &^a esango du, penitenciarren ta barcacioaren artean dagoala alaco adisquidetazun edo itsatsitazuna, non da, eciñ dezaqueala justicia jaincozcoac despreciatu gure edoceiñ ere penitencia, ta castigatu barcacio batere bague?

¿norc, arrazoe bacarra lagun duala, erabaqui lezaque, noraño luzatzen ete⁴⁶ dan Jaunaren misericordia au?

¿beguiratzen ote dituan edo ez berdiñberdiñ pecatu guciac, ain berdiñ esquerqueac, nola sarri berriztatuac?

¿barcacioa, ichodotzen dan-á, izango ote dan osoa edo zaticoa, izango ote dan pecatu batzuen ta ez guciena?

¿norc, onez gañera gueyago daná, esan dezaque, Jaungoicoa izango ote dan contentu biotzbarruco penitenciarequin bacarric, edo, escatz[e]n ere ote dituan gorputzeco penitenciarren batzuc, ta ceñ ta nolacoac izan bear duten penitencia obra onelaco campoticoac?

beraz, bear bearra da erriligio errevelacio jaincozcoa, ceñac bacarric iracatzi daguiquegun modua nola garbitu pecatuac eta nola paquetu Jaungoicoa.